

**MINTZAPRAKTIKAN ARI DIRENEK (BIDELARIEK)
EZAGUTZATIK ERABILERARA PAUSUAK EMATEKO
IZATEN DITUZTEN ZAILTASUN ETA OZTOPOAK
EZAGUTU ETA HIZKUNTZ OHITUREN ALDAKETETAN
ERAGITEA**

**HIZNET 2014/2015 IKASTURTEA
HIZKUNTZA PLANGINTZA GRADUONDOKOA
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

**EGILEA: MAITANE ARIZABALETA
TUTOREA: IÑAKI MARTINEZ DE LUNA**

1.- LABURPENA ETA SARRERA

1.1.- LABURPENA

Mintzapraktika programen oinarria da euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak hitz egiteko ohitura ez dutenekin elkartzea. *Mintzapraktika programak* aisialdian garatzen dira, izaera boluntarioa dute, harreman sare berriak sortzea bilatzen dute, euskararentzako hiltun eta gune berriak irabaztea dute helburu.

Mintzapraktika programen zabalkundean, Donostiako *Bagera* euskara elkarte izan zen aitzindari, 1993. urtean *Mintzalaguna programa* martxan jarri zuenean. Hurrengo urteetan beste hainbat egitasmo sortzen joan ziren, besteak beste Bergarako Berriketan.

Mintzalagun, Berbalagun, Mintzakide, Solaskide, Solaslagun... herrien eta euskalkien arabera izen ezberdinak hartzen dituzte Mintzapraktika programetan parte hartzen duten kideek. Gaur egun 5.500 lagunetik gora ari dira mintzapraktika programetan parte hartzen, eta urtetik urtera gorantz doan egitasmoa da.

1.2.- SARRERA

«Abdetfattah Kilitok behin idatzi zuen bezala, hitzak ez du antzik xaboiarekin. Zenbat eta gehiago erabili xaboa, orduan eta urrituago eta gastatuago; hitzak, ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago (...) horregatik dabil bizkor gaztelera eta makal euskara: jendeak berealdiko gauza pila egiten dituelako euskararen alde, salbu eta beharrezkoa den bakarra: hitz egin». (Bernardo Atxaga)

Gaia aukeratzeko orduan, nire eguneroko lanarekin zuzeneko lotura izatea eta nire lanaren garapenean baliagarria izatea bilatu dut ezer baino gehiago. 2008. urtean hasi nintzen *Berriketan* mintzalagun programan koordinatzaile lanetan.

Mintzalagunek bere ingurune hurbilean eta gertuko harremanetan hizkuntza ohituren inguruan gertatzen diren jarrerak hobeto ulertzeko ahalegina da lan hau. Euskara hitz egiterakoan dituzten zailtasun eta oztopoak, hizkuntzarekiko sentimenduak eta egunerokotasuneko praktikan gertatzen dena ulertzeko ahalegina.

Urte hauetan jabetu naiz apuntatzen direnen artean 2 perfil nagusi ezberdintzen direla baina azken finean denen helburu nagusia euskara egunerokotasunean txertatzea da, nahiz eta pausu hau emateko hainbat zailtasun eta traba aurkitu.

Ezagutzatik erabilerara pausua emateko asko izaten dira berbalagunek izaten dituzten oztopo edo zailtasunak. “Konfiantza gutxi daukat neure buruarengan”, “nire euskara ez da perfektua”, “aurrekoak pazientzia gutxi dauka nirekin”, “zuzenketa asko egiten dizkidate”... Mintzapraktika egitasmoak oso eraginkorrak izaten dira zailtasun hauei aurre egin eta egunerokotasunean urrats berriak emateko; egitasmo hauetan euskara praktikatzuz jariotasuna eta segurtasuna lortzen baita. Horrez gain, harreman sare euskaldunak eraiki eta hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera ere ematen dute.

Euskara praktikatu nahi dutenen helburuak anitzak izaten dira: ikasitakoa praktikan jartzea, galdutako ohitura berreskuratzea, euskarazko giroa eta jendea ezagutzea....

Programa hauen bitartez taldean astean ordubetez euskaraz hitz egiteko aukera dute, baina euskalduntze bidean pertsona horien inguru hurbilak eta harreman informalek sekulako eragina dute euskara ikasteko orduan. Komunikazio informal hauetan hizkuntza bat hitz egiteko erraztasuna, segurtasuna eta ohitura finkatzealortzen da.

Honen harira, euskaraz hitz egiteko aukera guztiak aprobetxatu behar dira, hizkuntza bat ikasteko modurik onena praktikatzea baita. Akatsik gabe hitz egitea, denbora eta ariketa eskatzen duen prozesu naturala da.

Lehen aipatutako moduan, ezagutza eta erabileraren arteko ezberdintasuna nabaria da, hau da, garai batean uste zen ezagutzak erabilera ekartzen zuela, baina zoritxarrez hau ez da honela gertatu, bata ez du bestea ekarri espero zen neurrian. Ondorioz, administrazioan zein euskalgintzan kezka sortu duen gaia izan da eta erabilera sustatzeko programa eraginkorrak ezinbestekoak direla ikusi da.

Zorionez, soziolinguistika adituen laguntzari esker, orain urte batzuk baino gehiago dakigu horren inguruan eta erabilera sustatzeko programak aurrera eramatean oinarri teoriko sendoagoak ditugu orain.

Haiei esker jakin izan dugu hizkuntzaren (euskararen) erabileran gehien eragiten duten faktoreak nagusiak hiru direla: hiztunaren hitz egiteko gaitasun erlatiboa, hiztunaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea eta hiztunaren atxikimendua hizkuntzarekiko.

Baina euskararen normalizazioan euskararen erabilera ziurtatzea ez da bakarrik euskara praktikatzeko beharra duenaren ardura, gizarte osoaren erantzukizuna baizik. Beraz guztioi dagokigu altxor hau zaindu eta ondorengoei transmititzea.

Sarrera honekin amaitzeko, eskerrik beroenak ikerketa honetan bidelari eta bidelagun izan ditugun eragile eta pertsona guztiei, euren ekarpenik gabe ez zen posible izango ikerketa hau aurrera eramatea, Iñaki Martinez de Lunari eta “HIZNET”eko langileei momentu guztietan laguntza eskaintzearen, Jardun Euskara Elkarteko lankideei, Bergarako Udaleko euskara teknikariei elkarlanerako erakutsi duten prestutasunagatik eta, bereziki, etxekoei pazientzia izateagatik...

2.- TESTUINGURUA:

2.1.- BERGARARAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK


Bergarako udalaren webguneak dioten moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko erdialdean, Gipuzkoako hego-mendebaldean, eta Debagoieneko eskualdean dagoen herria da Bergara; Debagoieneko mankomunitatea osatzen duena Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate-Mondragon, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñatirekin batera.

Udalerriaren zabalera 75,97 km² izanik, Gipuzkoako udalerririk handienetakoa da. Deba ibaiak zeharkatzen du alderik alde. Auzo ugari osatua dago (Osintxu, Angiozar, Ubera, Basalgo, Elorregi...), eta, etorkinen etorrerarekin, gero eta herri kosmopolitagoa da.

INERen (Instituto Nacional de Estadística) arabera, 2012ko urtarrileko Biztanleriaren Erroldan, 14.708 biztanle izan ditu Bergarak, adinaren arabera, honela banatuta:

2.1.1.- BIZTANLERIA ADIN ETA GENEROAREN ARABERA


Bergarako biztanleriaren bilakaera adin-taldeka, 1986-2011



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
Gizonezko	7.831	50%	7.749	50%	7.616	50%	7.477	50%	7.290	50%	7.410	50%
Emakumezko	7.887	50%	7.818	50%	7.701	50%	7.488	50%	7.337	50%	7.359	50%
0-19 urte	4.355	28%	3.744	24%	3.103	20%	2.760	18%	2.422	17%	2.698	18%
20-64 urte	9.571	61%	9.770	63%	9.709	63%	9.475	63%	9.336	64%	8.939	61%
>64 urte	1.792	11%	2.053	13%	2.505	16%	2.730	18%	2.869	20%	3.132	21%
Biztanleria	15.718	100%	15.567	100%	15.317	100%	14.965	100%	14.627	100%	14.769	100%

Bergarako biztanleriaren bilakaera generoaren arabera 1986 - 2011



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

2.1.2.- GAITASUNA

Bergarako biztanleen hizkuntza gaitasuna aztertzeko ditugun azken datuak 2011 urtekoak dira. 2011. urtean 2015ean baino lagun gutxiago/gehiago bizi ziren Bergaran. Hala ere, 2011ko datuek herriko egoeraren argazki bat osatzen lagunduko digute.

2011ko datuei erreparatuta, garai hartan, herriko biztanleriaren %66 da euskalduna eta %19a ia euskalduna. Beraz, euskararen ezagutzari buruz esan genezake %85ak inguruk ezagutzen duela.

Bergara. Euskararen gaitasunaren bilakaera.1981– 2011. Orokorra

	KOPURU ABSOLUTUAK							%						
	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011
-Euskaldunak	9687	10109	10140	10292	10219	9679	9496	62	66	66	68	70	68	66
-Ia-euskaldunak	1735	2578	1927	1997	2104	2327	2777	11	17	13	13	14	16	19
-Erdaldunak	4164	2685	3236	2760	2273	2261	2055	27	17	21	18	16	16	14
Guztira	15586	15372	15303	15049	14596	14267	14328	100	100	100	100	100	100	100


¹ Kategoria horiek euskararen jakite mailari buruz egiten diren lau galderei (ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?) erantzundakoaren arabera lortu dira. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak.

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
ERDILDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez

Eustaten datuen arabera, 1986tik 2001era euskaldunen %a haziz joan zen apurka-apurka; 2001etik 2006ra, ostera, 2 puntu murriztu zen. 2001etik 2006ra euskaldun kopuruari dagokionez, % jaitsiera bat egon zen %70etik %68ra. Aipatu beharra dago, jaitsiera honen arrazoi nagusietako bat urte hauetan Bergarara etorritako etorkin kopurua izan daitekeela. Esate baterako, 2000 urtean Bergaran 67 etorkin bakarrik zeuden erroldaturik, hau da, %0,4 besterik ez, 2006. urtean aldiz, 772. Hortaz gain, etorkinen kopuru osoaren 57a 21-40 urteko adin tartean kokatzen da. Datu hau esanguratsuagoa bihurtzen da pertsona hauek euskara ikasteko duten aukera kontutan hartzen badugu.

Bergara. Euskararen gaitasunaren adin taldeka

Bergarako hiztunen euskara gaitasuna adin taldeka, 2011




Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

Bergarako hiztunen euskara-gaitasuna adin-taldeka, 1986-2011

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
2-14 urteko euskaldunak	2.072	74%	1.857	80%	1.577	88%	1.405	89%	1.216	79%	1.560	90%
2-14 urteko ia-euskaldunak	578	21%	336	15%	157	9%	145	9%	234	15%	127	7%
2-14 urteko erdaldunak	163	6%	122	5%	58	3%	32	2%	81	5%	46	3%
2-14 urteko hiztunak	2.813	18%	2.315	15%	1.792	12%	1.582	11%	1.531	11%	1.733	12%
15-34 urteko euskaldunak	3.048	60%	3.218	63%	3.409	71%	3.278	78%	2.853	76%	2.476	78%
15-34 urteko ia-euskaldunak	1.162	23%	917	18%	817	17%	592	14%	547	15%	362	11%
15-34 urteko erdaldunak	865	17%	947	19%	589	12%	354	8%	334	9%	340	11%
15-34 urteko hiztunak	5.075	33%	5.082	33%	4.815	32%	4.224	29%	3.734	26%	3.178	22%
35-64 urteko euskaldunak	3.593	63%	3.472	59%	3.508	58%	3.597	59%	3.750	60%	3.636	57%
35-64 urteko ia-euskaldunak	759	13%	590	10%	864	14%	1.131	19%	1.288	21%	1.847	29%
35-64 urteko erdaldunak	1.384	24%	1.818	31%	1.640	27%	1.332	22%	1.200	19%	942	15%
35-64 urteko hiztunak	5.736	37%	5.880	38%	6.012	40%	6.060	42%	6.238	44%	6.425	45%
>= 65 urteko euskaldunak	1.396	80%	1.593	79%	1.798	74%	1.939	71%	1.860	67%	1.824	61%
>= 65 urteko ia- euskaldunak	79	5%	84	4%	159	7%	236	9%	258	9%	441	15%
>= 65 urteko erdaldunak	273	16%	349	17%	473	19%	555	20%	646	23%	727	24%
>= 65 urteko hiztunak	1.748	11%	2.026	13%	2.430	16%	2.730	19%	2.764	19%	2.992	21%
Hiztunak	15.372	100%	15.303	100%	15.049	100%	14.596	100%	14.267	100%	14.328	100%

Bergarako hiztunen euskara-gaitasuna, 2011




Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
Euskaldunak	10.109	66%	10.140	66%	10.292	68%	10.219	70%	9.679	68%	9.496	66%
Ia-euskaldunak	2.578	17%	1.927	13%	1.997	13%	2.104	14%	2.327	16%	2.777	19%
Erdaldunak	2.685	17%	3.236	21%	2.760	18%	2.273	16%	2.261	16%	2.055	14%
Hiztunak	15.372	100%	15.303	100%	15.049	100%	14.596	100%	14.267	100%	14.328	100%

Kopuru absolutuei begiratzen badiegu, ikusiko dugu 1991tik 2001era erdaldun kopurua %30 murriztu zen. 2001etik 2006ra, berriz, mantendu egin dela. Horren zergatia erraz ulertzekoa da: gaur egun bertan jaioetako guztiek euskaraz ikasten dutenez, erdaldun kopurua mantentzeko edo handitzeko modu bakarra kanpotik etortzea da. Hau da, 2004tik 2006ra bitartean ia jaioetako ume kopurua beste etorkin etorri zen Bergarara. Horrek azaltzen du gaitasunean behera egitea.

Gaur egun, 30 urtez azpikoen %90etik gora euskaldunak dira.

Bergarako hiztunen euskara-gaitasunaren bilakaera, 1986-2011




Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

Haur eta gazteen gaitasunakgora egin du nabarmen eta aldi berean erdaldunkopurua jaitsi egin da. Elebitasun motaren aldetik, hiztunak hizkuntza bakoiztean duen gaitasun

erlatiboaren aldetik, alda daiteke egoera eta faktore hori izango da erabakikorra erabileran gora egiteko.

2.1.3.- LEHEN HIZKUNTZA


Bergarako hiztunen lehen hizkuntza, 2011



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
Euskara	8.963	58%	9.202	60%	8.566	57%	8.145	56%	7.593	53%	7.315	51%
Gaztelera	5.379	35%	5.477	36%	5.602	37%	5.381	37%	5.525	39%	5.616	39%
Biak	892	6%	506	3%	687	5%	874	6%	895	6%	1.010	7%
Beste bat	138	1%	118	1%	194	1%	196	1%	254	2%	387	3%
Hiztunak	15.372	100%	15.303	100%	15.049	100%	14.596	100%	14.267	100%	14.328	100%

Bergarako hiztunen lehen hizkuntzaren bilakaera, 1986 - 2011




Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

Biztanle guztiak kontuan hartuta euskaraz dakitenen eta lehen hizkuntza euskara dutenen portzentajea murriztu egin da azken urteetan. Horiek dira erabileran eragiten duten faktore nagusiak.

Lehen-hizkuntza edo ama-hizkuntza euskara dutenen portzentaje handienak zaharretan daude. Zaharrak hil ahala populazio osoan lehenhizkuntza euskara dutenak murrizten ari dira.

Garbi dago lehen hizkuntza euskara dutenak murriztearen arrazoi nagusia ere etorkinen multzoa dela baina, horretaz gain, bada beste faktore bat ere.




Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
Euskara 2-14 urteko gizonen artean	673	48%	648	55%	499	54%	532	63%	460	57%	470	51%
Gaztelera 2-14 urteko gizonen artean	505	36%	442	38%	311	34%	187	22%	221	27%	314	34%
Biak 2-14 urteko gizonen artean	211	15%	77	7%	110	12%	111	13%	116	14%	119	13%
Beste bat 2-14 urteko gizonen artean	4	0%	3	0%	3	0%	10	1%	12	1%	22	2%
2-14 urteko gizonen artean	1.393	9%	1.170	8%	923	6%	840	6%	809	6%	925	6%
Euskara 2-14 urteko emakumeen artean	700	49%	646	56%	479	55%	474	64%	426	59%	391	48%
Gaztelera 2-14 urteko emakumeen artean	561	40%	403	35%	289	33%	172	23%	209	29%	281	35%
Biak 2-14 urteko emakumeen artean	158	11%	90	8%	96	11%	89	12%	78	11%	120	15%
Beste bat 2-14 urteko emakumeen artean	1	0%	6	1%	5	1%	7	1%	9	1%	16	2%
2-14 urteko emakumeen artean	1.420	9%	1.145	7%	869	6%	742	5%	722	5%	808	6%
Euskara 15-34 urteko gizonen artean	1.424	54%	1.507	57%	1.275	51%	1.097	50%	953	49%	805	47%
Gaztelera 15-34 urteko gizonen artean	991	37%	999	38%	1.017	41%	891	40%	735	38%	616	36%
Biak 15-34 urteko gizonen artean	216	8%	118	4%	178	7%	179	8%	178	9%	192	11%
Beste bat 15-34 urteko gizonen artean	20	1%	13	0%	20	1%	37	2%	73	4%	83	5%
15-34 urteko gizonen artean	2.651	17%	2.637	17%	2.490	17%	2.204	15%	1.939	14%	1.696	12%
Euskara 15-34 urteko emakumeen artean	1.311	54%	1.381	56%	1.219	52%	1.059	52%	918	51%	761	51%
Gaztelera 15-34 urteko emakumeen artean	942	39%	959	39%	954	41%	775	38%	710	40%	535	36%
Biak 15-34 urteko emakumeen artean	158	7%	92	4%	133	6%	160	8%	135	8%	128	9%
Beste bat 15-34 urteko emakumeen artean	13	1%	13	1%	19	1%	26	1%	32	2%	58	4%
15-34 urteko emakumeen artean	2.424	16%	2.445	16%	2.325	15%	2.020	14%	1.795	13%	1.482	10%
Euskara 35-64 urteko gizonen artean	1.748	60%	1.735	58%	1.715	56%	1.580	51%	1.561	49%	1.580	48%
Gaztelera 35-64 urteko gizonen artean	1.089	37%	1.168	39%	1.217	40%	1.339	43%	1.443	45%	1.447	44%
Biak 35-64 urteko gizonen artean	52	2%	41	1%	61	2%	133	4%	146	5%	172	5%
Beste bat 35-64 urteko gizonen artean	48	2%	38	1%	72	2%	51	2%	57	2%	83	3%
35-64 urteko gizonen artean	2.937	19%	2.982	19%	3.065	20%	3.103	21%	3.207	22%	3.282	23%
Euskara 35-64 urteko emakumeen artean	1.748	62%	1.714	59%	1.625	55%	1.546	52%	1.512	50%	1.505	48%
Gaztelera 35-64 urteko emakumeen artean	950	34%	1.091	38%	1.192	40%	1.231	42%	1.311	43%	1.371	44%
Biak 35-64 urteko emakumeen artean	64	2%	63	2%	80	3%	135	5%	172	6%	195	6%
Beste bat 35-64 urteko emakumeen artean	37	1%	30	1%	50	2%	45	2%	36	1%	72	2%
35-64 urteko emakumeen artean	2.799	18%	2.898	19%	2.947	20%	2.957	20%	3.031	21%	3.143	22%
Euskara >65 urteko gizonen artean	514	76%	628	77%	689	70%	763	66%	711	62%	738	58%
Gaztelera >65 urteko gizonen artean	141	21%	170	21%	273	28%	357	31%	403	35%	483	38%
Biak >65 urteko gizonen artean	14	2%	10	1%	17	2%	20	2%	20	2%	29	2%
Beste bat >65 urteko gizonen artean	9	1%	4	0%	10	1%	11	1%	19	2%	30	2%
>65 urteko gizonen artean	678	4%	812	5%	989	7%	1.151	8%	1.153	8%	1.280	9%
Euskara >65 urteko emakumeen artean	845	79%	943	78%	1.065	74%	1.094	69%	1.052	65%	1.065	62%
Gaztelera >65 urteko emakumeen artean	200	19%	245	20%	349	24%	429	27%	493	31%	569	33%
Biak >65 urteko emakumeen artean	19	2%	15	1%	12	1%	47	3%	50	3%	55	3%
Beste bat >65 urteko emakumeen artean	6	1%	11	1%	15	1%	9	1%	16	1%	23	1%
>65 urteko emakumeen artean	1.070	7%	1.214	8%	1.441	10%	1.579	11%	1.611	11%	1.712	12%
Hiztunak	15.372	100%	15.303	100%	15.049	100%	14.596	100%	14.267	100%	14.328	100%

Taulan ikus daitekeen bezala lehen hizkuntza euskara dutenen portzentaje altuenak oraindik ere zaharretan daude. Ondorioz, horiek hil ahala populazio osoan lehen hizkuntza euskara dutenak kopurua murriztuaz doa. Oraindik urte batzuk beharko dira joera hori eteteko.

2.1.4.- ETXKO HIZKUNTZA


Bergarako hiztunen etxeko hizkuntza, 2011



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

	1991		1996		2001		2006		2011	
Euskara	6.492	42%	5.771	38%	6.170	42%	5.685	40%	5.446	38%
Gaztelera	5.871	38%	6.073	40%	5.489	38%	5.819	41%	6.592	46%
Biak	2.909	19%	3.152	21%	2.864	20%	2.648	19%	2.074	14%
Beste bat	31	0%	53	0%	73	1%	115	1%	216	2%
Hiztunak	15.303	100%	15.049	100%	14.596	100%	14.267	100%	14.328	100%

Bergarako hiztunen etxeko hizkuntzaren bilakaera 1991-2011




Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

Lehen azaldu dugun moduan guztira hartuta, bergararren euskararen gaitasuna murriztu egin da eta baita lehen hizkuntza euskara dutenen portzentajea eta etxean euskara erabiltzen dutenena ere.

Lehen hizkuntza, gaitasuna eta etxeko erabilera adin-taldeka 2001.

Iturria: EUSTAT


	Lehen hizkuntza, euskara bakarrik	Elebidunak	Etxeko erabilera euskara bakarrik
a5-9	63,7	96,5	53,2
a10-14	59,5	95,8	47,4
15-19	55,1	94,1	42,3
20-24	54,5	89,2	41,8
25-29	51	73,6	36
30-34	45,1	59,2	31,1
35-39	50,7	62,9	34,8
40-44	49,4	59,8	34,8
45-49	50,9	57,8	38,2
50-54	53	59,4	39,4
55-59	54,7	58,9	39,5
60-64	51,9	54,9	40,5
65-69	61	64,3	48,6
70-74	66,8	69,7	55,5
75-79	73,4	76,6	59,4
80-84	74,2	76,8	56,4
>=85	80,1	82,2	65,7
GUZTIRA	55,4	70,1	41,8



2001eko datuok ikusita honakoa ikusten dugu: ertzetakoak (ume zein gazteak eta zaharrak) zirela euskararen ikuspegitik ezaugarriarik onenak zituztenak: ume eta gazteetan euskaldunak %90etik gora; zaharretan (80 urtez gorakoetan), berriz, euskaldunak %80 inguru eta lehen hizkuntza euskara zutenak %75etik gora... Inflexio puntua 2001ean 30-34 urte zituen belaunaldian dago. Gaur horiek 40-45 urte inguruan dabilta.

Euskaldunen % adin-taldeka. 2001eko EUSTATen datuen proiektzioa eginda

Urtea	0-14 urte	15-24 urte	25-64 urte	65 urtez gora
2001 (Eustateko datuak)	96	91	61	71
2011 (Proiektzioa)	96	96	69	66
2021 (Proiektzioa)	96	96	75	64



2001etik 2011ra haurretan ez dago aldaketarik, gazteetan gorakada txiki bat izan da, helduetan gorakada handitxoagoa eta zaharretan, berriz, jaitsiera.

5.- KALE ERABILERA


Bergarako hiztunen kale erabileraren neurketa, urtez urte, adin-tarteka eta guztira (%)

URTEA	Haurrak (0-14)	Gazteak (15-24)	Helduak (25-65)	Zaharrak (65-...)	GUZTIRA
1983	48	10	38	54	34
1988	55	20	38	62	40
1989	67,6	23,7	26,1	62,5	38,1
1991	65,2	48,0	32,8	50,3	44,4
1993 (Udala)	58,9	31,6	20,6	39,9	33,6
1993 (EKB)	66,0	41,6	28,8	36,4	40,5
1994	59,7	36,8	25,5	45,0	38,1
1995	66,2	38,3	25,1	47,4	37,0
1996	64,0	36,1	22,5	44,0	37,3
1997	50,1	29,4	22,3	38,8	35,2
1998	62,8	46,0	30,7	39,6	41,3
1999	56,5	45,9	27,9	35,6	37,3
2000	65,5	56,7	30,3	49,9	47,2
2001	65,6	47,6	27,0	48,8	42,2
2002	58,4	41,1	26,1	27,3	36,4
2003	60,4	54,5	31,6	34,6	41,7
2004	61,8	46,8	28,3	20,1	36,9
2005	62,2	49,7	37,9	29,5	45,4
2006	70,6	50,5	41,5	51,5	52,8
2007	57,9	52,6	37,0	34,1	44,5
2008	60,6	53,4	36,1	31,9	43,6
2009	59,9	35,9	33,3	30,4	39,5
2010 (Osintxu barne ¹)	61,9	42,6	38,7	34,1	43,8
2011 (Osintxu barne)	57,6	44,7	36,0	26,3	41
2013 (Osintxu barne)	64,7	50,3	45,3	37,1	49,1

Euskararen erabileraren bilakaera adin-tarteka, urte multzoka. (%)

Urtea	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	GUZTIRA
1983-1989	56,9	17,9	34	59,5	37,4
1991-1995	63,2	39,3	26,6	43,8	38,7
1996-2000	59,8	42,8	26,7	41,6	39,7
2001-2005	61,7	47,9	30,2	32,1	40,5
2006-2010	61,4	46,6	37,1	34,7	44,8
2011-2013	61,2	47,5	40,7	31,7	45,1

1 Osintxuko neurketak puntu pare batean igotzen du normalean emaitza. 2010era arte ez da gehienetan Osintxun neurketarik egin.



Azkeneko ia 20 urteetan gertatu izan den bezala, 2013. urtean ere hurrek agertu dute euskararen erabilera altuena eta ondoren gazteek jarraitzen diete. Bestalde, aurreko ere, azkeneko urteetako gehienetan gertatu den bezala, zaharrak dira erabilera apalena eman dutenak.

Urte multzokako bilakaerari erreparatzen badiogu, berriz, GUZTIRAko datuan honakoa antzematen da: epe luzean igoera apal bat izan ondoren, 2000ko hamarkadan igoera nabarmenagoa izan zela eta azkeneko urteetan igoera hori moteldu egin dela.

Adin-tarte bakoitzaren bilakaerari erreparatuta, berriz, honakoa esan liteke:

Haurrak. Aspaldiko urteetan nahiko egonkor dago %60 inguruan.

Gazteak. 1983ko lehenengo neurketetatik hona adin-tarte honetan izan da igoerarik handiena: 30 puntukoa. Hala ere, 1998tik 2008ra, %45 eta %55 artean ibili ondoren, azkeneko urte gehienetan hortik azpirako emaitzak izan dira. Ikusi egin beharko da hurrengo urteetan zer bilakaera duen.

Helduak. Orain dela 10-15 urte inguru behea jo ondoren goranzko joera antzematen da azkeneko urteetan.

Zaharrak. Zaharren bilakaerari erreparatuta, azkeneko urteetan erabilerak beheranzko joera nabarmena izan du eta ematen du behea jota edo jotzetik gertu egon litekeela,

izan ere, emaitzok helduek izandako baxuenetik gertu baitaude. Nabarmentzekoa da lehenengo bi neurketetan (1983 eta 1988an) adin-tarte hau izan zela emaitzarik altuena eman zuena eta, aldiz, azkeneko 9 neurketetatik 8tan berau izan dela erabilera baxuena agertu duena.

Euskararen erabilera SEXUAREN arabera

Erabilera, sexuaren eta adin-tarteen arabera, urtez urte (%)

	0-14		15-24		25-64		65-...	
	Emakm.	Gizon.	Emakm.	Gizon.	Emakm.	Gizon.	Emakm.	Gizon.
1997	58	52	58	45	19	24	29	38
2001	93	54	58	34	36	26	53	32
2002	61	46	54	22	33	26	17	17
2003	65	52	67	41	30	26	34	36
2004	71	61	63	36	32	26	22	22
2005	70	54	60	32	39	35	39	23
2006	71	70	53	48	44	38	50	54
2007	61	54	55	48	38	36	34	34
2008	68	55	71	37	38	33	31	34
2009	65,7	50	46,8	19,7	34,5	29,7	27,5	32,3
2010	63,3	60,5	54	27,2	39,2	37,8	31,8	37,2
2011	61,5	53,8	55,4	24,4	35,8	36,2	26,2	26,3
2013	70,5	59,4	63,2	32,6	48,5	41,5	34,4	41,4

Biztanleria guztia kontutan hartuz gero, emakumezkoak dira urtero erabilera handiena agertzen dutenak, nahiz eta zenbait urtetan, aldeak txikiak diren.

Edonola ere, sexuen konparaketa adin tarteka egiten badugu bakoitzaren errealitatea ezberdina da:

- Bai 25-64 urte artekoen eta bai 65-... urte artekoen sexuen arteko aldea txikia da. Helduetan emakumezkoek euskaraz gehitxoago erabiltzen dute eta zaharretan gizonezkoek gehitxoago.
- Haurretan eta, bereziki, gazteetan, oster, aldea nabarmena da eta bi kasuetan ere emakumezkoek erabilera handiagoa dute.

2.2.- MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAREN INGURUKO INFORMAZIO OROKORRA

2.2.1.- HISTORIA

Euskal Herriko mintzapraktika programen mugimendua Donostian sortu zen 1993. urtean, bertako *BageraEuskaltzaleen Elkartearen* eskutik. Geroago, Lasarte, Arrasate eta Getxora zabaldu zen eta 1998. urtean programen inguruko lehendabiziko mintegia egin zen Eibarren.

Topaketa horietatik ateratako ondorioetako bat koordinazioa egituratzearen beharra izan zen. Norabide horretan bi ekimen jarri ziren martxan hurrengo urteetan: alde batetik *Topagunean* eta AEKn *Mintzapraktika Batzordeak* sortu ziren, eta beste alde batetik 2001 urtean Bizkaian hainbat eragileren artean *Mintzapraktika* programak koordinatzeko *Berbarbarri* egitasmoa aurkeztu zen. Ekimenaren sustatzaileak *Bizkaiko Foru Aldundia*, *AEK*, *Uztarri euskaltegia* eta *Topagunea* izan ziren.



Geroago, programen koordinazio eta zabaltze lan horretan beste hainbat ekimen zabaldu dira: 2005ean “*Euskaldun berrien erabilera programak*” eskuliburua argitaratu eta “*Mintzapraktika egitasmoak: erabilera eragiteko tresna eraginkorrak*” jardunaldiak antolatu zituzten *Topagunea*, *AEK* eta *IKA*ren artean. 2006an Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmen bat sinatu zuten elkarlanean jarduteko, eta 2007an *AEK* eta *Topagunearen* artean akordioa gauzatu zen.

Elkarlana da *Mintzapraktika* programen oinarri sendoena: Euskal herri mailako eragileen artekoa eta herri eta auzoetako eragileen artekoa. Harreman horien emaitza, *Mintzapraktika* egitasmoek urteotan izan duten garapena da.

Zalantzarik gabe, elkarlanari esker garatu dira *Mintzapraktika* egitasmoak. Tokian tokiko egitasmoak ,orohar, herriko euskara elkarte, euskaltegi eta udaleko ordezkariak osatzen dituzten *Jarraipen Batzordeen* bidez koordinatzen dira.

Iturria: www.mintzalaguna.eus

2.2.2.- MINTZAPRAKTIKA PROGRAMAK:

Mintzapraktika programakeuskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak ohiturarik ez dutenekin elkartzen dituzten egitasmoak dira.

Euskararen erabilera programek lagun euskaldunak (“bidelagun” deitzen ditugunak) eskaintzen dizkiete euskara ikasten ari direnei, ikasi dutenei, berreskuratu nahi dutenei edota aukera gutxi dutenei (bidelari izendatzen ditugunak).

Aipatu bezala, bi motatako euskaldunak elkartzen dira *Mintzapraktikan*. Batetik, euskaraz bizitzeko ohiturarik ez dutenak: egunerokoan beren inguruan hitz egiteko aukerarik ez daukatenak, euskara ikasten ari direnak, aspalditik euskaraz hitz egin ez eta jariotasuna berreskuratu nahi dutenak... Programak euskaraz aritzeko trebakuntza eta aukera ematen die parte hartzaile hauei.

Bestetik, euskaldun askok hizkuntzaren normalizazio prozesuari beren ekarpena egin nahi diote, zailtasunak dituzten euskaldunei elkarriketaren bidez lagunduz. Eta, noski, badira lagun berriak egin nahi dituzten kideak ere, giro euskaldunean murgildu nahi dutenak.

Mintzapraktikarako egitasmoek hainbat ekarpen egiten diete euskara ikasleei, euskara hiztunei, euskalgintzari eta gizarteari berari ere. Euskalgintzarentzat eta gizartearentzat ekarpen garrantzitsu bat baldin badago, egitasmo hauen ezaugarri bihurtu dena aipatu beharra dago: elkarlanetik abiatutako egitasmoak dira *Mintzapraktika* programak. Ingurune euskaldunak sortu, indartu eta zabaldu nahi dituzte erabilera programek, euskaltegi, euskara elkarte eta erakunde publikoen inplikazioaren bidez.

Beraz, euskararen erabilera bultzatu eta zabaltzea izango da helburu nagusia, hizkuntza erabiltzea.

Antolaketari dagokionez, koordinatzaileak taldetxoak sortzen ditu (hirukoteak, laukoteak, boskoteak) partaideen zaletasunak, adinak, ordu libreak,... kontuan hartuz. Talde horietan ezaugarri ezberdinetako jendea elkartzen da (batzuek ohiko euskarazko harremanak dituzte eta beste batzuek ez) eta konpromiso bakarra eskatzen zaie: astean behin gutxieneko denbora batez euskaraz hitz egiteko elkartzea da eta eurak erabakitzen dute denbora horretan zer egin.

Mintzapraktika egitasmoakaisialdiko jarduerak dira. Elkartu eta euskaraz hitz egiteaz gain, gustuko dituzten ekintzak egiten dituzte elkarrekin, hala nola lagun giroan paseatu, kirola egin, kafe bat hartu edo besterik gabe elkarren konpainia eta solasaldiaz disfrutatu.

Aipatu bezala, talde bakoitza astean ordubetez biltzen da, gutxienez. Astean behineko hitzorduez gain, hilabetean behin mintzapraktika taldeetako kideak elkar ezagutzeko eta harremanen sarea zabaltzeko ekintza osagarriak antolatzen dira: ikastaroak, irteerak, bazkari eta afariak, ikuskizunak... Hauetan parte hartzea hautazkoa da.

Mintzapraktika egitasmoek ikasturteko iraupena izaten dute normalean, eta izen ematea urrian izan ohi da. Uda garaian atseden tarteak izaten da, baina urteari amaiera borobila emateko, ekainaren hasieran *mintza eguna* ospatzen da, Euskal Herri osoko mintzalagunen jaia.

2.2.3.- ALDAERA BEREZIAK

Ohiko mintzalagun taldeez gain, azken urteetan hainbat aldaera berezi sortu dira (gazteei, gurasoei,... zuzendutako taldeak).

Hauek dira horietako batzuk:

“*GURASOLAGUN*”: Seme-alaba txikiak dituzten gurasoei zuzendutako aldaera da.

“*HIKALAGUN*” edo “*EUSKALKILAGUN*”: Herriko euskalkian edo hika hitz egiteko mintzalagunaren aldaera da.

“*MINTZAKUADRILLA*”: Mintzalagun gazteak biltzen dituen aldaera da.

“*MINTZANET*”: Etxetik mintzapraktika online lantzeko egitasmoa.

2.3.- BERGARAKO “*BERRIKETAN*” MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA

Bergaran gero eta jende gehiagok daki euskaraz, hau da, hizkuntzaren ezagutza gero eta arinago zabalduz doa; baina erabilera ez da neurri berean hazten. Jende askoren harreman sareak erdaldunak dira, eta horrek zaildu egiten du euskara jakitetik euskaraz berba egiteko pausoa ematea.

Horretan laguntzeko, jadanik badira 8 urte herriko euskaltegi, euskara elkarte eta udaleko euskarako zerbitzuaren artean Berriketan egitasmoa martxan jarri genuela, 2005-2006 ikasturteko 2. zatian hain zuzen ere. Lehen saiakera horretan 37 lagun aritu ziren. Gaur egun, ordea, berbalagun kopurua bikoizteaz gain, egonkortu ere egin da. Bergaran 2014-2015 ikasturtean, ohiko aldaeran 18 talde aritu dira eta horietaz gain, hikalagun talde bat ere izan da; guztira 74 parte hartzaileekin.

Berriketan egitasmoari esker, euskaraz naturaltasunez moldatzen diren lagunak haien mintzamena hobetu nahi dutenekin euskaraz berba egiteko elkartzen dira. Koordinatzaileak hiru, lau, bost edo sei partaideko taldeak osatzen ditu eta talde horiek maiztasun jakin batekin elkartzen dira (gehienetan astean behin ordu batez). Hortaz gain, tarteka-tarteka, ekintza osagarriak ere antolatzen dira nahi dutenentzat; batzuetan herrian bertan eta beste batzuetan bailarako beste mintzalagun taldeekin batera.

Programa hau euskara praktikatu eta euskaraz praktikatzen lagundu nahi duten guztiengana iristeko modua izan da, sare berriak eskainiz, harreman sare ez-formaletan eraginez, zaletasunen inguruko erabilera guneak eratuz ... azken batez euskaraz bizitzeko aukerak ugarituz.

Berriketan bezalako *mintzapraktika* programek erabilera bultzatzen dute euskal hiztunen artean, bai euskara maila hobetu nahi duten pertsonen artean, baita maila jasoagoa dutenen artean ere.



3.- IKERKETAREN HELBURUAK

Mintzapraktikan ari direnek (bidelariak) ezagutzatik erabilerara pausuak emateko izaten dituzten zailtasun eta oztopoak identifikatzea.

Lan honen xede nagusia *mintzapraktika* orduetatik kanpo euskara erabiltzea izanik, honako ikergaiak argitzea du helburu:

- Mintzalagunen motibazio, jarrera eta portaera aztertzea.
- Euskararen erabileraren garrantzia normalizazio prozesuan ezagutzea.
 - o Norbanakoa – harreman sarea – gizartea
 - o Hiztuna – Hizkuntz komunitatea – Hizkuntza (lurraldea)
 - Hizkuntz komunitateen ezaugarriak ezagutzea.
 - Hizkuntz funtzioak ezagutzea.
- Hizkuntza ohituren aldaketarako gakoak ezagutzea.

Bestalde, xede taldea mintzalaguna izanik, honako ikergaiak ere kontutan hartu behar ditugu:

- *Mintzapraktika* egitaspora hurbiltzen diren bidelari zein bidelagunen profila eta biztanleria osoarekiko ezaugarri bereizgarriak ezagutzea.
- *Mintzapraktika* egitaspora lehen aldiz datozenean, herritarren motibazio zein aurreikuspenak ezagutzea.
- Parte hartzaileek euskararen ezagutza izandako aldaketak aztertzea.
- Parte hartzaileek erabileran izandako aldaketak aztertzea.
- Parte hartzaileek euskararen motibazioan izandako aldaketak aztertzea.
- *Mintzapraktika* egitasmoak euskarazko harreman-sareak trinkotzen zenbateraino laguntzen duten aztertzea.
- Bidelari zein bidelagunen bizipenak eta iritziak ezagutzea.

Beste helburu batzuk:

- Euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak ezagutzea.
- Oztopoak eta zailtasunak identifikatzea.
- ...

Azkenik, *Mintzapraktika* egitasmoa hobetzeko baliagarria izan daitekeen informazioa oro eskuratzea ere helburu izango du ikerketa honek.

4.- AURREKARIEN AZTERKETA

Sakontze lan hau egiteko, informazioa lortzerako orduan, ikerketa eta lan asko oso egokiak iruditu zaizkit, asko izan baitira zuzenean edo zeharka gai hau landu duten ikerlariak. Urtetan zehar egindako ikerketa eta lan ezberdinek *mintzapraktika*, hizkuntza ohiturak, erabileran eragiten duten faktoreak eta jarreraren inguruko gai asko jorratu dituzte. Lan hau egiterako orduan, horietako batzuk erabili ditut oinarri gisa.

Mintzapraktika metodologia aztertzeko Oskar Zapata Solanoren lan bat hartu dut oinarri:

“*Mintzapraktika programak: euskararen erabileran eragiteko tresna eraginkorrak*” (Zapata, 2007). Artikulu hau 2007. Urteko otsailean HIZKUNEA soziolinguistika agerkarian argitaratutakoaren laburpena da.

<http://www.soziolinguistika.eus/files/Oskar%20Zapata.pdf>

Azken kontsulta eguna: 2015/07/19

Artikulu honetan, *mintzapraktika* programen nondik norakoak azaltzen dizkigu. Esate baterako, egitasmo hauek noiz eta zertarako sortu ziren, nola funtzionatzen duten eta euskararen erabilera bultzatuz eta euskal harreman sareak sortuz hizkuntzaren normalkuntzan zein eragin eduki dezaketen.

*Mintzapraktika*arekin jarraituz, egitasmoen eraginkortasuna eta bidelari eta bidelagunen motibazioak... ezagutzeko *AZTIKER SL*-k eginiko ikerketa oso baliagarria izan da:

“*Mintzapraktika egitasmoen eraginkortasuna neurtzen*” (Aztiker, 2010).

Ikerketa honen helburua *Mintzapraktika* egitasmoaren eraginkortasuna neurtzea izan da. Horretarako, metodologia ildo eta teknika ezberdinez baliatuz, ikergaia bere osotasunean

aztertu asmotan (parte hartzaileen profila, egitasmoaren bilakaera, teknologia berrien erabilera, motibazioa, gaitasuna, parte hartzaileen asebetetzea,...). (Aztiker, 2010)

Aurrekoaz gain, hizkuntz ohituren aldaketan ematen diren zailtasunak eta oztopoak aztertzeko *Soziolinguistika Klusterrak*, Pello Jauregiren zuzendaritzapean, hizkuntza ohiturak aldatzeko prozesuak ikertzeko bi azterlan burutu zituen: “*Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa*”. Ikerketa lana batetik (Soziolinguistika Klusterra, 2009), eta “*Aldahitz*” Ikerketa proiektua, bestetik (Soziolinguistika Klusterra, 2014). Zailtasunak identifikatzerako orduan bi proiektu hauetan irtendako ondorioak oso baliagarriak izan dira.

“*Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa ikerketa*”. Emaizten txostena. (Soziolinguistika Klusterra, 2009).

<http://www.soziolinguistika.eus/files/Bikoteen%20ohituren%20Tx%20Lab.pdf>

Azken kontsulta eguna: 2015/07/19

Euskara familia bidez transmititzeak duen garrantziarekiko adostasunetik abiatuta, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Soziolinguistika Klusterrari* familia transmisioaren testuinguruan, hizkuntza-ohituren aldaketaren fenomenoaren azterketa egiteko eskatu zion. Fenomeno horren azterketan ikerketa bidez urrats bat emateko, hizkuntza-ohitura aldatu duten EAEko bikoteak bilatu eta aztertu ziren, beren kasuak gertutik ezagutu, beraiengandik ikasi eta aldaketa prozesu horien gakoak zein diren sakonagotik ezagutu nahian.

Bi helburu nagusi izan ditu ikerketa honek:

- 1) Hizkuntza ohitura aldaketaren fenomenoak sakonetik ezagutu eta ulertzea, bikote harremanaren eta familia bidezko hizkuntza transmisioaren testuinguruan.
- 2) Beren arteko hizkuntza aldatu duten bikoteen kasuen sailkapen bat eskuratzea.

“*Aldahitz ikerketa*” (Soziolinguistika Klusterra, 2014).

<http://www.soziolinguistika.eus/files/ALDAHITZ%20ikerketa%202014.pdf>

Azken kontsulta eguna: 2015/07/19

Ikerketaren helburua euskara ikasi duten langileek lankideekin gaztelaniatik euskarara egin dituzten ohitura aldaketa prozesuak, eta langile horiek euskara ikasteko jarraitu dituzten prozesuak ikertzea zen. Ikerketa horri esker identifikatu dira aldaketa-prozesuaren gakoak, hau da, zer dela eta egin dituzten aldaketak, zein zailtasun topatu dituzten bidean eta zein estrategia izan zaizkien baliagarri aldaketekin aurrera egiteko.

Erabilerari dagokionez, faktoreen inguruan askotxo dira egindako lanak, hemen batzuk aipatuko ditut, oso tresna egokiak izan baitira lana sakontze lana egiterako orduan.

“Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa”. Emaiz txostena. (Topagunea, Soziolinguistika klusterra, Urtxintxa Eskola, 2008).

<http://www.soziolinguistika.eus/files/GazteenHizkuntzaErabileranEragitenDutenFaktoreenAzterketaI.pdf>

Azken kontsulta eguna: 2015/07/19

2006 eta 2007an zehar *Soziolinguistika Klusterrak* bere bazkideen lankidetzan *“Gazteen erabilera. Perspektiba eta Prospektiba”* haur eta gazteen hizkuntzaren inguruko proiektua egin zuen. Baina, arlo honetan euskararen erabilera zerk baldintzatzen zuen aztertzea beharrezkoa ikusten zenez, proiektu talde bat osatu eta *“Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa”* proiektuaren bidez gai honen inguruko hausnarketa bideratu zen. Proiektu honek helburu bezala, Euskal Herrian topa litezkeen testuinguru ezberdin guztietarako baliagarria izango zen eredu bat sortzea zen.

“Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak” (Martinez de Luna, 2004). In Kaxildo Alkorta eta Eneko Barrutia (Argit.): *Egokitasuna Hizkuntzaren Erabileran*. VIII. Jardunaldia. Bilbao. Mendebalde Kultura Alkartea

<http://mendebalde.eus/jardunaldiak/2004/Euskararen%20erabilera%20egokirako%20gizarte%20baldintzak.pdf>

Azken kontsulta eguna: 2015/07/19

Lan honetan, euskararen erabilera eragozten duten baldintzak aipatzeaz gain, hizkuntza ikasteko eragiten duten faktoreak eta prozesuak ere azaltzen ditu.

“Arrasaten euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreei buruzko ikerketa kualitatiboa” (Siadeco, 2010).

http://www.siadeco.eus/documents/revista/eu/Siadeco_Arrasate_Erabilerak_faktoreak_Ikerk-kualitatiboa.pdf

Azken kontsulta eguna: 2015/07/19

Siadecok, Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkartearen eskaerari erantzunez, Arrasateko udalerrian bizi diren 30-45 urte bitarteko herritarren artean euskararen funtzionamendua esplikatzen duten faktoreen inguruko azterketa kualitatiboa burutu zuen. Arrasaten eta Bergaran eragiten duten faktore asko berdinak izanik emaitzak eta ondorioak aztertzerako orduan kontutan hartu ditut ikerketa honetatik ateratako hainbat ondorio.

Hiztun berri edo euskaldun berriak euskararekin harremana edukitzean nola sentitzen diren eta euskararekiko dituzten jarrera eta aurreiritziak ezagutzeko 2 ikerlan aipatuko ditut.

"Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: nolako euskalduna naiz?"(Amorrortu eta beste., 2013). BAT Soziolinguistika aldizkaria 87-88, 2013, 151-170

<http://www.soziolinguistika.eus/files/Ane%20Ortega%20et%20al.pdf>

Azken kontsulta eguna: 2015/07/19

Ikerketa honetan, Esti Amorrortu, Jone Goirigolzarri, Ane Ortega, Belen Uranga eta Jaqueline Urlak Euskal hiztun berrien jarrerak, motibazioak eta identitatea aztertzen duen lana egin zuten. Helburua, besteak beste, euskararekiko jarreraren izaera eta euskarari ze balio ematen dioten pertsonen aztertzea izan zen. Pertsona horiek dituzten aurreiritziak sailkatuz eta hauen eragina nolakoa den azalduz.

Ikergai-subjektuak euskara familia transmisioa ez den beste bide batean ikasi duten pertsona guztiak dira. Ikerketa honek 18-55 urte adin tarteko subjektuak hartu ditu ikergai eta kontutan hartu den euskararen gaitasun maila C1 mailakoa izan da. Helburua, besteak beste, jarreraren inguruko tipologia definitzea, euskaldunberrien profil desberdinen tipologia proposatzea, eta erabilera eta transmisioan eragiten duten faktoreen inguruan hainbat ondorio orokor ateratzea izan da.

"Euskaldunberrien autopertzepzioak: hiztun legitimoa naiz?" (Estibaliz Amorrortu eta beste., 2013) XII. Topaldia jardunaldiak, Durango 2014.

<https://topaldia.wordpress.com/hizlariak-eta-gaiak/hiztun-legitimoak/>

Azken kontsulta eguna: 2015/07/19

Hitzaldi honetan euskaldunberrien inguruko ikerketa honen behin-behineko emaitza batzuk eskainiko dira, alegia, auto-pertzepzioa eta hiztun legitimo sentitzearen

ingurukoak. Partaideek zein motatako euskal hiztun duten haien burua aztertuko da eta erabileran hiztun legitimo sentitzeak ala ez izan dezakeen eragina.



“Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak” (Amorrortu eta beste., 2009) Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/erdaldunen-aurreiritziak-2009.pdf

Azken kontsulta eguna: 2015/07/19

Beste lan honek aurreiritzien eta jarreraren arloa lantzen da, oso ekarpen interesgarriak eginaz. Amarauna Ikerketa taldeko Esti Amorrortu, Ane Ortega, Itziar Idiazabal eta Andoni Barrenak, sakon aztertu dute hizkuntzaren normalkuntzaren esparruan hain garrantzitsua den hizkuntzekiko jarreraren eta aurreiritzien gaia.

Ikerketa honen helburu nagusia da, batez ere arrakastaz euskaldundu ez diren euskal herritarren jarrerak eta aurreiritziak aztertzea izan da. Honela, elebitasunerako mesedegarri diren aurreiritziak arakatu eta jarreretan zein faktorek eragiten duten aztertuz.

Mintzalagun askok 2. Hizkuntza ikastera zerk bultzatu dieten jakiteko, motibazioen inguruan ondorengo 2 lan hauek aipatu nahiko nituzke, :

“Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: motibazioaren errola” (Arratibel, 2000). Bilbo: UPV-EHU.

Doktorego tesi honetan, hizkuntza bat ikasi eta erabiltzerako orduan motibazioak duen papera aztertzen du Arratibelek. Bigarren hizkuntzen jabekuntza, diziplina ezberdinetatik modu ezberdinean aztertua izan bada ere, eta prozesu horretan parte hartzen duten aldagaiak ere mota askotakoak izanik, Arratibelek aldagai psikosozialak hartu ditu batik bat kontutan: sare sozialak, bizitasun etnolinguistikoa, identitate etnolinguistikoa, jarrerak eta bereziki motibazioa azterketa hau egiterako orduan.

“Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta” (Perales, 2004) UZTARO, 50, 2004: 23-43)

www.ueu.eus/download/artikulu/uztaro50_3.pdf

Azken kontsulta eguna: 2015/07/19

Artikulu honetan motibazioaren hainbat teoria eta kontzeptu azaltzen dira, Bigarren Hizkuntzen Eskurapenaren eta irakaskuntza/ikaskuntza alorrekoak. Aztergai dira bertan, besteak beste, Gizarte psikologiaren ikuspegia, sozio heziketako eredua eta hala nola beste ekarpen berriago batzuk. Ondoren, euskara ikasle helduen motibazioa aztertzeke lanak biltzen dira.

5.- MARKO TEORIKOA

Euskara biziberritzeko lan-ildo nagusietakoak euskal hiztunak gehitzea eta euskal hiztunen kalitatea hobetzea dira.

Horretarako dauden tresnen artean, nagusietako bat helduak euskalduntzea eta alfabetatzea da. Eta helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko lanean, berriz, parte hartzen duten faktore nagusiak motibazioa, ezagutza eta erabilera dira.

Faktore horiek elkarrekin lotuta badaude ere, modu sistematikoan ezagutza landu da batez ere. *Mintzapraktika* programarekin beste bi faktoreak ere modu sistematizatuan lantzen dira.

Mintzapraktika, ezagutza... eremu soziolinguistikoan kokatzea falta da eta hortara dator atal hau.

5.1.- ZER DA SOZIOLINGUISTIKA?

Euskara biziberritzeko ahaleginetan dabilenaren inguruan gero eta ezagunagoa den arloa da soziolinguistika (edo hizkuntzaren soziologia). Hala ere, askotan ez da ondo bereizten zein den bere esanahia, baina honako hau argi dago: bere baitan jasotzen direnak garrantzitsuak direla hizkuntzaren biziberritze prozesuan kontuan hartzeko.

Beste edozein jakintza alorretan bezalaxe, asko dira gaiaren inguruan idatzitakoak eta aztergai duen alorra ulertzeko eta azaltzeko sortutako teoriak. Horiek guztietatik, Soziolinguistika eskuliburuan (2010) azaltzen den definizioa aukeratu da.

"Hizkuntzaren soziologia: diziplina soziolinguistikoa, gizarteak hizkuntzarekin duen harremana aztertzen duena. Askotan nahasi egiten dira soziolinguistika eta hizkuntzaren soziologia. Bereizgarri gisa esan daiteke lehenak hizkuntza aztertzen duela, testuinguru sozialarekin duen harremanaren bitartez; bigarrenak, berriz, gizartea du aztergai. Kanpo-soziolinguistika edo soziolinguistika zabala"

(Soziolinguistika eskuliburua, 2010:36)

5.2.- KOKAPEN TEORIKOA

Hizkuntzaren erabileran eragiteaz ari garenean, hainbat ikerketa eta adituren iritzi izaten dira kontuan, eta horietan oinarritu ohi dira *mintzapraktika* programak.

Soziolinguistikak baditu oinarritzko kontzeptu batzuk eta horiek azaltzeko José María Sánchez Carrión Txepetxen *"Un futuro para nuestro pasado"* liburuan oinarrituko gara.

José María Sánchez Carrión *"Txepetx"* Cartagenan jaio zen eta batez ere 1980ko hamarkadan jardun zuen lanean Euskal Herrian. Bere lanik ezagunena *"Un futuro para nuestro pasado"* da (Sánchez Carrión, 1987). Liburu horrek eta Txepetxen lanak eragin handia izan du Euskal Herrian. Txepetxen lanaren inguruko dibulgazio liburu erakargarria egina du *"Xamar"*rek Orekan izenburuarekin (Etxegoien *"Xamar"*, 2001).

"Mintzapraktika programak: Euskararen erabileran eragiteko tresna eraginkorrak"(Zapata, 2007) txostenean mintzapraktikan eragiten duten faktoreei buruz, besteak beste, horrelakoak aipatzen ditu Oskar Zapata Solanok:

Hizkuntzaren ikas prozesuan parte hartzen duten hiru elementuak ezagutza, motibazioa eta erabilera dira eta mintzapraktika egitasmoen bidez hiruretan eragin nahi da: motibazioan eragin nahi da hizkuntzari bere funtzio komunikatiboa emanaz, modu informalean eguneko kezkak, pozak, sentimenduak konpartitzeko aukera izanik hizkuntzarekiko atxikimendua areagotu egiten delakoan. Ezagutzan euskara maila hobetu nahi/behar dutenen ikas prozesua azkartzeko eta osatzeko klasetik kanpo, kalean, modu informalean euskaldunekin elkar ekintzan gaitasuna hobetzeko aukera emanaz. Eta, erabileran eragin nahi da elkar ezagutzen ez diren pertsonen artean modu naturalean sortuko ez ziren euskarazko sare berriak, lagun berriak... osatzeko aukerak sortuz.

Bestalde, egitasmoa "kalean" garatzen dela kontuan hartzen badugu tokiko paisaia linguistikoa eragiteko aukera ere ematen dute beti ere, hiztun talde informal bidez.

Informaltasunaren harira, hona hemen Pello Jauregi ikerlariak *"Gazteak eta euskara Lasarte-Orian II"* ikerketan plazaratu zuen hausnarketan:

"Gure irudikoz, euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarte multzo handiek, eskolaz gain, ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informal batean, dela talde hori familia den, dela sare horizontaleko talderen bat den. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura".

(Jauregi, 2003:109-110)

Mintzapraktika programen bidez ikasitakoa praktikan jartzeko aukera eskaintzen zaie hain zuzen ere.

Bestalde, "Txepetx"ek azaltzen dituen hiru faktoreak gurera ekarrita; arrazoi ezberdinak, desioak, emozioak edo interesak izango dira pertsona bat euskara ikastera bultzatzen duten motibazioaren oinarri. Ezagutza, hizkuntzaren funtzionamenduaz jabetzeko prozesua zein ahalmena eta azkenik erabilera, hiztun komunitatearen esparru guztietan eta hizkuntza funtzio guztietan jardutea.

5.3.- NOLA SORTZEN DIRA HIZTUNAK?

"Mintzapraktika egitasmoak: Erabilera lantzeko tresna eraginkorrak" izenburupean, Durangoko Landako Elkartegian 2005eko azaroan egin zen jardunaldian Iñaki Arrutik *"euskaldun berria, hiztuna eta hizkuntza komunitatea"* aurkezpena egin zuen. Bertan, besteak beste, hiztuna ikas prozesuan aitormen batetik abiatzen dela aipatu zuen (Arruti, 2005).

- Hiztuna abiapuntuan euskalduna izan arren, helmugan izaten uzten badio hiztun hori erdaldundu egiten da eta izaten jarraitzen badu aldiz, euskalduna da.
- Hiztuna abiapuntuan ez bada euskalduna eta helmugan horrela jarraitzen badu, erdalduna izaten jarraitzen du. Helmugan ikasi badu ordea, hiztun hori euskaldun berria izango da.
- Euskalduna izan eta erdalduntzea da, bere bizitzako momentu baten, euskaldun izateari utzi duena.

- Euskaldun izan eta eusten diona euskalduna da, aldiz, erdalduna hutsa da erdaldun izan eta izaera honi eutsi diona.

Euskaltegian matrikulatuta dauden ikasle gehienek kasuan, hurrenkera horri erreparatuz gero, erdaldun elebakarra edo erdal elebidun hartzailea izanik hasten dira euskaltegian eta elebidun izatea dute jomuga.

Honen harira, “Txepetx”ek bere teorian hizkuntzaren ikasketa prozesuan motibazioa, ezagutza eta erabilera faktoreak oinarritzat hartzeaz gain bi ibilbide mota bereizten ditu.

Edozein eduki hizkuntza baten edukia delako, edozein ikasgai-mota hizkuntzaren ikasgaia da. Horrexegatik, hizkuntzarekin batera ikasten dugun edozein gauza hizkuntza ikasten dugun heinean ikasi ohi dugu: haurtzaroan erabilera da ikaste-prozesua eragiten diguna; nerabezarotik aurrera, ordea, motibazioa bihur daiteke indar-motorra.

(Txepetx, 1987)

Faktore horiek elkarri lotuta daude. “Txepetx”ek ontzi komunikatuak balira bezala irudikatzen ditu eta hiru ontziek elkar elikatzen dute, betiere nahikotasun-mailatik gorago baldin badaude. Ontziren bat ez bada iristen nahikotasun-mailara ontzien arteko konexioa hautsi egiten da eta ikaskuntza prozesua eten. Hori gertatzen da, adibidez, hizkuntza ikasteari ekin dion pertsona heldu batek denbora aurrera joan ahala gogoia galtzen badu: bere motibazioa asko jaisten bada, eskoletara joateari laga egingo dio eta ezin izango du gehiago ikasi, ezta erabili ere. Bestalde, motibazioa mantentzen badu eta zenbat eta osatuagoa bada, orduan euskara hobeto ikasteko eta hobeto erabiltzeko aukerak handiagoak izango dira.

Hortaz, oso garrantzitsua da hori kontuan hartzea, hizkuntzak ikasteko prozesuak luzeak izan ohi direlako eta gorabehera handiak sor daitezkeelako bidean. Ikaskuntza prozesuan, beraz, hiru faktoreak dira zaindu beharrekoak.

Hizkuntzaren ikaskuntzan bi ibilbide mota bereizten ditu:

Ikaskuntza naturala: A ibilbidea


A ibilbidea: primarioa edo naturala; haurtzaroan gertatzen da eta hizkuntzarekiko motibazioa, ezagutza eta erabilera berezkoak dira; ibilbidea berezko erabilerarekin hasten da; izan ere, haurrak bere inguruan entzungo du hizkuntza eta poliki-poliki erabiltzen hasiko da, hau da, hainbat hitz, soinu eta hitz multzo erreproduzitzen. Erabilera praktikoa horrek hizkuntzaren aukerak ezagutzera eta esperimentatzera eramateaz gain, haurrari jarrera baikorra sortarazten dio, bere aktibitate edo

Baina erabileratik hasita motibaziorako jauzia egiteko nahikotasun maila eman behar da. Hau da, nahikoa erabili behar da, ondoren ezagutza maila egokira heltzeko eta, nahikotasun batekin ezagutzen denean, erabiltzen jarraitzeko motibazioa sortuko da.

MOTIBAZIOA EZAGUTZA ERABILERA

Ikaskuntza kulturala: B ibilbidea

Honelakoetan, motibazio kontzientea da ikaskuntza prozesuaren abiapuntua eta motorra. Motibazio batzuek zein besteez hizkuntza ezagutzera eta erabiltzera bultzatzen dute norbanakoa. Ibilbide naturalaren alderantzizko prozesua da. Ikaskuntza mota honetan norberak aukeratzen du ikasi nahi duen hizkuntza. Hizkuntzarekiko motibaziorik izan ezean, ez du prozesu kulturalik abiatuko.



Hizkuntza zuzentasunaren maila zehatz bat lortu ezin badu, zaila izango da bere motibazio konpartimentua nahikotasun mailaraino betetzea. Hau da, ama hizkuntzarekiko motibazio naturala nahikotasun mailaraino ez bada heltzen, bere baitan motibazio hutsune bat gertatzen da, berau beste hizkuntza batek bete dezake, ordezkapen prozesu bati hasiera emanez. Haurtzaroan euskara ondo ikasi ez duen haurrari gerta dakioke, adibidez, menderatzen ez duen hizkuntza horrek euskara ikasteko motibaziorik ez izatea eta ongi menderatzen duen beste hizkuntza bat aukeratzea, gaztelera, adibidez.

Era berean, motibazio arrazionalak (gazte eta helduetan gertatzen denak) barneratze nahikotasun maila lortu behar du, hizkuntzaren ezagutzarako bultzada modura bidera dezan. Jarraian, hizkuntzaren sistema eta egituraren gutxieneko ezagutzak lortu behar ditu, hizkuntzaren erabilera erreala gara dezan.

Bi ibilbide, baina zirkuitu bat

Bi ikaskuntza prozesu horiek lotura handiak dituzte eta zirkuitu modura funtzionatzen dute, mugimenduaren norabidea, batzuetan, prozesu naturaletik kulturalera izanik eta kulturaletik naturalera, besteetan.



Egoera normal batean, haur batek hizkuntzaren erabilpenetik abiatuta, A prozesua bukatu ondoren, bere motibazio propioek edo gizarteak sortu dizkion beharrek eraginda,

kulturatzeko (eskolaratze) prozesua (B prozesua) has dezake, hizkuntza bera kontzienteki landuz eta bere erabilpen maila aberastuz. Zirkuitu hau, AB litzateke. Horrela sortzen dira hiztun osoak, berezko ibilbidea eta kulturala, biak, eginak dituztenak.

Baliteke prozesua alderantzizkoa izatea, hau da, heldu bat hizkuntza ikasten hasten denean lehendabizi B ibilbidea egiten du eta gero naturaltasunez barneratzera iristen bada, A ibilbidea. Kasu honetan, soilik hizkuntzaren erabilpen intentsiboak bihurtu dezake pentsamendu-hizkuntza, aurrerantzean A prozesua zeharkatzeko posibilitateak eskainiz. Azken finean, euskara bigarren hizkuntza (kanpoko hizkuntza) izatetik lehen hizkuntza (barneko hizkuntza) izatera pasatzen da. Zirkuitu hau BA litzateke.

Beraz, AB eta BA motatakoak hiztun osoak dira eta komunitatearen erdigunean egon behar dira eta eurak izan behar dira gainerako hiztunen erreferentzia eta eredu.

Iñaki Martínez de Lunak sozializazioaren aldien inguruan bi sozializazio mota bereizten direla dio, gehienbat: Lehen Sozializazioa eta Bigarren Sozializazioa. Hala ere, gizarte garaikideetako hainbat aldaketa tarteko egoera berriak agertu direnez, Hirugarren Sozializazioaren ideia ere garatu da. Ondorengo lerroetan, hitzez hitz, 3 sozializazio motak aipatuko ditut (Iñaki Martínez de Luna, 2015):

Lehen Sozializazioa, ikaskuntza naturalean bezala, haurtzarokoa eta funtsezkoena da. Bizitzan zehar erabiliko diren oinarriko gizarte kategoriak orduantxe barneratzen dira: sexu eta generoaren araberrako banaketak, ongiaren eta gaizkiaren arteko bereizketa eta abar. Hizkuntzari dagokionez, lehen hizkuntza -edo ama hizkuntza- (H1) etxean jasotzen dena da, haurtzaroko lehenengo urteetan, familiaren ahotik zuzen-zuzenean. Hizkuntza hori izango da aurrerantzean funtsezkoena, barneratuena eta berezkoena hiztun ororentzat. Euskaldunen artean, hemen koka daitezke lehen hizkuntza euskara dutenak edo, esan ohi den bezala, euskaldun zaharrak; alegia, gaur egun haur eta gazte euskaldunen artean gutxiengoa.

Bigarren Sozializazioa, aldiz, ikaskuntza kulturalaren antzera, familiaz aparte burutzen da, neurri handian: hezkuntza sisteman, lagunartean, komunikabideen bitartez, gizarte sareetan... Hizkuntzari dagokionez hemen kokatuko genituzke euskaldun-berriak, hau da, euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi dutenak.

Alde batetik, lehen hizkuntza (H1) euskara dutenak eskolan ere hizkuntza horretan murgiltzen badira, lehen eta bigarren hizkuntza-sozializazioak norabide berekoak dituzte. Bi sozializazio horien metaketarekin, beraz, litekeena da

euskarazko gaitasuna erdarazkoa baino handiagoa izatea, kasu askotan. Funtzio kognitibo hori ez ezik, sozializazioaren funtzio identifikatiboa eta afektiboa ere askoz barneratuago eta osatuago izango dituzte; bizipenak eta eskarmentuak ere atseginak izango dituzte, normalean.


Beste aldetik, etxeko edo familiako hizkuntza (H1) erdara izanik, euskara bigarren hizkuntza (H2) gisa (hezkuntza sistema edo euskaltegiaren bitartez) ikasi dutenak ugariak dira: euskaldun berriak. Hori da, hain zuzen ere, egungo haur eta gazteengan gehien agertzen den euskaldun mota eta, horren ondorioz, kasu gehienetan ikasitako bigarren hizkuntza hori (euskara) ez dute erdara bezain barneratuta. Horrela euskaldundu direnek nekez jakingo dute euskaraz erdaraz bezain ondo; erdaraz hobeto, erosoago, moldatuko dira euskaraz baino.

Bestalde, azken urteotan **hirugarren sozializazioaren** ideia sortu da. Horrekin helduen kasu zehatz bat adierazi nahi da, horren muina honako hau izanik: pertsona helduek ingurune jakin batean barneratu dutena neurriren batetan baztertu, eta beste kultura edo gizarte baten arau eta balioekin ordezkatzeara, nahita edo halabeharrez (García Ferrando, 2005: 119-121).

Hortaz, hirugarren sozializazioa transkulturazioan datza; alegia, pertsona sortua eta hezia den gizartearen oso bestelako gizarte edo erreferentzia sistemetan murgiltzean. Adibidez, etorkinek harrera gizartera egokitu beharra dute eta horren arau, balio eta ohiturak ikastera behartuta daude. Beren hirugarren sozializazioa nolakoa, hizkuntza-sozializazioa halakoa. Gure kasuan, gaztelania ez dakiten etorkinak soilik gaztelaniaz sozializatu daitezke ala euskaraz (ere) sozializatu

Sozializazioa edo nola bihurtzen garen euskaldun

Sozializazioaren hiru funtzio mota:



*“Zenbat eta osatuago euskararen sozializazioa,
hainbat eta handiagoa erabilera.”*

daitezke.

Bestalde, Sozializazioaren baitan, hiru prozesu bereizi behar dira (Iñaki Martinez de Luna, 2015):

Prozesu kognitiboa: Psikologikoki, sozializazioan eduki batzuk ikasten dira; alegia, gizatalde jakin baten kultura gizakiari irakasten zaio. Hizkuntzaz jabetzea ere prozesu kognitiboa da, hiztun-komunitate bateko hizkuntza irakasten da: hiztegia, sintaxia edo joskera, fonetika, aditz-jokoa, hizkuntzarekiko gizarte-arauak...

Identifikazio prozesua: Soziologikoki eta antropologikoki, sozializazioa ez da eduki batzuk transmititzera mugatzen, inkontzienteki eta halabeharrez eduki horiek bere egiteaz gain gizakia berekin identifikatzen delako: nazioa, erlijioa, etnia, kultura, ogibidea, statusa... Hizkuntza ere esanahi horietako guztiekin edo, gutxienez, batzuekin "kutsatua" da: nazioa, etnia, kultura, ogibidea, statusa..., hizkuntzaz jabetzen den hiztun berria hizkuntza horrekin identifikatzeraino iritsiz (nire hizkuntza, gure familia-hizkuntza, herri honetako hizkuntza). Gure kasuan, identifikazioa iristen da euskaldun -versus erdaldun- sentitzeraino.

Prozesu afektiboa: Gizakiak gizarte bizikidetasuna, elkarrekintza, komunikazioa, afektua eta gorputz ukipena ere behar ditu, eta ez nolanahikoak, kalitatezkoak bazik. Hizkuntzarekin, beste horrenbeste gertatzen da, adibidez, tankera honetako ideiak barneratuz: euskera maitea, etxeko hizkuntza preziatua, Europako hizkuntzetatik zaharrenetakoa...

Prozesu horiekin batera, beste osagai batzuk ere uztartzen dira; alegia, herentzia biologikoa eta norberak bizitzan zehar etenik gabe metatzen duen eskarmentua. Herentzia biologikoa agian ez, baina, norberaren eskarmentua oso inportantea da hiztun baten izaeran eta bilakaeran. Adibidez, hizkuntza bat erabiliz eroso sentitu ala ez, hizkuntza bat erabiliz integratuta ala baztertuta sentitu, gaitasun mugatua izatearen konplexua ala gaitasun osoa izatearen harrotasuna, euskara erabili nahi izateak eragindako arazoak edota deserosotasunak, euskara gogoz kontra ikasi edo erabiltzera behartua sentitzea...

Lehenengo hiru prozesu horiek eta norberaren eskarmentuak elkarri eraginez nortasun bakarreko eta errepika ezineko gizakia sortuko da. Gizakia gizarteko kidea izango da une horretan, ordura arte ez baitago sozializatuta. Hizkuntza-sozializazioan, lau osagai eta ezaugarri horien elkar eragitetik hiztun bakar eta errepikaezina sortzen da: euskaldun jakin bat. Alegia, zenbat eta aldekoagoak lau dimentsio horietako baldintzak euskararentzat, hainbat eta osatuago izaera euskalduna hiztunarengan. Beste pauso bat gehiago emanez, zera esan dezakegu: zenbat eta hizkuntza-sozializazioa sendoagoa euskaldunarengan, hainbat eta euskararen erabilerarako joera handiagoa hiztun horrengan. Horregatik guztiagatik da sozializazioa hain garrantzitsua gizakiengan eta hizkuntza-sozializazioa hiztunengan.

Mintzalagunengan eragiten duten motibazioa, gaitasuna eta erabilera faktoreak aurkeztuko ditugu ondorengo lerrotan:

5.3.1.- Motibazioa

“Zentzua bilatzea da danoi motibatzen gaituena” (Victor Frankl).

Egiten dugunaren zentzuak eramaten gaitu konpromezura.

Motibazioa nahikotasun-maila batera iristen denean (motiboak oso ugariak eta desberdinak izan daitezke), pertsona horrek euskaltegira joatea erabakitzen du eta euskararen ikaskuntzari (ezagutzari) heltzen dio. Ezagutzak gora egin ahala, erabiltzeko aukerak ere gora egiten du (nahiz eta, ikusiko dugun legez, beste hainbat faktorek ere eragiten duten erabileran).

Motibazioa, ordea, ez da soilik hasierakoa, prozesuak irauten duen epe osoan (gero ere bai) motibazioak elikatzen du prozesua bera. Zenbat eta motibazio osatuagoa izan, orduan eta euskara hobeto ikasteko eta gehiago eta hobeto erabiltzeko aukerak handiagoak izango dira.

Euskaltegiaren zeregina motibazioa elikatzea ere izan daiteke. Hau da, egunero klaseak ematerakoan motibazio hori, zuzenean edo zeharka, lantzen da. Horretaz gain, bai ikaskuntza prozesuaren hasieran (ikaslea euskaltegiratzen denean) eta baita ikasprozesuan zehar (norberaren abiapuntuko motibazioaren, ingurunearen eta abarren arabera) ere elika daiteke faktore hau.

Motibazioa, ekintzak abian jartzeko mugitzen gaituen indarra da, indibiduoak

zerbait egitera bultzatzen duen barne-prozesua, bultzada horren bitartez barne edo kanpo gertaeraren bat eragiten duena.

Definizio asko eman zaizkio motibazioari: kleinginnak eta Kleinginnak (1981, in Perales, 2004:23) 98 definizio bildu zituen. Dorney-ri jarraikiz (2001a, 2001b, in Perales, 2004:23), definizio gehienak jasotzen dituzte, nolabait, giza portaeraren “norabideari” eta “tamainari” buruzko aipuak. Horiek kontuan hartuta, hiru ezaugarri bereiz ditzakegu:

- 1.- Gizakiak era batera eta bestera, jarduteko egiten duten hautapena.
- 2.- Jarduera horretan irautea (hasi eta animatu).
- 3.-Jarduera horretan ahalegintzea (nolabaiteko nekea izatea fisikoa nahiz intelektuala).

Motibazioaren prozesuari dagokionez, Deckers-ek (2011) motibazioaren prozesua irudikatzeko hainbat momentu edo atalez osaturiko eskema bat proposatu zuen. Motibazioaren prozesua zehatzago mugarritu nahi badugu, pausoz pauso aztertu beharko ditugu pertsonak eta bere organismoak estimulu edo behar bat atzematen duenetik helburua lortzearen, edo ez lortzearen, artean gertaturikoak, lortzearen edo ez lortzearen kausa-egozpenak eta zer egin eta nola egin erabakitzen direneko hainbat momentu aztertuz. Oro har, Deckers-ek (2011) hiru momentuko sekuentzia proposatzen du: helburuaren aukeraketa, portaeraren dinamismoa eta egindako ekintzaren bukaera edo kontrola. Jomuga bilatuko den helburuaren aukeraketari dagokionez, portaera exekutatze beharrezko energiarekin batera, motiboa pizten duen aurretiko zirkunstantzia edo pizgarria dago. Motiboaren aukeraketa ondoko ezaugarrien baitan egongo da: motiboaren beraren intentsitatea, pizgarriaren erakargarritasuna, arrakastaren probabilitate sujetiboa eta helburua lortzeko beharrezkoa izango den esfortzuaren estimazioa.

1.- Helburuen aukeraketa: Motibazio prozesua abian jartzeko ezinbestekoa da estimuluren bat egotea, baina estimuluen pertzepzio kontziente eta inkontzienterik izan ezean, motibazio prozesua ez da hasiko. Pertsona helbururen bat lortze aldera mugituko bada, estimulu horren pertzepzio eta ebaluazio balorazioa beharrezkoak izango ditu. Pertzepzioa gertatzeko, estimuluen presentziaz gain, hartzaile egokiak izatea eta estimuluak nahiko intentsitate izatea beharko da. Eta balorazioari dagokionez, pertsonok balizko helburuek asetuko gaituzten edo gogoko izango ditugun estimatuko dugu. Edozein helburu lortzeko prozesu honen guztiaren azterketak espektatiba bat sortuko du eta espektatiba horren ondorioz erabakiko dugu zer egin. Helburuen balioa eta lortzeko espektatiba funtsezko faktoreez gain, nahia edo gogoia faktorea ere funtsezkoa da

2.- Portaeraren dinamismoa: aukeratutako helburua lortzeko saiakeran abian jartzen diren ekintzak dira. Pertsonak erabakitzen duenean zein helburu lortu nahi duen, kontuan izanda pertsona hori zein egoera, zirkunstantzia eta momentutan aurkitzen den, erabakiko du zein estrategia, baliabide eta trebetasun erabiltzea komeni zaion dagokion portaera bultzatzeko.

3.- Egindako ekintzaren bukaerako kontrola: Analisi honen bidez, pertsonok egiaztatu egiten dugu abian jarritako portaeren bidez aukeratu dugun motiboa asebate dugun ala ez. Helburua lortu ala ez lortu ez izanaren kausa-eragozpenak egiten ditugu, etorkizunean, egindako ekintza edo portaerak egokiak diren ala aldaketak egitea komeni zaigun erabakitzeko. Helburua lortu bada, pertsonak burututzat emango du portaera eta amaitutzat eman daiteke motibazio prozesua.

Hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko motibazioaz hitz egiterakoan ezin dira alde batera utzi jarrerak, motibazioak jarrerazko oinarri sendoa baitu. Hona hemen hitzez hitz, Olatz Olasok *Hizneteko 1.4* ikasgaiko “*motibazioaren jarrerazko oinarria*” puntuan aipatzen duena (Olaso, 2005)

Jarrera kontzeptuaz aritzea ez da lan erraza, 1935ean Allport-ek 100 definiziotik gora bildu baitzituen. Halere, jarreraren bereizgarri garrantzitsuenak oso antzekoak dira, nahiz eta definizio ezberdinetatik abiatu.

Hizkuntzarekiko jarreraren garrantzia azken urteotan eginiko lan gehienek azpimarratzen dute, bai soziolinguistika tradizioan, eta baita psikologia sozialekoan ere. Honetan, bi faktore ezberdindu aurkitu dituzte: bata izaera kognoszitiboa duena eta bestea izaera motibazionala duena; eta bigarren honekin lotzen da jarrera eta portaeraren arteko harremana.

Bi faktore hauen arteko erlazioen sakontzetik zera jakin ahal izan da, ikaste prozesua garatzen deneko ingurune linguistikoak hauen arteko erlazioa baldintzatzen zuela, hauetako bakoitzaren eragina matizatzuz (Gardner, 1985).

Matizazio hau Gardner eta Smythe-k (1975b) zehaztu zuten beraien bigarren hizkuntza baten jabekuntza ereduari. Autore hauek zera zioten, ingurune kultural batean subjektuak bigarren hizkuntza hori ikastea espero badu (testuinguru formala) pisu gehiago izango dutela errendimenduan gaitasun kognitiboek.

Testuinguru informal batez ari bagara (beste komunitateko kideekin elkarriketa zuzena, telebista ikustea, irratia entzutea...) gizabanakoarteko ezberdintasunak motibazionalarekin erlazionatuago egotea espero da gaitasunekin baino.

Gai honi dagokionean, dudarik gabe Lambert eta Gardner dira bi autore garrantzitsuenak 60 urteetatik aurrera. Hauek izan baitziren bigarren hizkuntzen eskurapenean jarreraren arazoa nolabaiteko zehaztasunez ikertu zuten lehenak.

Beren ekarpen garrantzitsuena ikaslearen epe luzerako helburuak hizkuntzaren jabeakuntzaren lorpenekin erlazionatzen saiatzea izan zen.

Beste hizkuntz-taldeko kideen antza izan nahi dutenen, hau da, talde honetako kide izan nahi dutenen, eta beste hizkuntz-taldearekin helburu utilitarioekin komunikatu besterik nahi ez dutenen artean egiten dute bereizketa.

Montréal-ko bigarren mailako ikasketak egiten zituzten ikasleekin eginiko lanetan, zeintzuk frantsesa 2Ha bezala ikasten zuten, gaitasun kognositiboari buruzko faktore batez gain, beste bat aurkitu zuten zeina 2Ha ikasteko interesa beren talde kulturalako kideekin komunikatzaren erlazionatzen zen. Honek talde horrekiko jarrera positiboagoa azaltzen du eta bigarren hizkuntzaren eskurapenean eta hizkuntza horren erabileran arrakasta handiagoa lortzea adierazten du.

Hemendik abiatuta motibazio integratzaile eta instrumentala desberdindu zituzten, ama-hizkuntza ez zen beste edozein ikasterakoan (Gardner, 1966).

Ekarpen hauek zera demostratzen zeuden zuzenduak: 2Ha ikasten duen ikaslearen jarreraren garrantzia 2H hori sostengatzen duen talde etnolinguistikoarekiko.

Jarreraren garrantzia berebizikoa da hizkuntza horretako arrakasta azaltzeko, ikaslearen hizkuntz gaitasun eta inteligentziaren gainetik.

Motibazio integratzailea duen ikasleak beste hizkuntz-taldearekiko jarrera positiboa agertzen du, baita hizkuntzaren ikaskuntzarekiko, ikaskuntza egoerarekiko (ikastaroa eta irakaslea), edozein hizkuntzaren ikaskuntzarekiko eta gurasoengandik hizkuntza hori ikasteko animu handia jasotzen zuten. Honek adierazten du 2H bat ikasteko motibazioak jarrerazko oinarri indartsua duela.

Idea zentrala ondorengoa da: jarrerak motibazioan gertatzen diren gizabanako arteko desberdintasunen kontu ematen dutela eta jarrerazko oinarri egonkor bat behar dela bigarren hizkuntza bat eskuratzea eta gero erabiltzea suposatzen duen denbora luzean motibazioa mantentzeko. Jarrera hori ezkorra baldin bada, behaztopa galantak egon daitezke norberaren barnean hizkuntza hori ikasteko; behartuta ikasten bada, kanpotiko eskakizunak betetzeko, gutxiengoaren mailetaraino bakarrik iritsiko da ikaslea.

Aldi berean, motibazioak bigarren hizkuntza horren errendimendu mailan eragiten duenaren ideia mantentzen da.

Jarrerekin lotuta, jarreraren ikuspegiak aztertzen hasita, honakoak aipatzen dira Auñamendi Eusko Entziklopedian (Belen Uranga, 2010):

Jarrerak gizabanakoek (eta taldeek) objektu, pertsona, erakunde edo ekimen zehatzen aurrean, alde edo kontra erantzuteko joerei buruz hitz egitea da (Icek Ajzen, 1988: 4). Jarreraren nolakotasunak ezagutzeak erkidego jakin baten pentsaera, sinesmenak, lehentasunezko gaiak eta nahiak ezagutzeko aukera ematen duela (Colin Baker, 1992: 9). Beraz, jarrerak aztertzean, norbanakotik taldera igarotzeko bidea egiten da.

Jarreraren inguruko azterketetan bi tradizio nagusitu dira (Ralph Fasold, 1996: 229): ikuspegi mentalista eta ikuspegi behaviorista (konduktista).

- Ikuspegi mentalistatik abiatuta jarrera jokaerarako prestutasuna garatzen duen barne-sentimendua da, eta, beraz, ezin da zuzenean atzeman. Horregatik, haren izaera hainbat faktore kontuan hartuta ondorioztatu behar da. Ikuspegi horren baitan, jarrerak estimulu zehatzen aurrean nolabaiteko prestutasuna eragiten dituzten aldagaiak dira (Fasold, 1996: 229). Ikuspegi horrekin aritu dira lanean, besteak beste, Icek Ajzen (1988), Rebecca Agheyisi eta Joshua Fishman (1970), Robert Cooper eta Joshua Fishman (1974) eta beste hainbat ikertzaile.

- Ikuspegi behavioristaren tradizioan, ordea, jarrerak giza jokaeretan bertan daude, gizarte-egoerei erantzunez. Beraz, ikuspegi horretatik, jarrerei buruzko informazioa biltzeko nahikoa da jokaera horiek behatzea eta aztertzea. Hau da, jarrerak pertsonen portaeretan aurkitzen dira, estimuluari emaniko erantzun modura, eta, horrela, gertaeren deskribapenak eta azalpenak egin daitezke. Aztertzeko moduarengatik, erraztasun handiagoak ditu ikuspegi behavioristak, baina arazoak ere baditu, portaerak ezin dituelako iragarri; hau da, azalpenak ematen ditu, baina ezin du iragarpenik egin.

Esan bezala, jarreraren azterketek norbanakoen esparrutik (psikologiatik) giza taldeetara doaz (psikologia soziala). Ezagutza-eremu horren ikuspegitik jarrerak giza taldeen garaiko pentsaera, sinesmen, hobespen eta nahien adierazleak eskaintzen dituzte.

Hizkuntzen jarreraz aritzea, zehazki, hizkuntza edo aldaera desberdinetako hiltunek euren edo gainerakoen hizkuntzekiko duten jarreraz hitz egitea da. Hizkuntza jakin batenganako sentimendu baikor edo ezkorak adieraztea, hizkuntza horren konplexutasun edo soiltasun linguistikoaz inpresioak ematea izango da; ikasteko duen erraztasunaz edo zailtasunaz, hizkuntza horren garrantziaz, dotoreziaz, estatus sozialaz eta abarrez. Aldi berean, hizkuntza jarrerak hizkuntza hori hitz egiten duten hiltunei buruzko pentsamenduak adieraz ditzakete (Fasold, 1996: 231).

Ikuspegi mentalistaren arabera jarrera barne sentimendua da, eta, beraz, ezin da zuzenean atzeman. Ikuspegi behavioristaren ikuspegitik, aldiz, jarrerak giza jokaeretan daude. Nahikoa da jokaera hori behatzea jarrerak definitzeko.

Hizkuntza-jarrera kontzeptuak oso gai-sorta zabala biltzen du bere baitan. Colin Baker-ek honako azpigaiak azpimarratzen ditu: hizkuntza baten aldaera soziala (soziolektoa), geografikoa (dialektoa) eta hizkera-moduen inguruko jarrerak; hizkuntza bat ikasteko jarrera; hizkuntza minorizatu baten inguruko jarrerak, hizkuntza bat erabiltzearen inguruko jarrerak; hizkuntza bat ikasteko gurasoen jarrerak eta hizkuntza-lehentasunezko jarrerak (Baker, 1992: 29).

Gaur egun nagusi den ikuspegi mentalistaren arabera, hizkuntza batekiko aldeko jarrerak hizkuntza hori erabiltzeko, transmititzeko edo ikasteko joera markatuko du, besteak beste. Hala ere, jakina da hainbat aldagaik oztopa dezaketela joera

horrek seinalatzen duen jokaera eta, ondorioz, gerta daitekeela hizkuntza hori hainbat esparrutan ez erabiltzea, ez transmititzea edota ez ikastea.

Iritziak, berez, estimulu zehatz baten aurreko sinesmenak edo pentsatzeko moduak dira. Baina erantzuteko joerarik, berez, ez dute erakusten. Erramun Baxoken hitzetan: iritziak dira norbere sentimenduen eta ideien adierazpenak. *“Jarrera da zerbait egiteko dugun joera”* (Bachoc, 2008: 63). Gainera, iritziak ahoz eman daitezke eta, aldiz, jarrerak, egoera psikologikoak direnez, ez dira agerian egoten, estalita baizik (Baker, 1992: 14).

Hala ere, jokaerak iragartzeko orduan kontuan izan behar da giza jokaera partikular guztiak aldagai-sorta bakar batek eragindakoak direla eta, beraz, aldagai horietako bakar bat moldatzea nahikoa dela erantzuna aldatzeko (Ajzen, 1988: 45). Horregatik, jokaerak iragartzeko probabilitatea ez da oso handia izaten.

Nolanahi ere, jarreraren ezagutza ikerketa jarraituan oinarritzen bada, eta ikerketa horiek testuinguruko aldagai espezifiko eta orokorrak kontuan hartzen badituzte, jokaerak iragartzeko probabilitate handia izan ohi dute (Baker, 1992: 17-20).

Laburbiltzeko ondoriozta daitekeen ideia nagusia honakoa da: gai baten inguruko jarrerak ez dute zuzenean jokaera ziurtatzen, baina jokaera zehatz baterako prestutasuna eragiten dute.

Idea horren arabera, Icek Ajzen eta Martin Fishbein (1980) ikertzaileen eredua interesgarria da, jarreretatik abiatuta neurri onargarri batean portaerak aurreikus baitaitezke.

Jarreretatik jokaeretara doan bidearen eredua (Ajzen eta Fishbein, 1980).

Ikuspegi mentalista batetik abiatuta, jarrerak alderdi kognitiboa, afektiboa eta konatiboa biltzen dituzte.

Jarreraren osagaiak (Ajzen, 1988; Agheyisi eta Fishman, 1970; Cooper eta Fishman, 1974).

Alde kognitiboa. Ezagutza-arloari lotutako ideiak dira: iritziak, aurreiritziak eta sinesmenak. Ideia eta sinesmen horien arabera, hizkuntzak ezaugarri zehatzei

lotzen zaizkie: hizkuntzak politak, ederrak, itsusiak, baliagarriak, baztertzailleak eta sentimenduak adierazteko aproposak dira, besteak beste.

Alde afektiboa. Hizkuntzekiko sentimenduak biltzen dira alderdi honetan. Hizkuntzarekiko leialtasuna edota atxikimendua, identitate-sentimendua eta komunitatearekiko lotura bil ditzake alde afektiboak.

Alde konatiboa. Jokaeretarako prestutasuna erakusten du alde konatiboak; egoera zehatzetan erantzuteko joera definituko du.

Hiru aldagaien arteko harreman estuez erabateko adostasuna egon ez arren, soziolinguistika-arloan jarrerren ikerketek berebiziko garrantzia hartu dute; izan ere, badirudi hizkuntza edo aldaera desberdinen inguruko jarrerrek informazio ugari ematen dutela pertsonen hizkuntza edo aldaera horiei buruz dituzten iritzien gainean, eta hizkuntza horietako hiztunen gainean ere bai.

Motibazioak azaltzen du zergatik erabakitzen duen pertsona batek ekintza bat egitea, esate baterako, hizkuntza bat ikastea edo erabiltzea; zenbateko ahalegina egingo duen eta zenbat denboraz eutsiko dion ahalegin horri.

Baxoken hitzak ekarriz, *“motibapena da ekintza edo jokabide baten iturburuan diren indar guztien bilduma”* (Bachoc, 2008: 63).

Oskar Zapatak *“Mintzapraktika programak: euskararen erabileran eragiteko tresna eraginkorrak”* (2007) artikuluan zera aipatzen du pertsonen jokabide aldaketen inguruan:

Pertsonen aukera eta jokabidetan aldaketa eragiteko Daniel Golemanek (1995) "emoziozko adimenaren" teoria bultzatu du. Haren arabera, pertsonengan aldaketa eragitea hainbat faktoreren baitan dago. Hizkuntzaren erabilera ohiturak aldatzean Goleman-en ustez abilezia teknikoek baino (hau da hizkuntza gaitasuna, edo ezagutza edo hau ikasteko duen koefiziente intelektuala...) abilezia emozionalek izango dute garrantzia edo eragina (euskara erabiltzeak sortzen dion sententzioa, euskarak suposatzen dizkion lotura afektiboak, emoziozko aldaerak...). Golemanen ustez gainera, bi abilezia hauek

proportzio desorekatuan banatzen dira: abilezia teknikoek %20ko eragina duten heinean abilezia emozionalek %80ko eragina izango dute.

Daniel Golemanek dioena ere kontuan hartzekoa da:

“Gaitasun emozionalak ongi garatuta dituzten pertsonak asebateak sentituko dira eta beraien bizitzan efikazak izateko probabilitate gehiago izango dituzte, baita beraien mankortasunean positiboki eragingo duten ohiturak menperatu ere; baina, bizitza emozionalean ordena mantentzeko gai ez diren pertsonak, aldian aldiko gatazkak libratuko dituzte eta ez dira lanean kontzentratzeko eta argitasunez pentsatzeko gai izango.”

(Daniel Goleman, 1995:XX)

Mintzapraktika programen kasuan partaideen artean, sortzen den harremana harreman askea da, borondatez sortzen da eta euskaraz gozatzea da bilatzen dena, hau da, harreman afektiboa, emozionala. Oskar Zapataren hitzekin jarraituz:

“Golemanen teoriari erreparatuz gero, motibazio emozionalak hizkuntza bat aukeratzeko duen garrantzia eta "Txepetx"ek hainbestetan aipatzen duen motibazioa lantzeko bide emankorra izan daitekeela uste dugu, hortik etorri da bi teoriak uztartzeko ikusi dugun egokitasuna, osagarriak diren aldetik *Mintzapraktika programei* etekin handiago ateratzeko bide izan daitekeela uste dugu.

Izan ere, *Mintzapraktika programetako* partaideek ongi pasatzen badute, emozio positiboak sortzen bazaizkie (harreman berriak egin, egunerokoa konpartitzeko tokia topatu, gustuko ekintzetan parte hartzeko aukera ikusi, auto-estimua igo...) jarraitzeko gogo sortuko zaie eta horren ondorioz euskara erabiltzeko aukerak ugaritu egingo zaizkie eta horrenbestez hizkuntza erabiltzeko ohituretan eragitea errazagoa izango zaigu”.

Motibazioaz ari garenean esan behar da pertsona bat hizkuntza bat ikastera bultzatzen dituzten arrazoiak anitzak direla. Nork bereak izaten ditu. Horiek arrazoizkoak edo emozionalak izan daitezke. Batzuk hurbilduko dira bertako kulturak erakarrira, besteak giza harreman berriak egin nahian, seme-alabekin hitz egiteko, egongo dira ideologia politikak bultzatuta hurbilduko direnak, lana lortzeko asmoz dabiltzanak edo etorkinak izanik komunitatean integratzeko biderik egokiena ikusi dutenak. Denak baliagarriak.

Bestalde, Amaia Anterok *“euskara elkarteak ibilian”* Topaguneak antolatutako jardunaldietan (2007) honako galderari erantzuten saiatu zen: euskara zergatik eta zertarako? Eta Bizinahia aipatu zuen erantzun gisa:

“BIZI: Gure aurrekoek euskarari eutsi badiote, euskarak berak euren egunerokotasunean eta euren izaeraren zokorik ezkutuenean ere BIZIRIK zegoelako izan da Euskara euren bizipenei loturik zegoelako. Geure aurrekoengan izan da modu kontziente edo inkontzienteagoan funtsezkoa zen zerbaiti eusteko sena. Euskara, euskaratik, euskaraz sortutakoari eutsi eta horren transmisioa bermatzeko barruko dei modukoa izan dute gure aurrekoek. Kontua da historiaren une honetan bizi garen euskaldunak gu garela, aurrekoak joan ziren eta ondorengoak ez dira iritsi oraindik.

Eta historiaren une honetan bizirik gauden euskaldunok galdetu egin beharko genioke geure buruari zertarako behar edota erabili nahi dugun euskara. Uste dut gero eta gehiago direla gu tartean euskara (gazte askoren kasuan) ezagutza barneratzeko bitarteko gisa erabili ohi dutenak.” (Antero, 2007:1-2)

Aipatu dugun bezala, hizkuntza bat ikasteko edota mantentzeko motibazioa behar da, hizkuntza hori ezagutu egin behar da eta hizkuntza hori erabili behar da. 3 faktore hauek elkarreraginean daude eta elkarren osagarri dira. Eskema hau bizitzako behar dugun hainbat alorretara ere eraman liteke. Azken batean, sentitu, pentsatu eta egiten dugunaren arteko koherentziaz ari gara. Sentitzen, pentsatzen eta egiten duguna batasunean bizitzeak zentzua, oreka ematen digu.

NAHIA da Amaiak aipatutako beste gakoetako bat, hau da, mugiarazten gaituena *Nahia* edo *Beharra* izaten da.

“Nire kasuan, nire esperientziatik, BEHAR horretan morala dago, zuzena dena eta ez dena, egokia dena eta ez dena. Epaia dago. Ito egiten nau, ez dit arnasarik hartzen uzten. Minetik, ezinetik, errepresiotik, sufrimendutik eraikitako kartzela ezkutua da nire baitan. NAHIA berriz, askatasunetik egindako hautuaren bidea da. Bide hau emankorragoa izan da, izaten ari da nire bizitzan. Barruko loturetatik askatzen ari naizen neurrian kanpoko aingurak ere jasotzen ari naiz. Eta euskarari dagokionean, esperientzia eta intuizio horretatik abiatzen naiz. Euskaraz bizitzea, beharretik baino nahitik sortutako hautu kontzientea izatea lortu behar dugu euskal hizkuntza komunitatea osatzen dugunongan eta baita erakarriko ditugunongan ere. Euskaraz bizitzea beharretik baino aukera kontzientetik

hartutako konpromiso pertsonala izatea askoz ere eraginkorragoa dela pentsatzen dut.” (Antero, 2007:4)

Azken finean, euskaraz bizitzeko espazioetan erdararako joera duen horri lagundu egin behar zaio jokaera horren erroetara iristen, hortaz jabetzen, barne bidai bat egiten. Garbi dago, ez gara kasu isolatu batez hitz egiten ari. Jokamolde orokorrak dira eta zerbaitegatik gertatzen dira. Saiatu behar gara mehatxuaren eta epaiaren bidea alde batera uzten eta euskara jakinda ere hitz egiteko joera ez duen horri jokaera horren arrazoiak eta nondik norakoak azaltzeko ahalegina egiten. Azken batean, pertsona horrek bere jokaeraren kontzientzia hartzeko eta batez ere aldatzeko, lehenik eta behin, ulertu egin behar du zer den gertatzen zaiona. Egoera honetara ekarri gaituzten baldintza historikoen kontzientzia hartu behar du, horrek lagunduko baitio ikusten zergatik den euskararen egoera den bezalakoa une honetan eta ez beste bat, zergatik dituen aurreiritziak bere hizkuntzaren inguruan, zergatik dauden euskararen erabilera oztopatzen duten mekanismo sozialak, zergatik batzuek ez dakiten euskaraz eta uste duten mundu guztiak jakin behar duela gaztelaniaz, eta abar eta abar.

Azken batean, esan nahi dena da kontzientzia dela konpromisoaren aurretiko urratsa eta hau ezin dugula egintzat eman. Landu egin behar dela, alegia. Beraz, euskal kontzientzia eman behar zaie, euskalduna izatea ez da aski. Euskaldun bakoitza euskaltzale egiten ahalegindu behar dugu, euskara oraindik arriskuan baitago.

Bukatzeko, Amets Arzallusek 2013. urtean Enbataren 50. urteurreneko hitzaldian esandako esaldia aipatu nahiko nuke: "Batzuk diote integrista bat naizela; taliban ere entzun izan dut. Ez nekien koherente izateari 'talibana' esaten zitzaionik". (Arzallus, 2013).

5.3.2.- Ezagutza

Euskara irakastea da euskaltegiaren zeregin nagusia. Helburua, berriz, ikasleak euskara ikastea, gero eta gehiago eta hobeto ezagutzea, alegia.

Bere zeregin zentral hori hezurmamitzen aritzen da euskaltegia ikasturte osoan eta, horretarako, prestatzen eta erabiltzen dira ahalik eta metodologia egokienak.

Txosten honen helburua, ezagutzaren osagarriak diren bi elementuak - motibazioa eta erabilera- indartzeko bideak topatzea denez, euskaltegiak eskola-orduetan ezagutzaren lanketa nola egiten duen, nola egin behar duen eta eskolen didaktikarekin lotutako elementuak alde batera utziko ditugu.

Bistakoa da hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren arteko lotura egon badagoela. Ezin da hizkuntza bat erabili hizkuntza horren jabe izan gabe. Halaber, erabilera hizkuntza horren gaitasunaren mailaren arabera ere izan daiteke.

Iñaki Martínez de Lunak (Martínez de Luna: 2004) dioenaren arabera, "Euskal Herriko gaztetxoengan euskarazko gaitasuna helduen artean baino askoz hedatuagoa den arren (Iparraldean salbu), horrek badu bere alde iluna: euskaldun horiek duten euskara eta erdaren arteko gaitasun erlatiboarena, hain zuzen. Izan ere, sarri ahazten zaigu euskaldun gehienek erdara ere badakitela, eta, kasu askotan, euskara bera baino hobeto. Horixe gertatzen da gaztetxo askorekin: %44 Nafarroan, %49 EAEn, eta %46 Iparraldean".

Gaitasun eskasa dagoen kasuetan erabilera eza gertatuko da. Izan ere, nerabe elebidun gehienek erraztasun handiagoa dute erdaraz, eta, ondorioz erdararako joera izango dute. Gainera, gurpil-zoro bat da hori Martínez de Lunaren iritziz: gaitasunik ezak erabilera eza dakar, eta erabilera ezak gaitasuna gutxitzea.

Bestalde, Iñaki Arrutik dion bezala, motibazioa gaitasunean eskola bidez bihurtu daiteke, hau da, harreman-sareko eta gune soziolinguistikoko euskaldunen dentsitatea gehituz.

Helduak euskalduntzeko erakundea euskaltegia da. Faktore pertsonal eta sozialek eragina izan arren, metodologiak ere bere garrantzia du, hau da, ez da berdina eskola gramatikalagoa edo komunikatiboagoa izatea. Baina normalean ibilbide akademiko hutsak ez du bermatzen ikasleek bigarren hizkuntza eskuratzea.

Gaitasuna 2 mailatan banatu daiteke gaitasun erlatiboaren arabera:

- Nahikotasun maila dutenak: euskal elebiduna edo elebidun orekatua
- Nahikotasun maila gabeak: erdal elebiduna edo elebidun hartzailea.

Pablo Suberbiolaren ustez, ondorengo urteetan oso kontuan hartzeko kontzeptua izango dugu hau, eta hiztun batek ezagutzen dituen hizkuntza bakoitza zein neurritan menperatzen duen adierazten du nolabait. Azken urteotako bilakaerak adierazi du "elebidun hartzaile" diren hauek oso kasu jakinetan baino ez direla bihurtzen euskarazko

hiztun aktibo, eta euskaraz ulertzeko gai badira ere, eguneroko egoerarik gehien-gehienetan ez dutela euskara erabiltzen. Kontuan hartu behar da, beti daukatela eskura hobeto menperatzen duten "erdara" bat, inguruko guztiek ere ongi menperatzen dutena. Hori horrela, datozen urteetan erabilera mailan aurrerapausoak emateko funtsezkoa izango da ulermen maila duten hiztun hauei beren gaitasun erlatiboa hobetzeko aukerak eskaintzea: inguruan euskara entzutea, beren gustuko eta intereseko gaiei buruzko informazioa eta produktuak euskaraz edukitzea, edota beren inguruko giroak (ikastetxeak, aisialdikoak, lanekoak...) euskara erabiltzea erakargarri edota beharrezko egitea.

Euskararen berreskurapen prozesuaren hasieran lehentasuna euskarazko irakaskuntzan eta euskalduntzean jartzea izan zen. Gaur, aldiz, erronka nagusietako bat "elebidun hartzaile" horiei euskaldun aktibo izateko bide eraginkorrak eskaintzea da, erabilera aukera horiek sendotuz. Eskola, esaterako, ez da "ezagutza" ematera mugatu behar, "trebatzeko" aukera ere eskaini behar du (ezagutu-erabili-trebatu).

5.3.3.- Erabilera


Hizkuntza-jabekuntzaren azken jomuga erabilera izan ohi da. Dena den, kasu batzuetan baliteke ikasleek sentitzen duten premia ez izatea hori, baizik eta gaitasuna lortzearekin asebeteta gelditzea. Adibidez, ikasketa edo lana tarteko, ikasle batzuen azken jomuga hizkuntza-eskakizun maila bat egiaztatzeko nahikotasun mailara iristea da. Horrela balitz ere, jakina da gaitasuna eskuratzerakoan erabilerak zein eragin handia duen. Edozein kasutan, posible litzateke ikasleak bere asmo propioaren atzetik joatea ere, eta aldi berean, ahalegin hori euskararen komunitatea hedatzearen eta sendotzearen mesedetan izatea. Hortaz, argi gelditzen da hizkuntza-erabileren inguruko gorabeherak ezagutzea zein probetxugarri gerta daitekeen.

Horretarako, egoera elebidun edo eleanitz batean, hizkuntza bat erabilia izan dadin nolako bermeak behar diren azaltzen duen eredu bat baliatuko dugu (Martínez de Luna, Suberbiola eta Basurto, 2009: 163-195). Originaletik, Iñaki Martínez de Luna (2015) Hizkuntza Plangintza graduondoko "6.1. *Euskaren erabileran eragiten duten faktoreak*" ikasgairako aldaketa batzuk egin zituen. Ondorengo lerroetan, hitzez hitz, aipatuko ditut berauek (Iñaki Martínez de Luna, 2015):

Egoera elebidun edo eleanitz batean hizkuntzetako bat erabilia izan dadin, bete behar diren baldintzak hiru mailatan sailkatuko ditugu. Maila bat, indibiduala edo

norbanakoa da. Beste biak, aldiz, sozialak: maila mikrosozialekoa bata, eta maila makrosozialekoa bestea. Hiru dimentsio edo maila horiek elkarri eragiten diote eta, era horretan, continuum bat osatzen dute.

Hiru maila horietako baldintzek zerikusia dute planekin. Hemen, dugun aztergaira egokituz, maila makrosoziala azaltzeari ekingo diogu lehendabizi, norbanako mailarekin segituz eta, azkenean, maila mikrosozialarekin bukatuz.



Gizartearen dimentsio makrosoziala

Gizarteko maila makroaz hitz egiten dugunean, Joshua Fishmanek definitu zituen gizarteko jardungunez ari gara; hau da, dimentsio orokor eta objektiboaz ari gara. Norbanakoarengandik eta bere hurileko egoeretatik haratago ematen da, eta bere baitan biltzen ditu maila mikrosozialekoak diren egunerokotasuneko gizarte egoerak (Fishman, 1979: 73-75). Azken buruan, nolako baldintzak hizkuntza baten maila makrosozialeko jardungunetan, halako aukerak hizkuntza hori erabilia izan dadin maila mikrosozialeko egoeretan.

Gizartearen dimentsio makrosozialean honako osagai hauek aurkitzen ditugu nagusiki: a) estatus juridikoa; b) gizartearen babes maila; c) hizkuntza politika.

Norbanako dimentsioa

Norbanako dimentsioan nagusiki bi osagai aurki ditzakegu: gaitasun erlatiboa eta motibazioa. Ukipean egoeran dauden hizkuntza batzuen hiztunek hizkuntza

horietako baten alde egin dezaten, maila indibidualeko baldintza horiek nahikotasunez bete beharko dituzte, Sánchez Carrión “Txepetx”-ek adierazi zuen bezala (Sánchez Carrión, 1991: 35-64).

Hizkuntzaren gaitasunetik edo ezagutzatik hasita, beharrezkoa da gutxieneko maila bat izatea. Baina ez hori bakarrik. Beharrezkoa –edo komenigarria, gutxienez da, halaber, gaitasun hori ukipen egoeran dauden beste hizkuntzetan dugun gaitasun mailaren parekoa edo hobe izatea. Hau da, hizkuntzaren ezagutza erlatiboari erreparatu behar zaio; izan ere, oso litekeena da pertsonak, bi edo hizkuntza gehiago jakitean, hautatzea espontaneoki errazen suertatzen zaiona, horretaz kontziente izanda ala ez.

Horrekin batera, beharrezkoa da ere hizkuntza horren aldeko motibazioak eta jarrerak izatea, horiek edozein oinarri dutela ere: pragmatikoa, sinbolikoa, integratzailea edo besteren bat. Motibazio eta jarrera horiek kontzienteak ala inkontzienteak izan daitezke. Aldeko motibazio eta jarrerak mota askokoak badira, handiagoa izango da hizkuntza horretara jotzeko pertsonak sentituko duen bulkada.

Motibazioen mundua korapilatsua da eta norberaren baitan osatzen duten sistema ongi ezagutzeko zailtasunak egon daitezke. Motibazioen maila kontzientea aitortua izan daiteke, baina ez beti. Hortaz, kontrako motibazio edota jarrerak daudenean, batzuetan isilpean gorde daitezke. Areago, gure baitan biltzen diren motibazio aldeko edota kontrako guztiak ez ditugu guk geuk ere ezagutzen; motibazio ez-kontzienteak dira (emoziozkoak, adibidez) eta, hortaz, kontziente bihurtu bitartean adierazteko zailak.

Euskara ikasten ari den pertsona heldu baten kasuan, bi osagai horietako bat – gaitasun erlatiboa ez da oso sendoa izango, baina gabezia hori beste osagaiaren kemenarekin motibazio nahikoarekin konpentsa dezake. Beste ikasle batzuek, aldiz, erabilerarako gaitasun nahikoa –gastelaniaz dutena baino apalagoa bada ere izan arren, ez dute euskara baliatuko haien harremanetan, gaitasun aldetik dituzten mugak –adibidez, lotsa gainditzeko ahalmenik motibazio nahikorik izan ezean.

Dena den, hiztuna gaituak direnen motibazio nahikotasunak ez dakar berez erabilera. Izan ere, norberaren mailatik harago badaude betebeharrezko bestelako baldintzak ere. Hortaz, oso posible da aldeko jarrerak isla zuzenik ez izatea erabileran, Cooperen arabera: *“La normalización lingüística tiene más*

probabilidades de éxito en cuanto a las actitudes que en cuanto a los comportamientos.”(Cooper, 1997: 217)

Gizartearen dimentsio mikrosoziala

Gizarte dimentsio mikrosozialean egoerak ditugu, Joshua Fishmanek definitzen dituen bezala. Gizarte egoerak hiru osagai zehatz eta jakinak biltzen ditu bere baitara: harreman funtzionala, kokapena eta denbora tarteak. (Fishman, 1979: 69). Egoera egunerokotasunaren bitartez gorpuzten eta gauzatzen da, ohiko funtzio sozial guztiak aurrera atera ahal izateko osatzen ditugun harreman-sareen bidez: etxean edo familian, laneko esparruan, lagunen artean, aisialdiko kideekin ari garenean, e.a. Hizkuntzaren erabilera, azken buruan, maila honetan gauzatzen da; ikuspegi horretatik, maila makrosoziala eta norbanako maila bigarren plano batean gelditzen dira.

Fishmanek aipatutako gizarte egoeretan osatzen diren harreman-sareek hiru baldintza ezberdin bete behar dituzte hizkuntzaren erabilera ahalbidetzeko: solaskideen ageriko gaitasuna, harremanen trinkotasuna eta hizkuntza-hautua egiteko ahalmena.

Aurrez aipatutako norbanakoen gaitasunaz eta motibazioaz gain, Amonarrizek diosku hizkuntza jakin bat erabili ahal izateko, maila mikrosozialean beharrezkoa izango dela beste baldintza hauek ere betetzea: a) harreman sare horietan hizkuntza bera partekatzen duten beste pertsonak egotea; b) hiztunak beste hiztun horiek hizkuntza horretako hiztun gisa identifikatzea, alegia, hizkuntza horretan aritzeko gai direla jakitea; c) talde batez ari garen kasuetan, beharrezkoa izango da taldeko kide gehienak hizkuntza horretan aritzeko gai izatea ere (Amonarriz, 1991: 40-41).

Baldintza horiek egoera sozial jakin batean betetzen badira, orduan izango da posible hizkuntza horretan arituko den harreman sarea osatu eta mantentzea. Dena den, ez da nahikoa aipatutako baldintzak betetzen dituen hiztun kopuru handia. Hiztun horiek dituzten elkarren arteko harremanek trinko ehunduta izan behar dute; era horretan hizkuntza komunitatea edo azpi komunitatea osatuko dute.

Badago horiez gain, ordea, analisi-eredu teorikoan aipatzen den hirugarren baldintza bat: hizkuntza-hautua egiteko ahalmena. Ahalmen hori, norberaren eta solaskideen hizkuntza-gaitasunetik eta motibaziotik harago, botere harremanen menpe dago. Alegia, hizkuntza hautua, neurri handian, botere harremanen

araberakoa izango da. Familiako hizkuntzan gurasoek seme-alabei ezartzen dieten bezala, lantokian nagusiak eta talde-buruak dira hautua egiten dutenak eta normalean beste langileek men egiten dute. Eskolan, irakasleak ezatzen du erabili beharreko hizkuntza; eta abar.

Solaskideen ageriko gaitasuna: Amonarriek aipatutako lehenengo eta bigarren baldintzak, hauek ziren: “sare horietan hizkuntza bera partekatzen duten beste pertsonak egoteaz” eta “hiztunak beste hiztun horiek hizkuntza horretako hiztun gisa identifikatzea, alegia, hizkuntza horretan aritzeko gai direla jakitea”.

Solaskide dugun horren ezaugarri linguistikoak ezagutu ezean, gurean dagoen idatzi gabeko gizarte arauak erdarara jotzea agintzen digu; adibidez, saltokietako lankide eta bezeroen arteko kontaktuan, aurrez aurre, telefonoz edo internet bidezkoan. Halakoetan, soilik militantzia handiko euskaltzaleek, arau horri aurre eginez, hitz egingo dio euskaraz ezezagunari. Beste zirrikitu bat zabaltzen zaio euskarari hizkuntza-paisaiak (errotuluek, kartekek, oharrek osatzen duten seinaletikak) zilegitasuna aitortzen badio hizkuntza horri; alegia, egoera horretan euskarak horretan presentzia nabarmena badu.

Harremanen trinkotasuna: Aurreko puntuan esandakoekin batera, eredu teorikoan aipatu den bigarren baldintza ere tartean dago; Amonarriek horrela definitutakoa, hain zuzen: “taldeko kide gehienak hizkuntza horretan aritzeko gai izatea”.

Ohikoa da, adibidez, euskaldunak eta erdaldunak egoera berean nahastuta jardutea. Halakoetan, ezinezkoa da egoera horretan denek partekatuko duten hizkuntza euskara izatea. Kasurik hoberenean, bakan batzuen arteko harreman mugatuetan erabiliko da.

Hautua egiteko ahalmena: Arestian esan bezala, hizkuntza hautua botere-harremanen araberrakoa erabaki ohi da, neurri handian. Ildo horretatik, Cooperen hitzak ekarriko ditugu lerro hauetara: La planificación lingüística puede iniciarse en cualquier nivel de la jerarquía social, pero es poco probable que dé resultado a menos que las élites o las contra-élites la acepten y la promuevan. (Cooper, 1997: 216)

Adibidez, taldeko lan-bilerak ezin ahalko dira euskaraz izan. Baina, hierarkia formalaz kanpo ere, botere harremanak maila informalean ere agertzen dira. Talde guztietan –lagun koadrilak, barne daude eragin handiko pertsonak eta giro horretan ezer bultzatzeko gauza ez direnak; bestela esanda, taldearen izaera eta funtzionamendua markatzen dituztenak eta horietara egokitzen direnak. Azken buruan, formala nahiz informala izan, egoera batean lidergoan dauden pertsonek markatzen dute hizkuntza-hautua.

Euskararen erabilera eragozten duten arrazoiak

Erabileran eragiten duten faktoreak aztertu ostean, euskararen erabilera eragozten duten arrazoiak erreparatuko diegu. Hauek dira Martínez de Lunaren lanaren arabera euskararen erabilera eragozten duten arrazoi nagusiak:

EUSKARAREN ERABILERA (ETA ERABILERA EGOKIA) MUGATZEN EDO ERAGOZTEN DUTEN BALDINTZAK

Euskara norbanako mailan

- Gaitasuna
 - Gaitasunik ez dutenak gehiengoa dira.
 - Euskaldun askoren gaitasun erlatibo eskasa.
 - Lekuan lekuko aldaera edo euskara batua ez jakitea.
- Motibazioa
 - Interes apala.
 - Motibazio izanarazleen ahulezia.
 - Trukeordaineko motibazio apala.
 - Euskarazko 'gizarte arrakasta'-ren eredurik eza.

Euskara gizarte egoeren mailan (gizartearen maila mikroan)

- Baldintza
 - Euskaldunen familia eta kale ingurune erdaldunak.
- Harreman sareak
 - Euskarazko harreman sarerik eza.
 - Euskarazko harreman sare berriak osatzeko zailtasuna

Euskara gizarte eremuen mailan (gizartearen maila makroan)

- Hizkuntzaren
 - Euskarak ez du estatus ofizialik edo ez behar ageriko bezalakorik.
- onarpena
 - Euskararen estatusik eza gizarte eremuetan.
- Hizkuntzaren
 - Funtzioen aldetik, euskara bigarren mailako

erakargarritasuna hizkuntzaren irudia.

eta ospea

- Baserriari atxikitako irudia, ez modernitateari.
- Irudi politizatua eta marjinaltasunari lotua.

(Martínez de Luna, 2004)

Pertsona batek hizkuntza bat zergatik erabiltzen duen edo ez duen erabiltzen argitzea faktore askoren baitan dago. Faktore horietako batzuk pertsonalak dira eta beste batzuk berriz, sozialak.

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako “*Euskararen Jarraipena*” (Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailordetza, 1995) lanean jasota dago euskaldunok euskara erabiltzeko edo ez erabiltzeko gehien eragiten duten faktoreak hauek direla:

1) Norberaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea. Zenbat eta gehiagok euskaraz jakin norberaren harreman-sarean (adibidez, familian, lagunartean edo lanean) orduan eta handiagoa da euskararen erabilera. Nolanahi ere, bada gutxieneko edo atalaseko maila bat, euskaraz hitz egiteko ez baita aski solaskideen “erdiek” edo “edo erdiek baino gehiagok” euskaraz jakitea: beharrezkoa da “denek edo ia denek” euskaraz jakitea.

2) Norberak euskaraz eta erdaraz hitz egiteko duen erraztasuna. Euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten dutenek erdaraz errazago mintzo direnek baino askoz ere gehiago egiten dute euskaraz.

3) Norbera bizi den herriko euskaldunen dentsitatea edo gune soziolinguistikoa. Zenbat eta handiagoa izan norbera bizi den herriko euskaldunen dentsitatea, orduan eta handiagoa da norberaren euskararen erabilera. Gune soziolinguistikoa eta euskararen bizitasun etnolinguistikoa elkarri hertsiki loturik daude. Demografiaren, politikaren, ekonomiaren eta kulturaren ikuspegitik, euskarak gune soziolinguistiko bakoitzean duen indarra oso ezberdina da.

4) Euskararekiko interesa eta jarrera. Zenbat eta aldekoagoa izan euskararekiko jarrera, orduan eta handiagoa da euskararen erabilera.

5) Euskarazko irratia eta telebistaren emanaldiak entzun edota ikustea. Zenbat eta gehiago entzun edo ikusi, orduan eta gehiago erabiltzen da.

6) Adina. Oro har, zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta gehixeago egiten da euskaraz.

Beraz, euskal hiztun egiten ari direnen hizkuntz jokaeran eragin nahi izanez gero, faktore hauek oso kontuan izan beharko ditugu. Gogoan izan behar da 1. eta 3. faktoreak sozialak direla eta 2.a eta 4.a, berriz, pertsonalak.

Labur esanda, *Berriketan* programaren jomuga 1. faktorean (euskaltegiz kanpoko euskarazko harreman-sareak eskaintzea) eta 4. faktorean (euskararekiko motibazio indartzea) eragitea da. Euskaltegietan ematen diren eskolen zeregin nagusia, aldiz, 2. faktorean (euskararen ezagutza ahalik eta sendoena lortzea) eragitea da.

Hizkuntzaren azterketa 3 planotan

“Txepetx”ek dio hizkuntza bat aztertzen dugunean hiru plano izan behar ditugula kontuan, HIZTUNA, HIZKUNTZA KOMUNITATEA eta HIZKUNTZA bera, edo beste hitz batzuekin esanda, PERTSONA, GIZARTEA eta LURRALDEA. Hiru plano horiek elkarri eragiten diote, hau da, hiru maila hauen arteko interakzioak eragin zuzena du hizkuntzaren erabileran.

Pertsona edo hiztuna: Bakoitzaren kasu partikularra da hau. Bakoitzaren hizkuntzazko jarrera eta portaera aztertu behar da, hau da, zein mailatan dagoen pertsona hori hizkuntzarekiko motibazio, ezagutza nahiz erabilerari dagokionez. Arrazoiak ezberdinak izan daitezke: hiru faktoreetan nahikotasun mailatik gora egotea, motibatua egon arren hizkuntza ohiko egoeratan erabiltzeko adina ez dakielako, beldurra duelako, inguruan nork lagundu ez duelako, lotsa duelako, gutxik jarraitzen diotelako, dakien euskara baloratzen ez duelako,...

Gizartea edo hizkuntza komunitatea: Hitzunek elkarren arteko harremanen bidez taldeak edo sareak osatu ohi dituzte. Talde horietako euskal hitzunen dentsitateak baldintzatuko du, beste faktore batzuen artean, euskararen erabilera.

Hizkuntza komunitatea kontzeptu klabea da bai soziolinguistikan bai hizkuntzaren soziologian. Izendatzeko hainbat modu dauden arren (hiztun komunitatea, hitzun taldea, ...) euskaraz nagusitu den izendapena hizkuntza komunitatearena da. Ingelesez speech community da eta hortik beste hizkuntza guztietara egin du salto (Wikipedia, 2013).

Hizkuntza komunitatea definitzeko ere hainbat eta hainbat modu daude. Osatuenetarikoa, aldiz, Mari Jose Azurmendik (Azurmendi, 1987:265) emandako definizioa da. Horren arabera, hizkuntza komunitate batek nahitaez hainbat osagai izan behar ditu, hizkuntza komunitatea izateko. Honako hauek dira osagaiak:

- Ingurune eta lurraldetasun politiko-juridiko-sozial jakin batean kokatua egon behar du.
 - Hitzun multzoa izan behar du.
 - Funtzionatzeko norma komunitario bereziak izan behar ditu hitzun multzo horrek.
 - Hitzun multzo horrek erabili egin behar du delako hizkuntza. Jakitea ez da nahikoa (adibidez, latinak ez du hizkuntza komunitatea osatuko, erabiltzen ez delako).
-
- Hitzun multzo horrek jarrera eta ekintza komun batzuk egin behar ditu (adibidez, Euskal Herrian dauden hiru islandiarrek ez lukete osatuko hizkuntza komunitatea elkarrekin jarduten ez badute).

Txepetxen iritziz, oso garrantzitsua da hizkuntza-komunitatea. Hitzuna, hizkuntza eta gizartea lotzen dituen unitate soziala da hizkuntza-komunitatea.

Joshua Fishmanek sintesi interesgarri bat egin zuen (Fishman, 1971). Zalbidek horrela laburbiltzen du Fishmanen definizioa (Zalbide, 2006):

“Hizkuntza-komunitatea: aurrez aurreko interakzio linguistikoz (mintzajardunez, idatziz...) edota hiztun guztien integrazio sinbolikoaz, gutxien-gutxienez aldaera bat konpartitzen duten hiztun guztien multzoa da, hiztun-elkartea”.

UZEIren definizioa aldiz, honakoa da:

“Hizkuntza-komunitatea: lehen hizkuntza bera duten edo hizkuntza berean mintzatzen diren pertsonen multzoa. Soziolinguistikak aztertzen duen unitate sozial nagusia da”. (UZEI, argitaratu gabe: 22).

Euskal Herriko hizkuntza-komunitatea aztertzean, maila sinbolikoa kontuan hartzea garrantzitsua da; alegia, hizkuntza-komunitatearen partaidea izateko zein ezaugarri behar den edo partaide izatea Euskal Herriko biztanleriak nola definitzen duen aztertzea. Zentzu horretan aipagarria da Nekane Jausorok eta bestek “euskararen atxikimendu-komunitatea” deitu zutena. Talde horretan euskaraz aritzeko gaitasuna izan gabe, euskararen normalizazioaren aldeko jarrera zuten erdaldunak sartzen dira. Zonalde batzuetan, batez ere erdaldunetan, garrantzi handia izan zuten, beraiek sortu eta sustatu baitzituzten, adibidez, ikastolak eta gaueskolak (Jausoro eta beste, 1998).

Analisi hau egiten bada, ikusten da maila sinbolikoa gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dela. Izan ere, euskaldunen hizkuntza-komunitatearen partaide izateko borondatea da behar den ezaugarri nagusia biztanleriaren gero eta zati handiagoarentzat.

Lurraldea edo hizkuntza: Hizkuntza denek bere lurraldea edo eremua behar du, eremu fisikoak nahiz hizkuntzak bete beharreko funtzioek osatzen dutena.

Hizkuntza bat erabiliko bada hiztunak behar dira, baina hiztunak izateak ez du beti bermatzen hizkuntza erabiliko denik.

“Euskararen jarraipena” lanean erabiltzen diren hiztun tipologiak hauek dira (Askatu mingaina, 2002-2003:4):

- Euskaldun elebakarra: Euskaraz ongi hitz egiten daki eta gaztelaniaz ez daki.
- Euskal elebidun hartzailea: Euskaraz ongi hitz egiten daki eta gaztelaniaz zerbait ulertzen du.
- Elebiduna: Euskaraz eta gaztelaniaz ongi hitz egiten daki.
 - o Euskal elebiduna: Euskaraz gaztelaniaz baino hobeto hitz egiten daki.
 - o Elebidun orekatua: Euskaraz eta gaztelaniaz berdina hitz egiten daki.
 - o Erdal elebiduna: Gaztelaniaz euskaraz baino hobeto hitz egiten daki
- Erdal elebidun hartzailea: Gaztelaniaz ongi hitz egiten daki eta euskaraz zerbait ulertzen du.
- Erdaldun elebakarra: Gaztelaniaz ongi hitz egiten daki eta euskaraz ez daki.

Izan ere, erdal elebidunek (gaztelaniaz euskaraz baino hobeto hitz egiten dakitenek) gehienetan gaztelaniaz hitz egin ohi dute, elebidun orekatuek batean zein bestean eta, euskal elebidunek, berriz, gehienetan euskaraz egiten dute.

Faktore honetaz gain, ordea, esan dugun gisara, erabilerarako inguruneak eskaintzen dien aukera ere oso garrantzitsua da.

Euskaltegietan, azken helburua ikasleak elebidunak izatera iristea bada, eskola-orduz kanpo ere, motibazioa eta erabilera indartzeko ahaleginak egin beharko dira. Hainbat faktore sozial eta pertsonalek eragingo dute, ordea, elebidun horiek euskal elebidun, erdal elebidun edo elebidun orekatu izan daitezen.

Beste hitz batzuekin adierazita, euskaltegira joanaz hasi duten ikaskuntza prozesuaren ibilbide kultural hori ahalik eta sendoena egin behar dugu, ibilbide naturala osa dezaten, euskaldun oso egiteko bidean lagunduz.

Zirkuitua behin eta berriro zeharka daiteke. Mugimenduaren norabidea espirala da eta ez dauka amaierarik, hizkuntza bere osotasunean ikasterik ez dagoen heinean.

Euskararen kasuan ere, hiztun kopurua gakoa da haren erabileran. Euskararen erabilera parametro normalizatuagoetara ekarri nahi bada, hiztun masa kritiko gutxieneko bat izango duela ziurtatu behar da, hau da, gutxieneko hiztun kopuru bat bermatu behar da.

Hiztun horiek osatzen duten masa edo multzoa trinkotu eta sendotzea da euskara gero eta gehiago eta gero eta era naturalagoan eta berezkoagoan erabiltzeko bidea, hau da, hiztunak zenbat eta gehiago (eta zenbat eta osoago) izan, errazago izango du euskarak hiztun, esparru eta funtzio berriak eta gehiago bere egitea. Horretarako baina, euskarak bere garapen linguistiko beregaina izango badu, baldintza sozialak behar ditu, eta gainera, bere erabileraren aldeko motibazio pertsonal eta kolektiboa landu behar dira.

“Txepetx”ek “eremu sinbolikoa” deitzen dio AB eta BA hiztunek osatutako talde soziolinguistikoari.

Hiztun hauek osatuko lukete hizkuntza komunitatearen muina, eurak dira hizkuntzaren hiru faktoreetan (motibazioa, ezagutza eta erabilera) kontzientzia (motibazioa), konpetentzia (gaitasuna) eta koherentzia (erabilera) dutenak, hortaz gune horretan dago bizien eta indartsuen hizkuntza. (Arruti, 2007)

Hizkuntza komunitatea trinkotu nahi izatea, hizkuntza komunitatea berregituratu nahi izatea da, euskara komunitatearen ardatz izango den antolaketaberri baten alde egitea. Berregituraketa berri horretan AB eta BA hiztunek izan behar dute gizartearen erreferente eta eredu, horregatik, zenbat eta trinkoagoa izan eremu sinboliko horri, handiagoa izango da hizkuntza komunitatean izango duen eragina eta eraldaketarako indarra.

Beraz, honekin guztiarekin bi gauza esaten ari gara; batetik hizkuntza komunitate batek gutxieneko masa kritikoa (kantitatea) behar duela; eta bestetik, hiztun horiek ezaugarri batzuk (kalitatea) izan behar dituztela, hau da, AB eta BA hiztunak edo hiztun osoak behar ditugula, batez ere, trinkotzea abian jartzeko.

Eremu sinboliko hau osatzen duten hiztunen egitekoa izango da euskararekiko kontzientzia, konpetentzia eta koherentzia maila apalagoa dutenak muinera erakartzeko ardura, hau da Txepetxek aipatzen duen “nahikotasun mailarik” ez dutenengan eragitea.

6.- METODOLOGIA

Lehen aipatu bezala, sakontze lan hau Bergarako Berriketan programaren sustatzaileei sortutako kezka batetik abiatzen da. Lanaren azken helburua, mintzalagunek mintza taldetik kanpora euskaraz hitz egiteko dituzten oztopoak identifikatu eta aurrera begira eman beharreko pausuak zehaztea izango da. Hau da, Berriketan programak parte

hartzaileen kezka, iritzi, oztopo eta bizipenak jaso eta hauek hobetzeko asmoz, proposamenak luzatu.

Mintzalagunen beharrak aztertu eta hauei erantzun nahian, lan hau metodologia kuantitatiboa erabiliz egin da; zehatzago, informazioa jasotzeko teknika inkesta izan da. Teknika horren bidez, zenbait bidelagun eta bidelariren uste, iritzi, balorazioak eta hizkuntza-portaeraren berri jaso da. Sakontze lanaren protagonista nagusiak eurak izan dira, eurei esker ez balitz ezin izango litzateke lan hau burutu eta.

Kezka eta bizipenak jaso nahi izan direnez, bidelagun eta bidelari guztiengana iristeko biderik eraginkorrena galdetegi bat pasatzea pentsatu zen.

Galdetegian hizkuntza bat erabiltzeko orduan eragiten duten faktore ezberdinen inguruko galderak egiteaz gain, hizkuntz ohiturak aztertu nahi izan dut, egoera, esparru eta pertsona ezberdinekin hizkuntza aldetik nola jokatzeko duten aztertzea nahi izan da. Horrez gain, kontsumo ohiturei buruz ere galderak egin nahi izan dira (prentsa, irratia, zinema, antzerkia...)nagusiki zein hizkuntzatan kontsumitzen duten jakiteko.

Bukatzeko, ondorioak atera eta aurrera begira jartzeko helburuarekin, *Berriketan* programaren inguruko galderak ere egin zaizkie.



7.- EMAITZEN AZTERKETA ETA ATALEN ONDORIOAK

7.1.- INKESTA

Mintzalagunei inkesta pasatu ostean emaitzak aztertu eta ondorioak ateratzeari ekin diot. Emaitzak eta ondorioak galdetegiak dituen atal berdinetan banatuta daude, inkestan ateratako emaitzak eta ondorioak errazago lotzeko helburuarekin.

Inkesta 2015eko ekainean pasa zaie Berriketan egitasmoko parte hartzaileei. Ekaina eta uztaila bitartean osatu dituzte galdetegiak, e-posta bidez zein aurrez aurre.

Guztira 74 parte hartzaileetatik 24 lagunen erantzunak jaso dira (%32). 10 bidelagun eta 14 bidelarirena hain zuzen ere. Emaitzak ateratzeko orduan (portzentajeak, iritziak...) jasotako galdetegietatik atera ditut. Inkestaren zabalkundea mintzapraktikako dinamizatzailerak egin du, hau da, nik neuk.

7.1.1.- ALDAGAI SOZIO-DEMOGRAFIKOAK

Atal honetan mintzalagunei aldagai sozio-demografikoen inguruko datuak eskatu dizkiegu, besteak beste, euren adina, ikasketa maila eta gaur egungo egoera aztertzeko asmoz.

Adinari dagokionez, 41 eta 50 urte bitartekoak %46 dira. Atzetik daude 51-60 urte bitartekoak (%25) eta 31-40 edo 60 urtetik gorakoak (%4 eta %25, hurrenez hurren).

Parte hartzaileen perfilari dagokionez, handia da emakume eta gizonen arteko aldea. Orokorrean, mintzapraktika bezalako egitasmoetan emakumeen parte hartzea nagusi da. Bergaran, esate baterako, 74 parte hartzaileetatik %89 (66 lagun) emakumezkoa izan da eta %11 (8 lagun) soilik gizonezkoak. Galdetegia osatu duten mintzalagunak aldiz, 22 emakume eta 2 gizonezko izan dira.

Parte hartzaile gehienak Gipuzkoan jaioak izan arren (%87), bidelarien artean badago Euskal herritik kanpo ere jaiotakoa, esaterako, Holandan eta Estatu espainiarrean (Segovia, Valladolid...).

Bidelari gehienek ikasketak X (den dena gazteleraz) edo A (Euskara ikasgaia izan ezik gainontzeko dena gazteleraz) ereduari egin dituzte (%85) eta etxeko hizkuntza nagusia erdara izan dute. Hala ere badaude hainbat bidelari 3 urtera arte lehen hizkuntza euskara izan dutenak (%35) baina arrazoi ezberdinak medio euskara praktikatzeko ohitura galdu dutenak. Bidelagunen %70ak X edo A ereduari burutu ditu oinarritzko ikasketak eta %30ak aldiz, euskaraz nagusiki.

Gaur egun parte hartzaileen gehiengoak beste baten kontura lan egiten du edo pentsionista da.

ATALAREN ONDORIOAK:

Adinari dagokionez, argi geratzen da *Berriketan* egitasmoa ez dela gazteengana iristen eta ez dutela beraiei zuzendutako egitasmo bat bezala ikusten.

2012ko martxoan Bergarako gaztetxeko Gazte asanbladan *Berriketan* proiektua aurkeztu ondoren galdetegi bat pasa genien *Berriket*annon kokatzen zen ikusteko. Galdetegiak jaso ondoren hona hemen ateratako ondorio batzuk:

- Jasotako galdetegietan gehienek aitortzen zuten *Berriketan* egitasmoa ez zutela ezagutzen. Ondorioz, argi geratu zen gazteengana ez ginela iristen. Euren esparruan ez ibiltzea eta kartelak ikusi ez izana izan ziren aitortu zuten arrazoi nagusiak.
- Bestalde, gazteengan interesa sortzeko beharrezkoa ikusten zuten gazteengana gehiago hurbiltzea, kontzientzia lantzeko solasaldiak antolatzea, gazteentzat erakargarria den zerbaite antolatzea eta bide batez, informazioa zabaltzea.
- Gazteek euskararen erabileran zerbaite egin behar zela argi ikusi zuten, batez ere, kontzientzia landu behar zela, arazoa ez baita, ez dakitela edo ezin dutela egin baizik eta hainbat kasutan erdara erabiltzeko joera hartu dutela.
- Orokorrean, mikro-publizitateari (harreman zuzena) garrantzia handiagoa ematen zioten publizitate kanpaina handiei baino. Baina biak beharrezkoak zirela esan zuten, bata ez duelako bestea kentzen. Aldi berean, sare sozialen fama txarra alde batera utziz, hauek eman ditzaketen alde onez baliatzea aholkatu zuten.
- Azkenik, programa ezagutarazteko ahoz ahoko lanketaz gain sortzaileagoak izatea (antzerkiak...) eta propaganda (kartelak...) leku estrategikotan jartzea gomendatu zuten.

7.1.2.- FAMILIA

Atal honetan etxekoen hizkuntza gaitasuna eta ohiturei buruz galdetu diegu, familiako euskaldun kopurua eta zein ohitura duten jakiteko.

Bidelarien arteko %35ak hiru urte bete arte euskara izan zuen etxeko hizkuntza. Baina arrazoi ezberdinak direla medio euskara jaritasunez hitz egiteko ohitura galdu eta gaur egun mintzalagunean aritzen dira berreskuratzeko asmoz.

Bidelagun gehienak lehen hizkuntza etxean euskara izan arren, batzuek euskara eskolaz kanpo ikasi edo hobetu behar izan dute (gau-eskoletan...).

Gaitasunaren aldetik, bidelari gehienek gazteleraz euskaraz baino hobeto hitz egiten dutela aitortu dute.

Hizkuntza ohituren inguruan galdetzean, etxean euskaldunak egon arren (bikotea, seme-alabak...) gehienek gazteleraz soilik (%28) edo erdaraz nagusiki (%57) erabiltzeko ohitura dute. Euskara ez erabiltzeko arrazoien artean ohitura falta eta familiako beste kideen gaitasun eza dira nagusienak.

Bidelari bakarren batzuk egunerokotasunean euskara erabiltzen du etxean.

ATALAREN ONDORIOAK:

Orokorrean, familiako komunikazio hizkuntza bezala gaztelera finkatuta baldin badago, oso zaila egiten zaie ohitura aldatzea, are gehiago harremana estua baldin bada. Familia gutxi batzuk dira euskara egunerokotasunean erabiltzen dutenak, gehienek zerbait gehiago egiten dutela aitortu arren ez dute modu jarraian egiten.

7.1.3.- HIZKUNTZA GAITASUNA ETA PORTAERA

Euskararekin duzun harremana aztertzerakoan, nola hitz egiten duzu euskaraz eta gaztelaniaz galdetzerako orduan, bidelarien %85ak gazteleraz hobeto hitz egiten duela aitortu du, hau da, erraztasun gehiago duela gazteleraz euskaraz baino.

Ohiko lagunen artean askok euskaraz jakin, eta lagun taldean euskaldunak egon arren, orokorrean bidelariak lagunekin errazago gazteleraz hitz egiten dute, euskaraz aritzeko zailtasun edo oztopo batzuk aurkitzen baitituzte. Zailtasunen artean gehienbat ohitura falta eta besteek ez jakitea direla arrazoiak adierazi dute. Bestalde, bada euskalkia aipatu duen bakarren bat.

“Bai, izan ere, batzuek ez dakite eta beste batzuetan ez dute nahi euskaraz hitz egitea”.

“Batzuek ez dakite eta gainera ez daukagu ohiturarik”.

“Oztoporik ez. Erdaraz egiteko ohitura”.

“Euskalkia ez dakit ondo”.

“Normalean gazteleraz errazago egiten dugu gure artean”.

“Gehienek ez dakite euskaraz egiten eta dakigunok erdaraz egiten ohituta gaude”.

Bidelarien %78ak lagunekin gazteleraz errazago hitz egiten du. Egitasmoan parte hartzen hasi zirenetik, %28ak gehiago eta %57ak zerbait gehiago hitz egiten dutela aitortu dute. Aipagarria da partaideen lagunaren artean %75ak gutxi gorabehera badakiela euskaraz.

Lagun euskaldunek euskaraz hitz egiten badiete gehienek euskaraz erantzuten diote baina gazteleraz galdetuz gero, gazteleraz jarraitzen dute.

Herrian gehienek gaztelera euskara baino gehiago erabiltzen dela diote eta euskara egunerokotasunean ez erabiltzearen arrazoi nagusiak, besteak beste, batzuk ez jakitea, segurtasun falta eta euskaraz zerbait nola esaten den ez jakitea dira.

ATALAREN ONDORIOAK:

Orokorrean, bidelari gehienek gaztelania euskaraz baino hobeto menperatzen dutenez mintzalagun taldeetatik kanpo dituzten harremanetan (lagunak...) gaztelania erabiltzeko ohitura dute, komunikazioaren eraginkortasuna bermatu asmoz. Hala ere, bada bidelarien artean, euskara gaztelera baino gehiago erabiltzen dutenak ere.

Bidelari gehienek euskararen ezagutza ikaskuntza kulturalaren bidez jaso dute eta erregistro informalean euskara modu natural, eroso eta adierazgarrian erabiltzeko oztopoak izaten dituzte. Sentimenduak, ideia, iritziak... adierazteko orduan bidelari askok gaztelera jotzeko joera dute erosoago eta errazago komunikatzen baitira. Erregistro natural (euskalkia) eta kulturalaren (batua) artean ezberdintasun handia dago. Euskaltegian ikasi duten bidelariak, euskara batua ikasi dutenez, eremu informalean (kalean..) ikasitakoa praktikan jartzeko hutsunea aurkitzen dute, hau da, bidelariak erregistro guztiak ez dituztenez dominatzen, lagunekin... euskaraz hitz egiterako orduan euskalkia ez dominatzea oztopo bilakatzen da bidelari batzuentzat.

Gure eremu soziolinguistikoan euskalkia menperatzeak erraztu egiten du euskararen erabilera eremu informalean.

Bidelariak euren gaitasun falta ere ikusten dute arrazoi nagusi gisa: gazteleraz duten gaitasuna euskaraz dutena baino handiagoa izanik, ez dute euren burua gai ikusten testuinguru batzuetan erabiltzeko. Mintzalagun taldeetan aldiz, euskara praktikatzeko konfiantza guneak izanik, orokorrean oso eroso sentitzen dira euskaraz hitz egiterako orduan, ez baitute beldurrik akatsak egiteko...

7.1.4.- ESPARRU JAKIN BATZUETAKO ERABILERA

Atal honetan mintzalagunek euskara erabiltzeko dituzten erabilera-esparruak eta testuinguruak aztertu nahi dira: egoera ezberdinetan eta norekin hitz egiten duten bidelariak euskaraz eta teknologia berriak, hedabideak.. zein hizkuntzatan kontsumitzen dituzten.

Ezagun euskaldunekin bidelari gehienek euskaraz erdaraz baino gehiago hitz egin arren, ezezagunen kasuan gehienek ia beti erdaraz egiten diote. Kalean orokorrean, erdaraz euskaraz baino gehiagotan aritzen dira baita telefonoa hartzerakoan.

Bidelariak euskaraz gehienbat merkatarik euskaldunekin aritzen dira.

Mintzalagunen kontsumo ohiturei buruzko galdera egiterako orduan, prentsa, irratia, literatura, telebista, musika... ia beti erdaraz entzun, irakurri edo ikusten dute. Baita ere sare sozialak eta teknologia berriak.

Hala ere, mintzagunean hasi zirenetik, esaterako, telebista, irratia, prentsa eta teknologi berriak lehen baino zerbait gehiago erabiltzen dituzte euskaraz. Beraz, *Berriketanen* egiten duten ahalegina kontsumo ohituretan ere islatzen da. Dena den, oso gutxi dira euskarazko literatura, musika.. euskara hutsez kontsumitzen dutenak.

ATALAREN ONDORIOAK:

Zenbait alorretan kultura euskaraz kontsumitzeko aukera txikiegia (telebista, zinema...)

7.1.5.- AISIA

Aisiaren atalean mintzalagunek denbora librean non ematen duten eta lekua hauetan euskara erabiltzeko dituzten oztopoak eta zer egin dezaketen galdetuko zaie. Bidelari askok denbora librean kalean edo ibiltzen ematen dute. Gehienek aitortu dute gazteleraz aritzen direla eta arrazoia behin baino gehiagotan irten den ohitura da.

Zerbait egin nahi duten galdetzean gehienek ezetz esan dute eta baietz erantzun duenak irtenbide gisa euskaraz gehiago hitz egitea esan du.

%64a ados edo guztiz ados dago hizkuntza-ohiturak aldatzea norberaren esku dagoela aipatzean, %22-k zalantza du eta %14a ez dago ados.

Bidelariak, euskaraz komunikatzeko, hizkuntza ez galtzeko eta besteak beste, integratzeko balio duela adierazi dute

ATALAREN ONDORIOAK:

Mintzapraktika programen jarduera aisialdiarekin lotuta dago, aisialdi denboran garatzen da, ekimen atsegina da, askea, norberaren ekimenez eta motibazioz egiten dena.

Orokorrean, gure denbora librea gustuko gauzak egiten pasatzen dugu (ibiltzen, kalean, elkartean...). Gune hauetan euskara txertatzea lortuko bagenu, euskara bizipen positiboekin lotu eta hizkuntzarekiko atxikimendua gozamenetik lortuko genuke.

Euskararen erabilera bizipenekin lotzean, sentimenduak eta emozioak komunikatzeko tresna eraginkorra izan daiteke eta honela euskara gure izaeraren parte egingo genuke.

Berriketan bezalako egitasmoek, eremu informalean euskara erabiltzeko aukera eskaintzen dutenez, euskaraz gozatzeko aukera eskaintzen da. Azken batean, sentimenduak eta bizipenak trukatzuz hizkuntzarekiko atxikimendua areagotzeko aukerak ugaritu egiten dira

Orokorrean, erabiltzen dutena baino gehiago erabiltzea gustatuko litzaieke, baina ohitura falta dutela ere adierazten dute. Ohitura hauek norberaren esku ere egon arren, kosta egiten zaiela aldatzea, batez ere, harremana beste hizkuntza baten gauzatu denean.

7.1.6.- HIZKUNTZA JARRERA

Atal honetan, euskaraz jakitea edo ikastea beharrezko edo komenigarri ikusten duten aztertuko dugu, ea gizartean euskara bultzatzeko nahikoa egiten dela ikusten duten, euren ustez zer egin beharko litzatekeen euskara bultzatzeko eta eurak zer egiteko prest dauden horretarako.

Hizkuntza jarrera aztertzerako orduan, azken urtebetean alderik igarri duten herria euskararen erabilerari dagokionez galdetzean, bidelari zein bidelagun gehienek sententzia dute orokorrean azken urteetan Bergaran ez dela euskara gehiago entzuten. Hona hemen eurak aipatuta hainbat arrazoi:

“Gazteak handitzen direnean gaztelerazko joera dute”.

“Nire inguruan aldaketarik ez dut igartzen, onera ez behintzat”.

“Bergaran ezagutza maila handia dago. D ereduan ikasten da baina hau ez da igartzen erabileran. Erabilera ez doa erritmo berdinean”.

“Haur gehiagok euskara jakin arren, geroz eta gaztelera gehiago erabiltzen dute”.

Parte hartzaile askok euskara polita eta interesgarria dela deritzote. Mintzalagunen artean gutxi batzuk moduren batean gaztelera nahiago duten arren, gehiena ez dago ados.

Askoren ustez euskara hizkuntza modernoa bada ere, zaila dela diote.

Euskara orokorrean jakin beharreko hizkuntza bezala ikusten dute. Gehienek uste dute herriak euskaraz funtzionatu beharko lukeela eta besteak beste, administrazioan guztiek jakin beharko luketela euskaraz. Bidelari batzuen ustez euskara hautazkoa izan behar da, hau da, herritarrek gaztelera zein euskara erabili ahalko dute.

ATALAREN ONDORIOAK:

Euskararen inguruko uste eta aurreiritzi batzuk ere eragina dute eta euskararen erakargarritasunari ez diote mesederik egiten.

Gutxi batzuen ustez, euskara 2. mailako hizkuntza da. Gaztelerak balio gehiago du, denek ulertzen baitute. Orokorrean, euskaraz dagoen ia guztia gazteleraz ere badago, aldiz, gazteleraz dagoen guztia ez dago euskaraz.

Batzuek diote euskara ikastea kosta egiten dela eta hizkuntza zaila dela. Honek euskara ikasteko beldurra sortzen du eta kalte egiten dio euskarari eta euskaldunei.

Administrazioko hizkuntzari dagokionez, euskararekin eredu izan behar du. Koherentziaz jokatu behar du esaten eta egiten duenarekin. Hau da, alferrikakoa da herritarrei euskaraz bizitzeko gomendioa luzatzea etxe barruan ez badu horrela bizitzeko neurriak hartu eta pausuak ematen.

Bergara datu soziolinguistikoen arabera, herri euskalduna izanik integratzeko eta euskal kultura ezagutzeko jendeak euskara ikasten du. Baina gaztelera bakarrik ezagututa ere, lasai asko bizi zintezke.

7.1.7.- IDENTITATEA

Identitateari dagokionez, denak ados daude Euskal Herriko nortasuna mantentzeko euskara beharrezkoa dela eta guztiz ados daude gehienak euskarak talde sozial baten integratzeko balio duela galdetzean.

Erdaldunek gehiago baloratu beharko luketela uste dute eta era berean, bai bidelagun eta bai bidelari gehienek ustetan euskaldun guztiek jakin eta hitz egin beharko luketela euskaraz.

Euskara ez dakiena ez den euskalduna inguruan zalantza asko sortzen dira, izan ere hitz hau modu askotara interpretatu ahal da. Batzuen ustez, euskalduna izateko euskaraz jakin behar duzu. Beste batzuen ustez ordea, euskalduna ez da euskaraz dakiena soilik.

ATALAREN ONDORIOAK:

Identitatea askotan doa lotuta sentitzen duzunarekin. Euskara ikasten ari dena talde bateko kide sentitzen ez bada eta euskaldunok ere taldeko kide bezala ere ez badiogu onartzen, frustantea gerta daiteke.

7.1.8.- BERRIKETAN PROGRAMA

Mintzapraktiken berri, bidelagun gehienek herriko euskara elkar-tearen bidez edo lagunen batek esanda, bidelaguneren batek ere haserako eraketan parte hartu zuen. Bidelariak ordea, euskaltegian edo aurkezpen hitzaldi batean izan dute egitasmoaren berri.

Bidelagunen motibazioen artean “euskaraz bizi nahi izatea”, euskaren normalizazioan laguntzea” eta “euskararen aldeko ekarpena” dira eragin handiena izan duten faktoreak. Bestalde, bidelarien kasuan, “ikasitakoa ez galtzea” eta “euskara maila hobetzea” motibo indartsuenak dira. Era berean, euskararen normalizazioan lagundu nahi dute zenbait bidelarik. Orokorrean, EGA edo beste titulu ofizialen bat lortzeko beharrak ez du eraginik izan.

Mintzalagun prozesuan nola sentitu diren galdetzean bidelagunek ondo, pozik eta gustura sentitu direla azaldu dute.

“Oso gustura eurei ahal den neurrian laguntzeko, eurak ere beste eremu batzutan euskaraz egin dezaten”.

“Gustura, egitasmoaren parte eta euskararen normalizazioaren aldeko aurrerapausoak ematen”.

“Oso ondo. Giro polita daukagu eta berbalagunak saiatzen dira euskaraz berba egiten”.

Baina bakarren bat ezkor ere azaldu da.

“Ondo. Baina batzuetan desanimatuta, nik nahi baino aurrerapen gutxiago ikusten dudalako hizkuntzari dagokionez”.

Bidelariak aldiz, eroso eta euskara maila hobetu dutela aipatu dute.

“Asko ikasi dut, hitz egiteko erraztasuna hartu dut”.

“Ondo. Hobetzen ari naiz. Baina azken urte honetan gutxi geratu gara”.

“Hobeto. Baina oso zaila da”.

Laburbilduz, bidelagunei Mintzapraktika egitasmotik gehien gustatzen zaiena taldearekin elkartu, euren arteko giroa eta elkarri laguntzea da.

“Herrian euskararen/euskaldunen sarea zabaltzen doala ikustea”.

“Euren saiakera eta gogoia euskara hobetzeko”.

“Ikasitakoa praktikan jartzen laguntzea”.

“Euren hobekuntza ikustea”.

“Elkartu eta modu atsegina batean euskaraz praktikatzeko laguntzea”.

“Gure artean dagoen giroa”.

“Kafea hartu eta berba egitea”.

“Irteerak. Euskara praktikatzeko”.

Orokorrean, mintzalagunak oso pozik daude egitasmoarekin, eta gehienek 7tik gorako puntuazioa ematen diote. Era berean, mintzalagunen ustez onak edo oso onak dira taldeko giroa (%37 eta % 59, hurrenez hurren eta %4 erdipurdikoa), parte hartzea (%9 erdipurdikoa, %54 ona eta %37 oso ona), dinamizatzailearekin harremana (%49 ona eta %51 oso ona), egitasmoaren buruz jasotako informazioa (%58 ona eta %42 oso ona) eta ikasturtea orokorrean %5ak erdipurdikoa, %50ak ona eta %45ak oso ona baloratu du.

Arrazoiaren artean hona hemen bidelagunek aipatutako batzuk:

“ Euskaldun kopurua handitzen delako”.

“Egitasmoaren filosofia eta funtzionamenduarekin ados eta pozik nago baina pena ematen dit bidelariengan aurrerapen nabariagoak ez somatzeak”.

“Dena hobetu daiteke, baina ahaleginak ikusten ditut”.

“Nik eurengatik ahalegintxo bat egiten dudalako, eta haiek beste pauso bat ematen dutelako”.

Helburuen inguruan galdetzean, gehienek izena ematean zituzten helburuak lortu dituztela esan arren, helburuak lortu ez duenik ere bada:

“Oraindik ez ditut helburuak lortu, horregatik nire asmoajarrantzea da. Euskaraz hitz egiteko”.

Bidelariek egoera eta esparru berrietan euskaraz hitz egitean zein zailtasun aurkitzen duten galdetzean hauek izan dira erantzunak:

- Konfiantza gutxi daukat nire buruarengan (beldurra, segurtasun falta...) %71
- Aurrekoak pazientzia gutxi dauka %7
- Nire euskara ez da ona eta lotsa ematen dit %14
- Besterik %8

Bidelarien zailtasunen dagokionez, bidelagunei honen inguruko iritzia galdetzerako orduan konfiantza gutxi, lotsa eta segurtasun falta dira nagusi. Elkarrizketa jarraitu ezin izana eta taldeak erdaraz egiteak ere aipatu dituzte. Bestalde, gehienek aipatzen dute Berriketanen hasi zirenetik aurrerapauso batzuk eman dituztela, besteak beste, lasaiago eta errazago hitz egiten dutela, konfiantza hartzen dutela eta talderen batean euskalkia erabiltzen ere hasiak dira.

Bidelagunen ikuspegitik bidelariek egoera eta esparru berrietan aurkitzen dituzten zailtasunen artean, besteak beste, ohitura, segurtasun falta eta beldurra aipatu dituzte.

“ Taldeak erdaraz hitz egitea”.

“Elkarrizketa ezin jarraitu izatea”.

“Askotan hizkuntzarekin segurtasun falta. Baina hasten direnean asko saiatzen dira eta soltatzen joaten dira”.

“Konfiantza falta, pazientzia gutxi eta lotsa” .

Honen inguruan euskaldunok animatu eta euskaraz hitz egin behar diegula aipatu dute.

“Pazientziaz jokatu eta animatu euskaraz berba egitera. Lehen hitza beti euskaraz egin, honela jendeak errazago jarraituko du euskaraz”.

“Gu beti lehengotik euskaraz zuzendu beraiegana eta animatu euskaraz egin dezaten, era normalean”.

Era berean bidelagunen %90ak uste du bidelariek aurrerapausoak eman dituztela, batez ere, hitz egiterako orduan, jariotasunean, konfiantzan...

“Errazago egiten dute euskaraz. Lasaiago, normaltasunez...”.

“Jariotasun handiagoa lortu dute, baina oraindik beldurra ez dute gainditu”.

“Konfiantza gehiago dute eurengan. Euskalkia menperatzen hasi dira”.

Bidelagunak bidelariak laguntzerako orduan aurkitu dituzten zailtasunak besteak beste hauek izan dira:

“Zergatik galdetzen dutenean erantzun gramatikalik ezin emana. Baina ez da zailtasun handia”.

“Ez dugu lortzen konplexuak alde batera lagatzea. Eurak aldatu behar dute ohitura baina ez dakigu nola lagundu urrats hori ematen eta taldetik kanpo oso eremu gutxitan erabiltzen dute”.

Bidelariei galdetegian egitasmoan parte hartzen hasi aurretik eta gaur egun euskaraz hitz egiteko duten gaitasunaren inguruan konparazioa egiteko eskatu zaie. Bertan, bidelari guztiek gaitasunean garapen positiboa izan dutela aitortu dute. Aldaketa batez ere hitz egiterako orduan, euskara mailan eta erraztasunean lortu dutela azaldu dute.

Mintzapraktika orduetatik kanpoko hizkuntza erabilerari dagokionez, bidelari gehienek bikotearekin lehen bezala egiten du, seme alabekin eta lagunekin ordea, zerbait gehiago edo gehiago egiten dutela aitortu dute.

Aurrerapausoak herriko merkatari euskaldunekin, anbulatorioan eta telefonoa hartzerako orduan eman dute batik bat.

Kontsumo ohituren inguruan zerbait gehiago kontsumitzen dutela aitortu dute.

Hobekuntza horiek lortzeko gehienak berba lagun taldearekin astero elkartu eta ekintzetan parte hartu dutela adierazi dute. Besteren batek hedabideak euskaraz kontsumitzea ere baliagarria izan dela azaldu du.

Bidelariek aurrera begirako erronka bezala honako hauek nabarmendu dituzte:

- Seme-alabekin euskaraz hitz egitea %42
- Koadrilakoekin euskaraz hitz egitea %28

- Ikaskide/lankideekin euskaraz hitz egitea %14
- Denda eta komertziotan euskaraz hitz egitea %8
- Telefonoa euskaraz erantzutea %8

Mintzapraktikan taldetik kanpo taldekideekin elkartzean gehienek euskaraz egiten dute baina bada bakarren bat erdaraz euskaraz baino gehiago egiten duena. Bestalde, mintzalagunean hasi zirenetik euskaldun gehiagorekin edo batzuekin harremana euskaraz dutela aipatu dute eta gehienek badute nork lagundu: alabak, koadrilakoek, euskaraz dakiten ezagunek... baina bada jende gutxi duena ere. Bestalde, parte hartzaileei orokorrean, nahiko edo asko handitu zaizkie euskaraz bizitzeko gogoak.

Mintzapraktika egitasmoetako kideek asteko hitzorduaz gain, ekintza osagarriak izaten dituzte urtean zehar. Parte hartzaile denei interesgarriak iruditzen zaizkie saio hauek, nahiz eta askotan denbora faltagatik ezin etorria izan. Gehien gustatzen zaizkienak, aurrera begira errepikatze modukoa direnak hauek izan dira: mendi irteerak, afariak, bisita gidatuak, irteera kulturalak...

Datorren ikasturteari begira, mintzalagun gehienek jarraitzeko gogo nabarmentzen dute, bi izanik arrazoi nagusiak:

- Euskara maila hobetzen jarraitu nahi dute, jarritasun gehiago lortu nahi dute eta orain arte aurrerapausoak eman dituztela ikusi dute.
- Taldean oso gustura daude, lagunak egin dituzte eta giro ona daukate.

ATALAREN ONDORIOAK:

Galdetegiko erantzunen arabera motibazioan arrazoi ezberdinak daude berbalagunak euskara ikasi eta praktikatzera eramaten dutenak.

Batzuengan motibazio instrumentalak nagusitzen badira ere: lanerako aukerak handitzeko, hizkuntza eskakizunak egiaztatze... Bergarako mintzalagunen kasuan gehiago izan dira motibazio integratzaileak *Berriketanen* izena ematera eramaten dutenak.

Dena dela, eta *Mintzapraktika* programen helburuei dagokionez esan behar da egitasmoetara jendea helburu propioekin hurbiltzen dela:

Batzuk, beren euskara maila hobetzeko hurbiltzen dira, gehienbat jarritasuna lantzen baita. Talde txikian konfiantzan natural hitz egiten hasi eta beste eremu batzuetan hasteko bide emankorra dela ikusten dutelako.

Bergaran, integratzeko ere bidelari askok parte hartzen dute, euren helburua hizkuntza aspektu guztietan ondo erabiltzea izanik (erregistro naturala). Bidelagunaren arabera taldeetan tokiko euskalkia praktikatzen da, honela erregistro informala barneratuz.

Beste batzuk, euskaltegiko goi urratsetan ari direnak ikasketa prozesuaren lagungarri modura hurbiltzen dira egitasmo hauetara, kalerako saltoa eman aurretik ikasitakoa konfiantza talde txikitan euskaldunekin praktikan jartzeko asmoarekin.

Beste batzuk harreman sareen berrien bila doaz, hau da, euskaraz hitz egiteko lagun berrien bila, ingurua erdalduna izan eta inguruan jende gutxi edota ez duelako inor euskaraz hitz egin.

Beste asko bidelagun bezala mintzalagunean parte hartzera animatzen da, bere ahalegintxoari esker, euskararen normalkuntzan eragin asmoz. Euskara praktikatzekeo beharra dutenei laguntzen diete maila hobetzen eta hitz egiterako orduan jariotasuna lortzen. Modu honetara, euskaldun kopurua handitu egiten da, euskara berba egiteko aukerak handitu eta euskal komunitatea zabaltu eta trinkotu.

Euskara ikasteko arrazoiak oso lotuta daude euskarari ematen zaion balioarekin, hau da, zertarako balio duten edo balioko dieten euskara jakiteak. Honen harira, balio instrumentala ematen diotenek, orokorrean gutxiago erabiliko dute euskara balio integratzailea ematen dietenak baino. Beraz, euskara ikasteko arrazoiek, euskararen erabilera eta hizkuntzarekiko jarrera baldintzatuko dute.

Inguruan euskara dakien jende asko egon arren oso zaila egiten zaie euskaraz hastea. Alde batetik, orokorrean ez dira eroso sentitzen, hizkuntza ondo menperatzen ez duten sentsazioa oso barneratuta baitute eta bestetik, euren artean inoiz ez badute egin eta gazteleraz berba egiteko ohitura oso finkatuta baldin badago, oso zaila eta arraroa egiten zaie euren artean euskaraz hastea. Euren iritziz ez da naturala eta esfortzu handia suposatzen die.

Mintzalagun taldeetan, hanka sartzeko beldurrik ez daukaten testuingurua izanik, eroso sentitzen dira euskaraz hitz egiten. Beste eremu batzuetan ordea, ez dira seguru sentitzen ulertuko ez dutenaren beldur egoten baitira.

Hainbatetan, pertsona eta hizkuntza identifikatu egiten dira. Horrek, besteak beste, “erreferente euskaldunak edo euskararen aurpegiak” sortzen ditu. Beste modu batera esanda, beraientzat irudi hori euskalduna/euskal hiztuna izanik, berarekin dena euskaraz egiten dute. Ondorioz, pertsona hauekin euskaraz komunikatzea lortzen bada,

harremanaren ezaugarri bihurtuko da eta zaila izango da ohitura hori aldatzea. Azken finean, harreman berriak euskaraz finkatzen badira, harremana euskaraz jarraitzeko aukera asko handitzen da.

Hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik, euskara nola eta zertarako erabiltzen den jakitea, zenbat erabiltzen den jakitea baino garrantzitsuagoa da. Hau da, euskara zein funtzio betetzen dituen.

Bergarak testuinguru soziolinguistikoki euskalduna izanik aukera asko dituzte mintzalagun taldeetatik kanpo euskara praktikatzeko, baina ohituragatik, lotsagatik... edo beste arrazoi batengatik ez dira ausartzen pauso hori ematera. Hala ere harremanak nagusiki euskaldundu ez badituzte ere hainbat eremutan adibidez, herriko komertziotan dendariaeuskalduna dela jakinik lehen hitza euskaraz egitera ausartzen dira.

Aurrera begirako erronken inguruan galdetzen diegunean, guztiei gustatuko litzaieke euskara erabiltzen dutena baino gehiago eta esparru gehiagotan erabiltzea. Askok helburu batzuk eta hau lortzeko bidea ere zehaztuta dute euren buruetan.

Azken finean, erantzunak ikusita dituzten zailtasunen kontziente dira baina esan liteke egitasmoek eraginkorrak izaten jarraitzen dutela. Mintzalagunak gustura daudela azaldu dute eta euskara modu atsegin batean praktikatu, euskara maila hobetzea posible dela ikusi dute.

Mintzalagunen helburuetan gehiago eragiteko, taldetik kanpo egunerokoan izaten dituzten elkarrizketetan gehiago eragin beharra dagoela nabarmendu daiteke. Horixe da egitasmoen erronka nagusia, mintzalagunen hizkuntza ohituretan gehiago eragitea.

8.- AURRERA BEGIRA ZER

Emaitzak aztertu ondoren, aurrera begira landu beharreko ildoak identifikatzea izango da helburu nagusia. Aurrera begirako ildo honek garatzeko orduan galdetegietatik ateratako emaitzak eta hainbat teoria uztartzen saiatuko naiz. Hau egiterako orduan, Siadecoren *“Arrasaten euskararen erabilera baldintzatzen dute faktoreei buruzko ikerketa kualitatiboa”* (2010), Kontseiluaren *“Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta”* (2009), *“Astindu Mingaina”* programa (2002-2003) eta *“Hiznet”* Hizkuntza Plangintza graduondoko (2014-2015 ikasturtea) hainbat lan hartu ditut oinarri nagusi bezala, baita *“Aldahitz”* (2014) ikerketan ateratako hainbat ondorio eta gomendio ere.

Mintzalagunek bi helburu nagusi betetzen dituzte egitasmoetan: *“batetik, beren hizkuntza gaitasuna hobetzen dute, hizketarako jarotasuna lortu eta lotsa galtzen dutelarik; eta bestetik, inguruko euskaltzaileei euskaraz bizitzen laguntzen diete, euskararen aldeko ekarpena eginez”* baina badituzte hainbat oztopo eta zailtasun egunerokotasunean euskara erabiltzen uzten ez dietenak.

Honen harira, *Berriketanen* bidelari gisa aritzen diren mintzalagunen artean 2 perfil nagusi desberdintzen dira; bata euskalduna izan, euskaldun izateari utzi edo erdaldundu eta berriz euskaldun izan nahi duena; eta bestea, euskalduna ez izan eta helmugan euskaldun berria izango dena. Beraz, bidelari batzuk euskara haurtzaroan ikasi arren (A ibilbidea), denborarekin galdu dute. Erabileratik motibaziorako jauzia egiteko nahikotasun maila ez da eman, hau da, ez da nahikoa erabili, ondoren ez da ezagutza maila egokira iritsi eta azkenik, ez da erabiltzen jarraitzeko motibaziorik sortu. Hau dela eta, urteak pasa ondoren arrazoi edo motibazio ezberdinak bultzatuta euskara galdu duten bidelari hauek mintzapraktika taldeetara hasi dira etortzen, euren euskara berreskuratzeko asmoz. Beste bidelari batzuk ordea, motibazio edo arrazoi batetik abiatuta (instrumentala, komunikatiboa, integratzailea, identitarioa) helduaroan hasi dira 2. hizkuntza hori ikasten (B ibilbidea).

Mintzapraktikako egitasmoen helburu nagusiak, besteak beste, hiztun kopurua handitzea eta euskaraz aritzeko trebakuntza eta aukera ematea da.

*Berriketane*ko bidelagunen arrazoi nagusiak bidelariei euskalduntzen prozesu honetan ikasitakoa praktikan jartzen laguntzea izan da. Honela euskaraz bizi ahal izateko, euskararen normalizazioan euren aletxo jarritz eta aldi berean, euskaldun kopurua handituz.

Orokorrean prozesuan, bidelagunak oso pozik daude euren ahalegintxoak eginez euskararen/euskaldunen sarea handitzen delako, nahiz eta batzuek aitortu, bidailarien artean nahi baino aurrerapen gutxiago ikusi dutela.

Bidelariak eroso eta gustura sentitu dira. *Mintzapraktikak* aisialdiko jarduerak dira. Elkartu eta gustukoa euskaraz egiteaz gain (kafea hartu, paseatu...) gehienek euskara maila hobetu eta erraztasuna lortu dute. Helburuak lortu ez duenik ere bada.

Euskararen erabilera da kezka nagusia euskararen normalizazio prozesuan, erabilera delako normalizazio mailaren adierazle nabarmenena. Hainbat dira erabilerari buruz hitz egin edo bere iritzia eman duten autoreak, batzuk aipatzearren, Fishman (1991), Txepetx (1987),... baina aurrera begirakoak zehazteko orduan Martínez de Lunak (2004) landutako “*Erabileran eragiten duten faktoreak*” eskema hartu dut kontutan. Eskeman hartutako hiru atalek (Norbanako mailako gaitasuna, zein motibazioa, maila mikro-sozialeko harreman sareenak eta maila makro-sozialeko gizartearen egiturarena) eragiten dute euskararen erabileran. Kokapen teorikoan aipatu den bezala “Txepetx”ek ere dio hizkuntza bat aztertzen dugunean 3 plano hartu behar direla kontutan (hiztuna, hizkuntza komunitatea eta hizkuntza bera). Beraz, plano bakoitzean egiten diren hobekuntzek erraztu egiten dute euskara erabiltzea.

8.1.- HIZTUNA

Kokapen teorikoan aipatu bezala, hiztun osoa izateko motibazioak, gaitasunak eta erabilerak nahikotasun maila lortu behar du.

1) Motibazioa: Motibazio abiapuntu ezberdinak kontutan hartuta, euskara erabiltzeko motibazioan eragitea lortu behar da. Motibaziotik erabileran eragin nahi den unetik, mintzalagunen ohituretan aldaketa bat egitea suposatzen du, hau da, hizkuntz ohituren desoreka bat sortzea. Guzti honen helburua gustukoa eginez, euskara erabiliz, erraztasuna hartu eta euskara naturaltasunez egitea da (mendi taldean, abesbatzan...) Beraz, gustuko jarduerarekiko dituzten motibazioak (instrumentalak, komunikatiboak, integratzaileak, identitarioak...) eta intentsitatea oso kontutan hartu beharko dira.

Teorian azaldu bezala, jarreraren garrantzia berebizikoa da hizkuntza horrekiko arrakasta azaltzeko. Beraz, motibazio integratzailea duen ikasleak beste hizkuntza-taldearekiko jarrera positiboa agertzen du, baita hizkuntzaren ikaskuntzarekiko, ikaskuntza egoerarekiko... Bidelarien artean ere, motibazio identitarioa eta jarrera integratzailea adierazi dutenek arrakasta izan dute hizkuntza ohiturak aldatzerako orduan... egunerokotasunean euskara txertatzea lortu baitute.

Hau bultzatzeko herrian euskara elkarteak, udalak... euskaraz antolatzen dituen jardueren berri eman beharko zaie, eurak modu informalean mintzalagun taldeetatik kanpo euskara praktikatu ahal izateko. Beste era batera esanda, motibazioan eragiteko hizkuntzari buruz zuzenean aritu beharrean atsegin dutena euskaraz eginez.

Honen harira, bidelari batzuk, euskaraz funtzionatzen duten herriko hainbat talde eta elkartetan parte hartzen dutenez (Pol-pol mendizale taldean, abesbatzan...) euskara mintzalagun taldeetatik at erabiltzea lortu dute. Ondorioz, euskara gehiago eta jende gehiagorekin erabiltzeaz gain, gustatzen zaiena euskaraz egitea lortu dute.

Bestalde, motibazio saioak antolatzea ere ez legoke gaizki. Motibazioa lantzeaz gain, inplikazioa ere lantzen da, euskararen normalizazioan zer egin dezaketen aztertuz, eta beraien ingurune sozialean kokatuz, euskaraz egiten diren jardueretan hartzaile izateaz gain, eragile edo euskararen aktibo ere izan daitezten. Hala nola, herriko euskara elkartean, mendizale taldean, taila elkartean...

Motibazio estimulatzailea lortzea izango da euskara gehien normalizatuko duena, hau da, gustuko erabilera posible egingo duena, euskara erabiltzeko motibazioa elikatuz.

Aldi berean, euskaltegiak ere hainbat ekintza antolatu lezake ikasleak motibatzeko asmoaz, besteak beste, ikasleentzat interesgarriak diren hitzaldiak, interesgarriak diren gaiei buruzko ikastaroak, ekintzak...)

Euskaraz gustatzen zaiguna egitea da helburua. *Mintzapraktikan* alderdi ludikoa asko lantzen da eta teoriak esaten duen bezala, komeni izaten da esperientzia positiboak... euskararekin lotzea hizkuntza horrekiko sentimenduak hobetzeko. Taldetan ludikotasuna asko baloratzen dute (talde giroa, kafea hartu, irteerak...), baina taldetik irteten diren momentuan konplexuek, lotsak... ez diete euskaraz naturaltasunez berba egiten uzten.

Bestalde, motibazioa eta jarrera bata besteari lotuta doaz. 2 hizkuntza hori ikasteko eta erabiltzeko behar den denbora guztian motibazioa mantentzeko jarrera baikorra behar da eta inkestetan ikusi dugun bezala, batzuk gogor mantentzen dute euskaraz bizitzeko motibazioa.

Izena ematerako orduan, arrazoi nagusia identitarioa, integratzailea... izan denez, euskara modu kontziente baten ikasi dute, ez behartuta eta ondorioz, gehienek bat egin dute euskarak kolektibo baten integratzeko balio duela esaterako orduan.

2) Gaitasuna: Gaitasunari dagokionez, euskaltegiak bermatu behar ditu euskarazko ahalik eta ezagutzarik jasoena eta motibazio eta erabilera indartsuenak. Euskara, beste edozein hizkuntza bezala, ez da inoiz erabat menderatzen, bere ikasketa prozesua inoiz ez da amaitutzat ematen eta euskara erregistro guztietan menperatzea lortu behar da. Askotan horri izaten baita gazteleraz hitz egitera bultzatzen dieten faktorea.

Aisialdian, hizkuntzaren erregistro ez-formalak lantzen dira nagusiki, hau da, egoera bakoitzerako erregistroak moldatuz. (familiarako, jolasteko, lagunarterako, haserretzeko, ligatzeko...). Komunikazio aukera berriek hizkuntzarekiko motibazioan eragin zuzena dute eta horrek, era berean, erabilera eta gaitasunean. Hizkuntza bat menderatzea, adierazi nahi den egoera (testuinguru) berri horretara etengabe egokitzeak gaitasuna izatea da. Beraz, ezinbestekoa da sentsazioak, ideiak, sentimenduak edo emozioak adierazi eta transmititzeko aukera emango duen erregistro osoa edo landua izatea (formala eta ez formala).

Bidelari gehienek euskararen ezagutza ikaskuntza kulturalaren bidez jaso dutenez, euskalkia ez dute menperatzen. Euskalkia eta batuaren artean ezberdintasuna handia egotean, bidelari batzuk eremu ez formal batzuetan ez dira eroso sentitzen euskaraz hitz egiterako orduan.

Gure eremu soziolinguistikoan euskalkia jakiteak erraztu egiten du euskararen erabilera eremu ez arautuan.

Erabileran ere eragin nabarmena duen beste faktoreetako bat gaitasun erlatiboa da. Gaur egun, probatu da euskaraz mintzatzeko gaitasun erlatiboa ziurtatzen duen ezaugarri ia bakarra hiztunaren lehen hizkuntza euskara izatea da. Beraz, lehen hizkuntza euskara ez duten hiztunen gaitasun erlatiboa hobetzeko bideak sortu behar ditugu, horretarako euskara eremu informalera atera beharra dago.

Gaitasunari dagokionez, bidelari gehienek gazteleraz euskaraz baino erraztasun handiagoa dutela adierazi dute. Sentimenduak, ideia, iritziak... adierazteko orduan bidelari askok gaztelerara jotzeko joera dute erosoago eta errazago komunikatzeko gai baitira.

Hizkuntza erabiliz hobetzen da. Bidelari batzuk umetan etxean euskara jaso duten arren, erabiltzeari utzi diotenean, hizkuntza galdu edo herdoildu zaie, gaztelera gailenduz.

Kokapen teorikoan Amaia Anterok dion bezala bizitzeko espazioetan erdararako joera duen horri lagundu egin behar zaio jokaera horren erroetara iristen, hau da, pertsona horrek bere jokaeraren kontzientzia hartzeko eta batez ere aldatzeko, lehenik eta behin, ulertu egin behar du zer den gertatzen zaiona. Egoera honetara ekarri gaituzten baldintza historikoen kontzientzia hartu behar du, horrek lagunduko baitio ikusten zergatik den euskararen egoera den bezalakoa une honetan eta ez beste bat, zergatik dituen aurreiritziak bere hizkuntzaren inguruan, zergatik dauden euskararen erabilera oztopatzen duten mekanismo sozialak, zergatik batzuek ez dakiten euskaraz eta uste duten mundu guztiak jakin behar duela gaztelaniaz, eta abar eta abar.

Identitateari buruz, Lorea Agirrek 2012ko udazkenean Arrasaten AEDk antolatutako “*Lau begiratu euskararen norabideari*” zikloaren barruan emandako hitzaldian esandako hitzak ekarriko ditut gogora: Agirreren ustez ezin da irudikatu euskaldun izateko modurik kontzientziarik gabe, bere esanetan “Euskaraz jarduteak egunero planteatzen dizkizulako mugak, ohartu edo ez, agian ez zara kontziente izango, baina sentitzen duzu; agian ez duzu gogoetaren maila eramango baina pentsamenduren bat sortzen dizu, agian onartu egingo duzu baina minorizazioa biziko duzu”.

Agirreren iritziz, “gaur egun euskaldun izatea ez da berezkotasunez ematen, eraikuntza kontziente bat da, aukera kontziente bat, besteak beste eten zulo eta errebueltaz jositako ginkana baten antza duelako euskaraz bizitzeak”, alegia, Koldo Izagirre (2010) idazlearen hitzak bere eginez, “euskararen zonifikazioa ez da Nafarroan soilik gertatzen, euskaldunaren eguneroko bizitza zonifikatua dago hizkuntzari dagokionean”.

*Berriketane*ko parte hartzaile denek euskara eurak erabaki dute euskara ikastea, hau da, modu kontziente baten hautatu dute euskara, hau da, beharretik baino nahitik sortutako hautu kontziente izatea lortu dute.

Agirre bat dator, bestalde, Joxe Azurmendirekin (2012) hark esaten duenean euskaradunez gainera hiztun komunitateko kide direla euskalduna ez izanagatik, euskararen patuarekiko kezka eta aldeko jarrera dutenak ere. Horien posizionamenduan ardura dago, edo nahimena, alegia, kontzientzia. Beraz, euskaraduna denak ere behar du izan euskararen patuarekiko kezka, alegia kontzientzia. Hori guztia ezinezkoa izango da, ordea, kontzientziarik gabe.

Euskara ez dakiena ez da euskalduna inguruan zalantzak sortu dira, azken finean batzuentzat euskalduna, Euskal Herrian bizi dena da, beste batzuentzat euskara duena...

Halere, erdaldunek euskara gehiago baloratu beharko luketela uste dute eta gehienek ustetan euskaldun guztiek jakin beharko luketela euskaraz.

Ondorioz, argi dago euskalduna izatea ez dela euskara duena bakarrik eta normalizazioa lortu nahi bada euskaradunaz gain euskararekiko jarrera ona eta kontzientzia dutenak ere beharrezkoak direla.

3) Erabilera:

Hona hemen *Siadecok* (2010) Arrasaten egindako ikerketa kualitatiboan ateratako erabileraren inguruko ondorio batzuen laburpena:

Euskaraz jakitea orokorrean onartuta egon arren, behar bezala ezagutzeko, erabilerak duen garrantziaren inguruko kontzientzia praktikoa falta da. Euskara erabiltzeak duen garrantziaz ez gara ohartzen, hau da, geroz eta gehiago erabili gaitasun handiagoa lortuko dela eta hobeto komunikatu garela. Aldiz, ez bada erabiltzen kalitate eskasagoa izango du.

Ez dago euskara erabiltzeko beharraz kontzientzia-hartzea eragiten duen “presio sozial naturalik”: euskaraz modu naturalean bizitzeko erabakiaren inguruan, ez da kontzientziarik hartzen. (Euskara naturala egingo zaigu, geuretzat naturala denean).

Euskararen erabileraren aldeko jarrera proaktiboak sustatu beharra aipatzen da ondorengo ardatzetan oinarrituz: euskararen atzean dauden balioen inguruko gogoeta (zer da, zertarako norekin, norentzat...), norberaren sentimendu eta bizipenak adierazteko komunikazio tresna eraginkorra, euskal izaera bizi eta berarekiko zubiak lantzeko aukerak.

Euskararen erabilera sustatzeko, hizkuntzaren atzetik dauden balioen inguruko gogoeta sustatzeko beharra aipatzen da: zer da eta zertarako da euskara, zer nolako garrantzia dauka niretzat, zer irudi transmititu nahi diegu (euskaldunok) ingurukoei euskaraz komunikatzerakoan.

Jarrera proaktiboak sustatzearen harira, euskararen balioa askok euskal izaerarekin lotu dute: integratzeko balio du, nortasuna mantentzeko, kultura ezagutzeko... Beste batzuk ordea alderdi komunikatiboari eman diote indarra: komunikatzeko, hitz egiteko... baina azken finean denek aurkitu diote balioa.

Euskararen erabilera eusteko hiztunek hizkuntzarekiko jarrera aktiboa izatea oso garrantzitsua da. Honela, euskaldunek begirunez egin dezaten eta ohitura/ezagutza falta dutenak egiten ahalegindu daitezten. Era berean, euskaraz bideratzen diren egoera komunikatiboetan garrantzitsua da ezagupen maila desberdineko euskaldunen jarrera aktiboa hizkuntzarekiko leialtasunari eusteko: ondo menperatzen ez dutenak euskaraz egiten saiatuz eta euskara menperatzen dutenak euskaraz begirunez eginez.

Egitasmo hauetan euskara praktikatuz, jarrerasuna eta segurtasuna lortzen dira. Halere, bidelari batzuk aitortu dute, mintzalagun taldeetatik kanpo esparru eta egoera berrietan euskaraz hitz egiterako orduan, euren buruarengan konfiantza eta segurtasun falta, lotsa... oztopo izaten direla euskaraz hitz egiterako orduan.

Bidelagunek ere antzerako zailtasunak ikusten dizkiete bidelariei, esaterako, beldurra, ohitura...

Bidelari gehienek beharrezkoa ikusten dutenez euskara maila baxuagoa dutenak maila altuagoa dutenen laguntza jasotzea, erabilera programak hauek oso egokiak dira hau bultzatzeko. Gehienek Bidelagunak laguntzerako orduan, beste beste, euskaraz hitz egiteko animatu eta hasieratik euskaraz hitz egin beharko litzaiekeela.

Galdetegien emaitzetan ikus daitekeen bezala, ia denak ados daude herriak euskaraz funtzionatu behar duela. Ondorioz, erabilera sustatzeari dagokionez euskararen erabilera eremu guztietan sustatu beharra dago, bai erabilera legez arautu daitekeen gunetan eta baita erabilera askeko gunetan ere.

Erabilera *askeko guneak* euskalduntzea lehentasunezko gaia da, batetik neurri handi batean hizkuntzaren transmisioa (familia, lagunartea...) horietan ematen delako, eta bestetik hizkuntza komunitatearen konpaktaziorako bidea bertatik hasten delako (familia, lagunartea, auzokoak, elkartetako lagunak,...).

Bidelari askok aitortu du, euskara ikasi arren, batez ere ingurune hurbilean gazteleraz aritzeko joera dutela. Galdetegian aipatu duten bezala, familian askok gazteleraz soilik edo nagusiki gazteleraz egiten du eta ohitura hauek aldatzea oso zaila egiten zaiela, batez ere harreman hauek aurretik gazteleraz errotuta daudelako.

Esparru horiek pertsonen bizitza pribatuarekin lotuak daude eta horietan legeek eta arauak eragin gutxiago dute. Esparru hauetan beraz, hizkuntza ohituretan eragiteko bestelako estrategiak jorratu behar dira: eskaintza oparoa, erakargarritasuna, gozamina, praktikotasuna, erosotasuna, sentiberatzea,...

Teorian aipatu bezala, Amonarrizek (Amonarriz, 1991:40-41) 3 baldintza nagusi aipatu ditu gaitasuna eta erabileraz gain, hizkuntza erabilia izan dadin: a) harreman sarean hizkuntza bera partekatzen duten pertsonak egotea b) hiztunak beste hiztun horiek hizkuntza horretan aritzeko gai direla jakitea eta c) talde batez ari garenean taldeko kide gehienak hizkuntza horretan aritzeko gai izatea.

Honen harira, bidelari asko aipatu dute taldean euskaraz ez dakien norbait egoten bada gazteleraz egiteko ohitura dagoela. Beste baldintza bat da euskara partekatzen duen beste norbait egitea da, baina galdetegian azaldu den bezala batzuk euskaraz jakin arren ez dute partekatu nahi, beraz kasu horretan hizkuntza ere ez da erabiltzen.

Bestalde, bidelari gehienek aipatu dute aurrean duena ezezaguna bada (ez daki zein hizkuntza erabiltzen duen) gazteleraz egiten diotela. Euskaldun bezala identifikatzen bada, hau da, euskaraz hasten bazaie hitz egiten bidelari gehienek euskaraz jarraitzen dutela esan dute.

Euskararen erabileraren sustatzaile "natural" izateko gaitasuna duten pertsona zehatzak daude: euskara bere izaeraren parte dutenak eta horrela identifikatzen direnak. Horrez gain, gertuko erreferente batek euskararen aldeko hautua egiteak eragin handia izan dezake bere inguruko euskaldunen hizkuntza jokaeretan.

Euskararen erabileraren erreferenteak diren pertsonak euskara erabiltzeko behar naturala (norberak onartua) eragiten dute euskal hiztunengan.

Euskara mintzataldeetatik kanpo praktikatzeko bidelari ia denek badute lagun, ezagun, familiako kideren bat laguntzeko prest dagoena. Hala ere, bada inguruan laguntzeko jende gutxi duena ere.

Gertuko erreferente batek gaztelania erabiltzetik euskara erabiltzera pasatu dela ikusteak laguntza edo estimulua izan daiteke norberak ere aldaketa hori egiteko.

Parte hartzaile gehienek iritziz, hizkuntza ohiturak aldatzea norberaren esku egon arren, oso prozesu zaila da eta ez da egun batetik bestera lortzen den zerbait. Bide honetan, bidelari gehienek beharrezkoa ikusten dute euskara maila baxuagoa dutenek maila altuagoa dutenen laguntza jasotzea. Honen harira, erabilera programak hauek oso egokiak dira hizkuntza ohiturak aldatzen joateko.

Hona hemen “*Aldahitz*” (2014) ikerketatik ateratako hizkuntza ohituren inguruko hainbat gomendio:

Hizkuntz ohiturak aldatzeak esan nahi duena zera da, talde bateko kideen artean harremana erabat edo nagusiki gaztelaniaz izatetik harreman hori erabat edo nagusiki euskaraz izatera pasatzea.

- Hizkuntz aldaketa errotikoa da, bultzada garrantzitsuak edo motibo handiak egon behar dute (kanpoko zein barneko bultzada).
- Aldaketak eta egoera berrira ohitzeak denbora eta gertutasuna eskatzen dute. Ohitzeko denbora behar da.
- Mintzamenerako gutxieneko gaitasuna baldin badago aurrera egin daiteke.
- Zirt edo zart egin behar da “Hemendik aurrera euskaraz”. Baina zorrotasunaren ondoan malgutasuna ere inportantea da.
- Aldaketa prozesu batean abiatzeko norberak ikusi behar du erronka lorgarria dela eta neurriko ahalegina eskatuko diola.

Hainbat zailtasun aurkitu daitezke:

- Aldaketa hasieran zaila, arraroa da, baina epe laburrean sentsazio guzti hauek desagertzen dira.
- Pertsona batzuekin zailagoa izan daiteke urrats hau ematea.
- Euskaraz nahi bezala adierazteko mugak azal daitezke. Euskaratik gaztelaniara pasatzeko tentazioa egon daiteke.

Gertuko harremanetan zaila egiten zaie hizkuntza ohiturak aldatzea (familia, lagunak...). Galdetegietako emaitzen arabera, bidelariak etxean, lagun artean... euskara zertxobait gehiago erabili arren, oraindik ez dutela harremanak guztiz euskalduntzea lortu.

Zailtasunei aurre egiteko estrategiak

- Ematen diren aurrera pausuez hitz egiteak motibazioa areagotzen du.
- Gaztelaniara jotzeko tentazioa izaten da, euskaraz nahi bezala azaltzeko zailtasunak daudenean. Beraz, aldaketa errazenetik hastea komeni da.
- Adierazi nahi den hori beste era batera azaltzeko ahalegina eginez, gaztelaniako hitzak maileguan hartuz eta euskarara egokituz.

Bidelariak orokorrean, lehen esan bezala, erraztasun handiagoa dute gazteleraz komunikatzeko euskaraz baino. Batek baino gehiagok aipatzen du, zerbait ez dakitenean nola esan edo elkarrizketa jarraitzeko gai ez denean sentitzen, joera handia dutela gazteleraz hitz egitera pasatzeko.

Hiztun bezala euskara gehiago erabiltzeko norbanakoak konpromisoak har ditzake. Hiztun aktiboak izan behar gara eta hona hemen, besteak beste, norbanakoak har dezakeen konpromisotariko batzuk: euskara ikasiko dut, neure euskara maila hobetu egingo dut, euskara erabiliko dut (tabernetan, koadrilan, saltokietan, etxean, elkartean, lanean...), lehen hitza euskaraz egingo dut edozein erakunde, elkarte edo enpresatan, telefonoz ere lehen hitza euskaraz egingo dut, lagunei mezuak euskaraz bidaliko dizkiet sakelako telefonotik eta ordenagailutik, euskaraz dauden programa informatikoak lehenetsiko ditut, gas, argindar eta ur hornitzaileen kontratu eta agiriak euskaraz jasotzeko eskaria egingo dut, administrazio publikoaren aurrean euskara erabiliko dut....

Bidelari batzuk erronka batzuk jarri dizkiete euren buruei (seme-alabekin euskaraz hitz egitea, koadrilakoekin, dendetan...) Nahi edo gogo bat egon badago, ikusten da euskara erabiltzen duten baino leku eta egoera gehiagotan erabili nahi dutela eta aurrera begira konpromiso batzuk ere hartu dituzte (telefonoa euskaratu,...).

Hala ere, Amaia Anterok (2007) esaten duen bezala konpromisoak hartu aurretik kontzientzia landu behar dugu. Euskalduna izatea ez da aski eta euskaldun bakoitza euskaltzale egiten ahalegindu behar da.

Hainbat dira norbanako mailan bakoitzak har dezakeen konpromisoak euskara gehiago eta esparru gehiagotan erabili ahal izateko. Bestalde, kontsumoari dagokionez hainbat dira euskaraz kontsumitu ditzakegun hedabide eta produktuak (irratia, telebista, aldizkariak...).

Galdetegian aitortu dute *Berriketanen* hasi zirenetik euskara esparru gehiagotan erabiltzen dutela, esate baterako, merkatari euskaldunekin. Bestalde, komunikabideak

nola kontsumitzen dituzten galdetzerako orduan, askok berdin jarraitu arren, beste batzuek euskarazkoak lehen baino zertxobait gehiago kontsumitzen dituztela adierazi dute.

Konpromisoak hartzen dituzten hiztun aktibo bakoitzak euskal komunitateari ekarpena egiten dio. Horrez gain, lehen gazteleraz egiten zituzten hainbat kontu euskaraz egitean, euskara erabiltzeko aukera handitu egiten baita eta harreman batzuk gazteleraz izatetik euskaraz izatera pasa ahal dira.

Hizkuntza gaitasun egokia eta erabilera ohiturak sendotzeko berebiziko garrantzia du hiztunaren sarean dagoen euskaldun dentsitateak. Erabileran hazkunde nabarmena gerta dadin, gizartean dagoen euskal hiztunen proportzioan aldaketa kuantitatiboa gertatzea ezinbestekoa da.

8.2.- HIZKUNTZ KOMUNITATEA

Hiztun aktiboak sortzeaz gain euskaratik urrun daudenak ere beharrezkoak ditugu normalizazioa prozesu batean, beraz, azken hauek ere aktibatu beharko ditugu.

“Txepetx”en arabera (1987), hiztunen optimizazioa eman dadin, kokapen teorikoan aipatutako talde soziolinguistiko ezberdinak hartuko ditugu kontutan (AB: jatorrizko euskaldun kulturizatuak, BA: heldu jatortuak, A: jatorrizko euskaldun alfabetatugabeak, B: heldu jatortugabeak eta azkenik O: erdaldunak).

Lehenengo talde soziolinguistiko biek -ABk eta BAK- hizkuntzaren bihotza edo gune sinbolikoa osatzen dute. Azken taldea ordea, erdaldunak, euskal komunitatetik at dago.

Hizkuntza baten gune sinbolikoa osatzen duten AB eta BA talde soziolinguistikoek, euren lekua eta funtzioak ondo betetzeaz gain kanporantz hasten direnean hizkuntz komunitatea artikulatuta egongo da eta hizkuntzak ez du arriskurik izango.

Normalizazio prozesuaren abiaburua haustura-tentsioa da, hots, gune sinbolikoa osatzen duten AB eta BA talde soziolinguistikoak hizkuntzaren egoera aldatzeko eta normalizazioaren alde lanean hasten diren une historikoa. Haustura-tentsioa gertatuz geroztik, hiztun komunitatearen trinkotzeari eta hizkuntz tipoen optimizazioari ekin behar zaio.

Optimizazioa hizkuntz tipoen eskalan aurrera egitean datza, talde soziolinguistikoak barnetik kanporantz ugalduz:

- 0-B: Erdaldunak euskalduntzen hasten direnean.
- B-BA: Ikasle helduak euskara euren barne hizkuntza bihurtzen dutenean
- A-AB: Jatorrizko euskaldun alfabetatugabeak, edo primarioak, euskaraz alfabetatzen direnean.

Optimizazioaz gainera, hizkuntz normalizazioan eman beharreko beste urrats garrantzitsu bat legearen babesa lortzea da, hizkuntzak funtzio guztiak berreskuratzeko erraztasun handiagoa izan dezan. Eta geroago, euskaraz bizitzea ahalbidetzen duten harreman sareak sendotu eta areagotu behar dira, gizarte osoak auto-konfiantza hartu eta euskaraz gustura eta konplexu barik bizi izan dadin.

Hizkuntza bat erabiltzeko hiztunak behar dira, hori bai, hiztunak izateak ez du beti bermatzen hizkuntza erabiliko denik.

Beraz, hizkuntza komunitate batek gutxieneko masa kritikoa (kantitatea) behar du, hau da, hiztun kopuru bat, baina horretaz gain hiztun horiek ezaugarri batzuk (kalitatea) izan behar ditu, hau da, AB eta BA hiztunak edo hiztun osoak behar ditu, batez ere, trinkotzea abian jartzeko.

Eremu sinboliko hau osatzen duten hiztunen egitekoa izango da euskararekiko kontzientzia, konpetentzia eta koherentzia maila apalagoa dutenak muinera erakartzeko ardura, hau da Txepetxek aipatzen duen "nahikotasun mailarik" ez dutenengan eragitea.

Bidelariak nahikotasun maila lortzeko bidean beharrezkoa ikusten dute maila altuagoa dutenen laguntza.

Hizkuntz jokaera ez da gizabanakoaren alderdi hutsetik azter daitekeen kontua. Hizkuntz jokaera pertsonen arteko harremanari dagokio eta elkarrekintza mota bat da. Elkarri egokituz eraikitzen da hizkuntza jokaera, eta egokitze horren emaitza da jokaera ohiko bihurtzea. Hortaz, elkarrekintza horretan sorturiko talde-arauak gidatuko du norbanakoaren hizkuntz jokaera. Gutako bakoitzak talde batean egiten duen hizkuntza erabilera talde horren ezaugarrietara egokitu ohi da, beraz.

Hizkuntza jokaera eta ohituraz ari garelarik, fenomenoaren ulermenerako askoz lagungarriago zaigu ikuspegi kolektibo batetik aritzea, ikuspegi indibidual batetik askoz

ere zailagoa delako bertan eragiten duten indarrak, baldintzak eta bestelakoak jaso ahal izatea.

Honen harira esan genezake, parte-hartzaile gehienek bat egiten dutela euskara kolektibo baten integrazteko balio duela esaterako orduan.

Mintzalagun programekin, helburu pertsonalak bultzatzeaz gain beste helburu batzuk ere lantzen dira, orokorragoak, hizkuntzaren normalkuntza prozesuan eragin nahian. Besteak beste, euskal hiztunen kopurua handitzea eta euskara erabiltzeko gune berriak irabaztea (Askatu mingaina).

Euskal hiztunen kopurua handitzea. Arrazoi batengatik edo besteren batengatik eguneroko bizitzan euskara erabiltzeko zailtasunak dituztenak edo euskara erabiltzen ez dutenak (ikasten ari direlako, erraztasunez hitz egiteko zailtasunak dituztelako, erabiltzeko aukerarik ez dutelako,...) eta ohiko euskal hiztunak hurbiltzen ditugu programen bitartez . Horrela, euskal hiztunok osatzen dugun komunitatea hazten doa.

Bidelagunek euren ahaleginari esker, euskararen aldeko aletxoak jarritz hiztun kopurua handitzen da.

Hiztun horiek osatzen duten masa edo multzoa trinkotu eta sendotzea da euskara gero eta gehiago eta gero eta era naturalagoan eta berezkoagoan erabiltzeko bidea, hau da, hiztunak zenbat eta gehiago (eta zenbat eta osoago) izan, errazago izango du euskarak hiztun, esparru eta funtzio berriak eta gehiago bere egitea.

Horretarako baina, euskarak bere garapen linguistiko beregaina izango badu, baldintza sozialak behar ditu, eta gainera, bere erabileraren aldeko motibazio pertsonal eta kolektiboa landu behar dira.

Bidelagun eta bidelariak ordubeteko hitzorduaz gain, hilabeteen behin egiten diren saio osagarriak interesgarriak iruditzen zaizkie, nahiz eta gero askotan denbora faltagatik... ezin etorria izan. Hilero egiten diren ekintza horietan taldeetako kideak elkar ezagutzen dira, euren harreman sarea handituz eta trinkotuz.

Mintzalagunean hasi direnetik gehienek adierazi dute euskaldun asko edo batzuk ezagutu dituztela.

Euskara erabiltzeko gune berriak irabaztea. Kalean euskaraz aritzen diren guneak egotea, presentzia igarri dadila ere bilatzen dugu; izan ere egitasmo hauek martxan

dauden lekuetan euskararen kaleko presentzia handitu egiten da; hau, zonalde ez euskaldunetan nabariagoa da. Orokorrean kalean edo leku publikoetan elkartzen dira *mintzalagun* eta *berbalagun* taldeak (tabernetan, parke edo plazetan,...) eta paisaia linguistikoan eraginik baduela esan dezakegu.

Hizkuntza denek bere lurraldea edo eremua behar du, eremu fisikoak nahiz hizkuntzak bete beharreko funtzioek osatzen dutena.

Izan ere, erdal elebidunek (gaztelaniaz euskaraz baino hobeto hitz egiten dakitenek) gehienetan gaztelaniaz hitz egin ohi dute, elebidun orekatuek batean zein bestean eta, euskal elebidunek, berriz, gehienetan euskaraz egiten dute. 2 hizkuntzetan antzera moldatzen diren bidelariak elebidun orekatuak izatean erdal elebidunak baino leku gehiagotan ematen dute euskara hitz egiteko pausua.

Faktore honetaz gain, ordea, esan dugun gisara, erabilerarako inguruneak eskaintzen dien aukera ere oso garrantzitsua da ibilbide kultural hori ahalik eta sendoena egin dezaten eta ahalik eta elebidun orekatuenak izan daitezen.

Euskaltegietan azken helburua ikasle elebidunak izatera iristea izan arren, bidelari gehienek gazteleraz euskaraz baino hobeto hitz egiten dute. Ondorioz, elebidunak dira baina erdal elebidunak.

Eskolaz kanpoko jarduerak eskaini behar zaizkie eta mintzalaguna da horietako bat. Giro onean, eroso eta gustura sentitzen dutenez, konfiantzan egiten dute euskaraz eta ondorioz, hobekuntza nabarmentzen dute.

Erabilerarako esparruak eskaintzean, bi helburu bete nahi ditugu. Alde batetik, erabilera bera eskaintzea (ikaskuntza prozesua osatzen joan dadin). Beste alde batetik, ordea, euskal hiztunen komunitatean afektiboki eta efektiboki integratzen joateko modu naturala ere eskaini nahi diegu.

Bukatzeko, euskara erabiltzeko sare berriak aipatzerako orduan besteak beste, mintzalaguna, Jardun Euskara Elkarteko lantaldeetako laguntzaile edo parte hartzaile, herrian euskaraz antolatzen diren ekintzen eta euskaraz zerbitzatzen duten aukeren informazioa.

Honen harira, *Berrian* Korrikaren *Euskahaldun* inguruan Oihan Vitoria (2015) kazetariak landutako artikulua hainbat pasarte ekarri ditut:

Arratibelek (2015), testuinguruak eskaintzen dituen abaguneekin lotu du ahalduntzea, erabilerarekin hertsiki katigatuta dagoela uste baitu; alegia, ahalduntzeko borondatea eta gaitasuna izatea ez dela soilik norberaren kontua. «Gizarteak, instituzioek eta ingurukoek ez baldin badituzte neurriak hartzen hori hala izan dadin, benetako ahalduntzea lortzea oso zaila da. Inguruneak zuzenean laguntzen ez badu, frustrazio iturri izan daiteke jende askorentzat».

Hala, pertsonak soilik ez, espazioak ere euskaldundu beharraz mintzo da Mondragon Unibertsitateko ikertzailea, ikastetik erabiltzera jauzi handiegia dagoelakoan.

Bergaran orokorrean ez dela euskara gehiago entzuten aipatu dute, Udalak zerbait egin beharko lukeela uste du.

Ahalduntzeak, hain justu, badu horretatik ere: nola eman tresnak hitzunei, nola sortu inguruak babes horiek jorratzeko... Martinez de Lunaren ustez, hori posible izan dadin, gizartean, botere gune eta erakundeetan «adostasun zabala» erdiestea beharrezko dauka, ahalegina hutsala izan ez dadin. Halakorik ezean, edozein urrats berri ikamikarako motibo bihur daitekeela eta «giro ustelak» erdaldunak atzera bota ditzakeela ohar egin du. «Euskarara erakarri ordez, urrundu egingo lirateke».

Ezagutzaz aparte, Iñaki Martinez de Lunaren hitzetan oinarrituta, bestelako osagaiak behar direla hizkuntz komunitate bateko kide izateko. «Balioak, portaerak, jokamoldeak, atxikimendua edota identifikazioa barneratuta edukitzea, adibidez». Denboraren poderioz, alabaina, norberaren hizkuntza beharrak eta lortutako hizkuntza gaitasunak ere molda daitezke.

«Konplexuei astindua ematea eta konfiantza izatea gainerakoei transmititzeko». Hori da, Martinez de Lunaren hitzetan, euskara erakargarri egiteko gakoa. Jarrera asertiboa edukitzea nahitaezko jo du, jakin arren hizkuntza ezagutzen ez dutenen arreta piztea ez dela zeregin erraza. «Kontua da ideologikoki arbuiatuta ere, sarri gu garela konplexuz josita dihardugunok, hizkuntza nagusia gaztelania dela barneratuta, eta euskara, noizbehinkakoa baino ez».

Jarrera asertiboa aipatuz hona hemen hizkuntza asertibitateak euskararen normalizazioari egin diezaiokeen ekarpenaren inguruan EMUNek (2010) landutako artikulu sortatxo batetik ateratarako laburpena.

Asertibitatea gaur egun psikologiako paradigma kognitiboren ikuspegitik lantzen da, portaera aztertzerakoan arreta hiru mailetan jarritz: kanpo portaera (maila motorra), pentsamendu ereduak (maila kognitiboa) eta sentimenduak eta emozioak (maila fisiologikoa).

Asertibitatea erasokortasuna eta ez-asertibitatearen (edo pasibotasuna) arteko puntu batean koka dezakegun komunikazio portaera da.

Beraz, asertibitatea komunikazio portaera bat da. Portaera horretan norberak bere iritziak eta sentimenduak adierazten ditu, bere eskubide pertsonalak egikaritzuz, baina beste pertsonen eskubideak errespetatuz. Era honetan pertsona asertiboak ez du men egiten beste pertsona baten manipulazio saiakeraren aurrean, baina bera ere ez da beste pertsona manipulatzeko saiatzen.

Portaera asertiboa (ez asertiboak bezalaxe) ikasitako portaera bat da. Horren arabera asertiboa izaten ikasi daiteke, beraz pertsona guztien esku dago asertiboagoa izatea. Ikasketa prozesu horretan garrantzitsua kontuan izan beharko ditugu portaeraren oinarri diren hiru mailak: kognitiboa, emozionala eta motorra. Portaera asertiboa ez ematearen arrazoia hiru maila horietako zeinetan zentratzen den jakinda, teknika mota desberdinak erabil daitezke.

8.3.- HIZKUNTZA

Iñaki Martinez de Lunaren eskema jarraituz, euskararen erabileran eragina duten faktoreen azterketan, hirugarren mailan kokatzen gara orain, gizarte egituraren mailari dagozkion eragileak aztertzeko. Bertan, Iñaki Martinez de Lunak bi ikuspuntu jorratzen ditu: hizkuntzak eremuz eremu duen onarpenera eta hizkuntzaren irudi soziala.

Hizkuntzak lurralde batean duen estatus juridiko-politikoa bete-betean sartzen da maila honetan. Baina, esparru juridiko-politikoa ez ezik gizartearen maila makro honetan bestelako esparruek ere eragin handia izan dezakete hizkuntz egoeran; hala nola lan-munduak, aisialdiak, erlijioak, kulturak, komunikabideek... baina errealitatean oso enpresa, elkarte, aisialdi talde... gutxi hartu dute kontutan euskarak behar duen tokia.

Ondorioz, Iñaki Martinez de Lunaren ustez, erakunde batek euskara kontuan hartzen ez duen bitartean, hizkuntza horrek izan dezakeen erabilerak hiru ezaugarri izango ditu:

- a) estatus mugatua, ez-normaldua, hizkuntza gutxitua izanik erdara gunee eta une formal guztiez jabetuko delako;
- b) egoeraren batean euskara erabiliz gero hiztunen boluntarismo hutsean oinarritu beharko da eta egoera horretan 'normaltzat' jotzen den hizkuntza nagusiaren kontra;
- c) euskararen erabilera toleratua bada ere, gaitzetsia izango da erakundearen funtzionamendurako kostu edo zailtasunen bat dakarren neurrian. Beraz, praktikan oso esparru txikia geldituko zaio hizkuntza gutxituari.

Gaztelera denek ulertzen dutenez euskarari askotan 2. mailako hizkuntzaren trataera ematen zaio, hau da, gaztelera denek ulertzen dutenez eta beharrezkoa denez jakitea ez zaio behar besteko aitormena eta lekua egiten. Gutxi batzuk gaztelera nahiago duten arren, mintzalagun ia denek uste dute euskara jakin beharreko hizkuntza dela eta herriak eta administrazioak euskaraz funtzionatu beharko lukeela.

EAEn normalizatuen dagoen eremua irakaskuntza da, hortik kanpo oso kasu gutxi daude euskararen edo elebitasunaren aldeko apustua egin dutenak.

Beraz, euskararen erabileran eragiteko gizartearen babesa izango da aintzat hartuko den lehen eragin mota. Izan ere, hizkuntza ez da ezer bere hiztun komunitateko babesik ez badu. Osagai honen gizartearen funtsa egitura kognitiboak dira, eta horien arabera hizkuntzaren errealitatea hauteman eta irudikatzen da. Hizkuntzak ulertu eta interpretatzeko modua ezartzen da, horiei atxikitako jarrerak,... hizkuntzaren inguruko diskurtsoak marko edo framing bezala ere izendatzen dira.

Gizarte babesa beharrezkoa da eta horretarako aurreiritzi eta uste guztiekin apurtu beharra dago (kasero, borroka, 2. mailakoa...). Askotan euskara ez modernotzat eta politikotzat hartzen dugu eta horrek ez dio mesederik egiten euskararen aldeko irudiarri. Bidelagun eta bidelari ia denek uste dute euskara modernoa dela baina aldi berean zaila. Baina era berean, *Berriketanen* partaide askok modu koiziente baten parte hartzen duenez, polita eta interesgarria iruditzen zaie.

Estatus juridiko-politikoaren aldetik, euskarak ez du erdarak duen onarpen ofizial bera; ezta estatus soziala ere. Eta hizkuntza gutxitu baten erabilera egokirako ezinbesteko baldintza da hizkuntza horren jendaurreko onarpena eta bere erabileraren zilegitasuna argi ager daitezen, eremu guztietan (ez bakarrik administrazio publikoan). Estatus edo

onarpen gabezia horrek hizkuntzaren gizarte irudia ahulduko du, hurrengo puntuan aztertuko dugun bezala.

Horregatik, estatus juridiko-politikoaren muga horiek, lekuan lekukoak, oztopo bihurtzen dira euskararen normalkuntzarako gizartearen eremu guzti-guztietan: lanpostuetarako deialdietan euskara exijitzeko ezintasunean, adibidez. Baita, dudarik gabe, erabilera egokirako ere.

Hizkuntzaren irudi sozialari dagokionez, hizkuntza baten irudi subjektiboa da gizarte egituraren kokatu dugun bigarren elementua. Hizkuntzaren irudi soziala da, hizkuntza bati buruz gizarte batek dituen pertzepzioa eta balorazioa; ez norbanakoaren motibazioa. Halere, gizartearen dagoen hizkuntzaren irudiak norberak duen hizkuntza horrekiko motibazioetan ere eragina duela aitortu behar dugu.

Bestalde, bidelari askok uste dute euskara zaila dela. Aurreiritzi honek euskara ikasten hasteko orduan beldurra sortzen du eta ondorioz, kalte egiten dio euskarari eta euskal komunitateari.

Ondorioz, euskarari irudi negatiboa ematen dieten uste eta aurreiritziekin apurtu beharra dago eta euskarak prestigioa eta balioa hartu behar du. Euskarak duen balio erantsia bilatu behar dugu hainbat arlotan (sozioekonomikoan...) urratsak eman ahal izateko. Horrez gain, beste baldintzetako bat galdutako funtzioak berreskuratzea izan daiteke.

8.- BIBLIOGRAFIA

AJZEN, Icek (1988). *“Attitudes, personality and behaviour”*. London: Open University Press.

AJZEN, Icek; FISHBEIN, M. (1980). *“Understanding attitudes and predicting social behavior”*. New Jersey: Prentice-Hall. Englewood Cliffs.

AGHEYISI, Rebecca, FISHMAN, Joshua (1970). *“Language attitude studies: a brief survey of methodological approaches”*. *Anthropological Linguistics* 12(5).

AMONARRIZ, K. (1991). *“Euskararen erabilpenaren kale neurketen inguruko gogoetak”*. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 3-4.

AMONDO, ASIER. (2005) *“Murgiltze jarduerak”*. AEK

AMORRORTU, Esti; ORTEGA, Ane; IDIAZBAL, itziar; BARREÑA, Andoni (2009). *“Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak”*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

AMORRORTU, Esti; ORTEGA, Ane (2010). *“Euskararen balioak eta gazteen erabilera: heldu erdaldunen pertzepzioak”*. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 77:117-134

ANTERO, Amaia (2007) *E2i: “Euskara Elkartek ibilian jardunaldiak”*. Topagunea. Donostia: Miramon Teknologia Parkea, 2007.

ARRATIBEL, N. (1999). *“Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: motibazioen errola”*. Leioa, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea

(Doktorego Tesiak).

AZTIKER S.L. (2010): *“Mintzapraktika egitasmoen eraginkortasuna neurtzen”*.

AZURMENDI, JOXE (2012): *“Niretzat euskara euskaldunen komunitatea da; euskalduna komunitate horri buruz positiboki oisizionatzen dena”* artikulua. *Administrazioa euskaraz aldizkaria* 74: 7-11

AZURMENDI, M.J. (1987a): *“Psicosociolingüística. Fundamentación histórica”*. *Gizarte-Psikologia eta Metodologia Saila*, Donostia: UPV-EHU.

AZURMENDI, M.J. (1987b). *“Psicosociolingüística. Líneas de investigación en torno al tema el comportamiento lingüístico, en situación de contacto de lenguas”*. *Gizarte Psikologia eta Metodologia Saila*, Donostia: UPV-EHU.

ARRUTI, Iñaki (2005): *"Euskaldun berria, hiztuna eta hizkuntza komunitatea"*. Erabilera lantzeko tresna eraginkorrak jardunaldiak. Durango: Landako Elkartegia.

BACHOC, Erramun (2008). *"Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian"*. Euskararen Erakunde Publikoak eskatutako azterketa lana. Argitaratu gabea.

BAKER, Colin (1992). *"Attitudes an language"*. Clevedon; Philadelphia; Adelaide: Multilingual Matters.

BARTOLOME I. ETA BESTE (2006). *"Abian gidaliburua"*. Topagunea.

BERGARAKO UDALA (2011). *"Euskararen kaleko erabileraren neurketa"*. Bergarako Udala.

BERGARAKO UDALA (2012). *"Euskararen egoera Bergaran. Adierazle nagusiak eta egoera ulertzeko gakoak"*. Euskara Biziberritzeko Plan berria diseinatzeari begira prestatutako txostena. Euskara Zerbitzua.

BERRIO-OTXOA, K. (2000). *"Gaztetxoak eta hizkuntza gaitasuna, erabilera, iritziak eta hautapena"*. In HAINBAT EGILE: Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara. Martínez de Luna (argit.).

COOPER, Robert L; FISHMAN, Joshua. 1974. "Language attittudes, 1". *International Journal of the Sociology of Language* 3.

COOPER, Robert L. (1997). *"La planificación lingüística y el cambio social"*. Cambridge: Cambridge University Press.

DÖRNYEI, Zoltan(1994). *"Understanding L2 motivation: on with the challenge!"*. The Modern Language Journal 78/iv: 515-523.

ERIZE, X. (2003) *"Bizitasun Etnolinguistikoa"*. In Zalbide, M. eta Erize, X.: *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*. Hiznet Hizkuntza Plangintza ikastaroa. Vitoria-Gasteiz. Asmoz Fundazioa. (www.asmoz.org).

ETXEGOIEN J.C., "XAMAR" (1992). *"Orhipean. Gure Herria ezagutzen"*. Iruñea: Pamiela.

ETXEGOIEN J.C., "XAMAR" (2001). *"Orekan. Herri eta Hizkuntzen ekologiak"*. Iruñea: Pamiela.

ETXEGOIEN J.C., "XAMAR" (2006). *"Euskara Jendea. Gure hizkuntzaren historia"*. Iruñea: Pamiela.

EUSKO JAURLARITZA (2001). "*EUSKARAREN JARRAIPENA III: Euskararen egoerari buruzko adierazleak, adinaren arabera*". EAE.

FASOLD, Ralph (1996). "*La sociolingüística de la sociedad. Introducción a la sociolingüística*". Madril: Visor.

FISHMAN, Joshua (1974). "*Attitudes towards object as predictors of single and multiple behavioral criteria*". Psychological Review 81.

FISHMAN, J. A. (1979). "*Sociología del lenguaje*". Madrid, Cátedra.

FISHMAN J. A. (1991). "*Reversing language shift. Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*". Clevedon, Multilingual Masters 76.

FIZ, Benito (2007). "*Ikasgelatik plazara: hizkuntzaren normalizazioari helduen euskalduntzetik heldu nahian*". BAT Soziolinguistika aldizkaria 62, 2007:127-139.

GARCÍA FERRANDO, M. (koord.) (2005). "*Pensar nuestra sociedad global*". Valencia. Tirant lo Blanch (119-121).

GARDNER, R.C. (1966). "*Motivational variables in second language learning*". In *International Journal of American Linguistics*, 32, 24-44.

GARDNER, Robert C. (1985). "*Social psychology and second language learning: The role of attitudes and motivation*". London: Edward Arnold.

GARDNER, Robert C.; LAMBERT, Wallace E. (1959). "*Motivational variables in second language acquisition*". *Canadian Journal of Psychology* 13.

GARDNER, R.C. & SMYTHE, P.C. (1975b). "*Motivation and second language acquisition*". In *The Canadian Modern Language Review*, 31, 218-230.

GARDNER, Robert C. (1985). *Social psychology and second language learning: The role of attitudes and motivation*. London: Edward Arnold.

GOLEMAN, Daniel (1995). "*Inteligencia emocional*". Editorial kairós.

HAINBAT EGILE (2000). "*Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*". Martínez de Luna (argit.).

JAUREGI, PELLO (2003): "*Gazteak eta euskara Lasarte Orian II*". Lasarte-Oriako Udala.

JOLY, L. eta URANGA, B. (2010) "*Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak*". In

ZARRAGA eta beste.

KLEINGINNA PR. & KLEINGINNA AM. (1981). "*A categorized list of motivation definitions, with a suggestion for a consensual definition*", *Motivation and Emotion*". Springer Netherlands, 1981: 295-379.

LARRAÑAGA, Nekane (1996). "*Euskararekiko jarrerak eta jokabideak. Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean*". Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (doktorego Tesia).

MARTÍNEZ DE LUNA Iñaki. (1996). "*Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean*". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 18, 1996:39-52

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki. (2004). "*Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak*". in Kaxildo Alkorta eta Eneko Barrutia (Ed) *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran* 11-37. Bilbao:Mendebalde Euskal Kultur Alkartea, 2004.

MARTINEZ DE LUNA, Iñaki. (2014) "*Euskararen erabileran eragiten duten faktorea*"k. "*Hiznet*" Hizkuntza Plangintza ikastaroa. Vitoria-Gasteiz. Asmoz Fundazioa. (www.asmoz.org).

MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2001). "*Euskal herriko gaztetxoek hizkuntz egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamen*"a. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 40.

MARTÍNEZ DE LUNA, I. eta JAUSORO, N. (1998). "*Euskararekiko motibazio sinbolikoak*". In Joseba Intxausti (bilduma-egilea) *Euskararen aldeko motibazioak* (Donostiako Udako XIII. Ikastaroak, 1994 uztaila). Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea (69-136).

MARTÍNEZ DE LUNA, I., JAUSORO, N., BERRIO-OTXOA eta IDIRIN, I. (1998). "*Gizarte sareak eta hizkuntzaren erabilera: euskarari eta gaztelaniari egokitutako hurbilketa*". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 26.

MARTÍNEZ DE LUNA, I., SUBERBIOLA, P. eta BASURTO, A. (2009). "*Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*". Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza- Gobierno Vasco.

MORENO FERNÁNDEZ, F. (1998). "Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje". Madrid, Ariel.

LARRAÑAGA, N. (1996). "Euskararekiko jarrerak eta jokabideak. Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean". Bilbo, Deustuko Unibertsitatea (Doktorego Tesia, Zk.: 328).

ODRIOZOLA, J. M. (1995). "Hizkuntz erabileraren eredu dialektikoa. Hizkuntz harremanen barruti dialektikoa". Bat Soziolinguistika Aldizkaria 17(?).

OLASO, Olatz (2005). "Ikuspegi soziologikoa eta gizarte psikologiarena". "Hiznet" Hizkuntza Plangintza ikastaroa. Vitoria-Gasteiz. Asmoz Fundazioa. (www.asmoz.org).

OLASO, O., MARTÍNEZ DE LUNA, I., BERRIO-OTXOA, I. eta PLAZAOLA, E. (2001). "Ezagutza eta erabileraren arteko jauziaren azalpen teorikoa". Hizkuntzaren Soziologia lantaldea in V. Euskal Soziologia Kongresua, Bilbo, 2001eko martxoak 1-3.

ORTEGA, Ane; AMORRORTU, Esti; GOIRIGOLZARRI, Jone; URLA, Jacqueline; URANGA, Belen (2013). "Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: Nolako euskalduna naiz?" BAT Soziolinguistika aldizkaria 87-88.

PERALES, Josu (2001). "Gainbegirada bat hizkuntz jarrerei Euskal Herrian". (BAT Soziolinguistika aldizkaria 40, 2001:89-110).

PERALES, Josu (2004). "Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta". (UZTARO 50, 2004: 23-43).

SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. "Txepetx" (1991). "Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas". Donostia-San Sebastián, José María Sánchez Carrión argitaratzailea.

SIADeco (2010). "Arrasaten euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreei buruzko ikerketa kualitatiboa".

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2014). "Datu Soziolinguistikoen bilduma. Bergara 1986-2011". Soziolinguistika Klusterra.

TTAKUN KULTUR ELKARTEA (2002-2003). "Askatu mingaina: Euskaldunberrien motibazioa era erabilera indartzeko egitasmoa". Lasarte-Oria. Udal euskaltegia. AEK Muntteri euskaltegia, Ttakun kultur elkarte. Udaleko euskara batzordea.

ZALBIDE, M. (2001): “*Fishman-en HINBE edo RLS*”. Donostia, graduondoko “HIZNET” ikastaroko materiala, orain erabili.com-en ere eskuragarri.

ZAPATA, OSKAR (2007). “*Mintzapraktika programak: euskararen erabileran eragiteko tresna eraginkorrak*”. Artikulu hau 2007. urteko otsailean HIZKUNEA soziolinguistika agerkarian argitaratutakoaren laburpena da.

ZARRAGA eta beste (2010). “*Soziolinguistika Eskuliburua*”. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

WEB ORRIALDEAK:

Auñamendi Entziklopedia: www.euskomedia.org/aunamendi

AEK-ko mintzalaguna: <http://praktikatu.blogspot.com.es/>

BAT Soziolinguistika aldizkaria: www.soziolinguistika.org

Bergarako Udala: www.bergara.eus

Emun: <http://www.lantalan.com/telp/hizkuntza-asertibitatea-eta-euskararen-normalizazioa-i-asertibitatea>

Euskara ataria: www.euskara.euskadi.net/r59-734/eu

EUSTAT: www.eustat.es

GARABIDE: www.garabide.eus

INE: www.ine.es

Mondragon Unibertsitatea: www.mondragon.edu

Mintzanet: www.mintzanet.net

Soziolinguistika Klusterra: www.soziolinguistika.org

Topagunea: www.topagunea.eus

Topaguneko mintzalaguna: www.mintzalaguna.eus

Wikipedia: www.eu.wikipedia.org